AUGUSTIN ZUBIKARAI
JUAN FDEZ. EGIGUREN



# ETXEBARRIA

# ETXEBARRIA

AUGUSTIN ZUBIKARAI
JUAN FERNANDEZ EGIGUREN
1989

Augustin Zubikarai - Juan Fernandez

Legerako gordetza: Bl - 105 - 89
irarkola: Flash Composition, S. A.
Azala: Paulin Zubikarai
Argazki: J. Fernandez Egiguren.

## ESKINTZA

Ba dago bertso bat diñona:
Markin-Etxebarriko
bizi alarguna,
bakarrik egon barik
artuña laguna.

Guk lagunik onena
eskiñi nai dautsugu:
liburu bat.
Zure erriko liburua,
Atsegiñez idatzi
eta baserririk baserri,
eder eta txukun,
nai zar eta arri-uts,
guztiak maitasun bardiñez
argitaratu nai izan doguna.

Etxebarritar adiskide,
artu zure laguna,
biotzez eskintzen dautsuguna.
Parkatu utsunak.
Zeurea da...
Bedi zeure kutuna.

**Egilleak**

# ETXEBARRIA

Zure magalpe artu ninduzun
nere bizitza sorkeran,
nere arnasa, or, sustraitu zan
Euskalerriko baratzan;
jatorri bidez baserritarra,
atxurrez, gogoz, labrantzan,
soloko lanak indartu nindun
erri zaletasunetan.

Arbaso izkuntz zoragarria
baserritarren lorea,
jakintzaz zara arrigarria
munduko itz berezia;
Etxebarriko euskera maite,
edertasunez betea,
gure lurraren argia zara
baserrien arimea.

Kume zartxoan kulunkaturik
zabaltzen doaz begiak,
aurrez nenkusan baserri eder
guraso ta senideak;
zugatz gaiñean urretxindorra
baratzetan madariak,
ni jaio nintzan errekondoak
munetan zitun loriak.

Zure izkuntzaz Etxebarria,
egiz zara abeslari,
zure abotsa ain ederra da
buru-biotzen dardari;
Sarmiñan dozu izar argi bat
Bartolome agurgarri,
praille jantziaz goratu zaitu
euzko seme maitegarri.

Arnoriara begiratzen dot
egialde zabalera,
egun-sentian eguzki argiz
dizdiz dago goitik bera;
seme jakintsu...praille...
Gongotzain.r.
joan zan Amerikara,
etxebarritar urtziztilari
Balentin Zubizarreta.

**Solozabal'tar Paulin.**



Zapola
Acarregui
Gurbiola
Marquina-Jemein
Alzóga
San Andrés
Aulestia
Galarza
Marquiz-buru
Iturreta
Barinaga
BI-V-1248
BI-140
BI-V-1304
BI-V-1302
C-6213
Caserío Cortozar
Caserío Inchausp
Ermita de S. Jacinta
Caserío Sumarre
Caserío Landaburu
Caserío Otaola
Caserío Erdoza
Caserío Santana
Caserío Iparraguirre
Caserío Belarro
Caserío Goicoechea
Caserío Goicoecheaimune
Caserío Ocollaguer
Ermita de S. Joaquín
Caserío Induza
Caserío Zulueta
Caserío Arrolaio
Palacio de Munioa
Caserío Altzalegui
Caserío Iturriaga
Caserío Arcocha
Caserío Sumiñaga
Caserío Acoda
Caserío Zalorta
Caserío Erlacoa
Caserío Anchia
Caserío Araba
Caserío Atotu
Caserío Arostegui
Caserío Barenda
Caserío Zabala
Caserío Aguirre-muru
Ermita de S. Martín
Ermita de Sta. Engracia
Caserío Barrenechea
Caserío Urbieta
Caserío Marquiz
Caserío Laitea
Caserío Azaldegui
Caserío Baida
Caserío Lasarte
Caserío Saconeta
Ermita de Sta. Cruz
Caserío Idamategui
Caserío Agarre
Caserío Macardas
Caserío Iturraran
Caserío Echarte
Caserío Elizaga
Caserío Los Andreus
Caserío Ubillos
Caserío Laureguena
Caserío Adornaga
Caserío Maguregui
Caserío Arriaga
Caserío Esarte
Caserío Barsta
Caserío Aviñe
Caserío Otaerrea
Caserío Barandica
Caserío Aranceta
Caserío Arranceta
Ermita Sta. Marina
Caserío Oruaga
Caserío Urizar
Caserío Ardanza
Caserío Ubillos
Caserío Asabe
Caserío Orrondo




Plazacorta
Besosabal
Oreuntzue
Caserio Larruscain
Caserio Cortachute
Caserio Imintaola
Caserio Damacorta
Caserio Mañacorta
Caserio Arriolalegui
Caserio Usosabal
Caserio Atzoinzabak
Caserio Arranobate
Caserio Arnoate
Caserio Arrenaga
Caserio Saconeta
Caserio Adrian
Caserio Alzola Zarra
Caserio Laugarrio
Goroste
Laborain
Cortachiqui





Caserio Urquiza
Caserio Gatto
Caserio Orizate
Caserio Arenza
Caserio Orizamo
Urquichiquicoa
Unamunzaga
Caserio Sarasua
Alto de San Miguel
Urcarregui curutze
Caserio Sarasua
Caserio Gorcona
Caserio Belausteguí
Aparregui
Caserio Belarreta
Camparzulo
Caserio Belartondo
Caserio Achiqui
San Miguel
Caserio Alzate
Calamúa


# ETXEBARRIA

# DEITURA

Etxebarria'k, batera deitu nai bestera, ETXEBARRlA dau bere izena, edo ta baita Etxebarria'ko san Andres.

Orretara, zegaitik deituten dautse Markiña-Etxebarri?

Ziurretik Markiña aldeko Etxebarri zeaztutearren, edo obeto lekutzearren. Etxebarri geiago be ba dagozalako Bizkaia'n. Baiña ez dauka izen orrek ezelako oiñarririk istorian zear.

Etxebarri beti izan da bere jaubetasun osoko eleiz-atea (anteiglesia): Etxebarri'ko san Andres, edo ta gure denporetan Ander deuna.

Iñoiz gertaten da uriak sortzean lurralde batzuk eztabaidetan jartea, uriari mesede egiteko, besteko biztanle batzuk geitu eutsezelako, edo auzoren batzuk, len azke ziranak, uriari agindu eta sartu eutsezalako. Orrek asarreak sortzen zitun uri eta lengo ingurukoekaz, nai ta gero, denporen eragiñean, arazo ori zela ala konpondu.

Gertatu eikean ori Markiña'n be.

Baiña Etxebarri eta Markiña'gaz ez dago orrelakorik.

Don Tello Bizkai'ko Jaunak 1.355 urteko Maiatzaren 6'an Markiña'ri uri izateko nortasuna emon eutsanean, garbi zeaztuten zan ortako agirian, Markiña uri barria, Aspiltza deitzen dan lautadan jasoko zala, eta Alzobi eta Alzelai deiturako lurraldetan, bai eta Zuminaga'koan, eta Darretai deiturako solo bitan, eta Barrenda'ko beste bitan, eta Olaegi'n eta Murua'n. Danetara amar lurralde orreitan oinarrituko zala uri edo erri barria.

Geiago. Baldintza lez ipinten eban ez eitezela Markiña'ko uritar lez sartu Bizkai'ko Jaun berberari lurralde-lau edo Bizkai-lurra deitzen zaneko lez petxak edo amarrenak ordaintzen eutsezanik. Agerbide ori, jakiña, inguruko eleiz-ate edo erritxoekaitik zan.

Etxebarria Markiña'ko merindadean sartuta egoteak be, deitura ori erabiltera oitu zitun, au da Markiña merindadeko Etxebarria, beste ainbat erriren antzera, nortasun eta jaubetasun osoko erria dala eta ala izaten jarraitu nai dauala.

# DEITURARAREN ERABILKERA

Erriaren deitura Etxebarria da.

Baiña gero, erabilkeran, izen jokoan, euskal esaeretan azken **a** galdu egiten da, onelako jokabidea erabiliaz:

Etxebarri'k

Etxebarri'tik

Etxebarri'ra

Etxebarritar eta abar.

Gure lurralde jatorreko deitureagaz gertaten dan lez. Bizkaia deituraz, baiña gero Bizkai'ko, Bizkai'tik, Bizkai'ra eta abar erabili.

Ala izanik, eta kontuan eukita Bilbo ondoan ba dagola beste Etxebarri bat, ba dirudi deklinazio orretan nastea sortu leikela, angoak eta emengoak etxebarritarrak bardin deitzean, eta bear ba da orrek beartu egiten dau Etxebarria'ri Ander deun izena geitzea, Bilbo auzokoari Doneztebe geitzea jagokon lez. Edo ta Markiña aldeko Etxebarri erabili eragin.

Dana dala ori zeaztutea erri-agintariei dagokien ardura da.



# ERRI LEGEZ

Erri legez Bizkai'ko lur laueko eleiz-ate izan dar Beti Markiña'ko merindadean sartuta.

Jakiña da Bizkaia, denpora zarretan, "merindadetan" banatuta edo alkartuta ezagutzen zala.

Foru zarreko merindadeak onela osotzen ziran:

| | | |
|---|---|---|
| Busturia | 26 | eleizatetan. |
| Uribe | 31 | eleizatetan. |
| Arratia | 7 | eleizatetan. |
| Zornotza | 4 | eleizatetan. |
| Bedia | 2 | eleizatetan. |
| Markiña | 2 | eleizatetan. |

Danetara sei merindade eta 72 eleizate (anteiglesia).

Foru zarreko zerrenda au aldatu egin zan Orozko Bizkaia'n sartu zanean. Alaz eta be Zornotza eta Bedia alkartu ziranez, barriro sei merindade izaten jarraitu eben.

Etxebarria, Xemein'egaz batean, Markiña'ko merindadean sartzen zan beti.

Askok uste dabe Berriatua eta Ondarroa eta Ziarrotza be merindade onetan sartzen zirala, baiña esan bearreko da geroagoko lurraldeen banaketak beste era baten egitean Berriatu Markiña'ko "partiduan" sartu ba eben be, Merindadeen denporetan Xemein eta Etxebarri bakarrik sartzen zirala Markiña'ko merindadean, eta Berriatu, Ondarroa eta Ziarrotza Busturi'ko merindadean sartzen zirala.

Gernika'ko Batzar Etxean Etxebarri'k 28 garren jarrilekua eukan, Xemein'en urrengo; onek 27 garrena eukan.

# LEKUTZEA

ltxas egoera neurritzat artuta, Etxebarria, bere erribera lez ezagutzen dana, itxasoaren neurritik 101 metrotara kokatua dago.

Mendirik gorena Abiñe da, 515 metrotara.

Geografi neurrietan onela lekutzen da:

Zabalera 43° 15'10" -tanr

Luzerako 1° 22'40" -tan.

## MUGAK

| | |
|---|---|
| lparraldean | **(N)** Markina-Xemein dauka. |
| Egoaldean | (S) Eibarr |
| Sorkaldean | (E) Elgoibar. |
| Sarkaldean | (0) Markina-Xemein. |

## AUZOAK

Etxebarria lau auzotan banatzen zan lengo denporetan.

Auzo orrei, liburu batzuetan, batez be eleizakoetan, "beredak" deitzen eutsen.

Auzo edo bereda orreik onela banatuten ziran:

Alzaa

Aulestia

Galarza

Unamunzaga.

1704 urtean egiñiko etxeen erroltzea begiratzen ba dogu, etxe oneik billatzen doguz auzo bakoitzean:

| | |
|---|---|
| Alzaa auzoan | 24 |
| Aulestia auzoan | 27 |
| Galarza auzoan | 30 |
| Unamunzaga auzoan | 23 |
| | |
| Guztira | 104 |

Etxe oneik, orduan egiten zan erabidea kontuan eukita, au da sutegi oso edo "foguera entera" ko lez artzen ziranak 74 ziran. Beste 14 sutegi erdiko edo "media foguera'koak eta 20 sutegi laurden edo etxetxuak deitzen ziranak, erderazko paperetan "casilla" deiturakoak.

Ez dakigu urte aretan danetara zenbat bizilagun egozan. Ordez bai zenbat lagun egozan Eleizan jaunartu edo komulgatu bear ebenak.

Danetara 640 orrelako. Ume eta ezin ebenak zenbatu barik gelditzen ziran.

Orrek gauza bat gogoratzen dausku. Orduko bizilagunen zenbaketa, kontu artzea, Eleizak eroaten ebala eta orretarako egozan parrokian garizumako txartelak. Kristiñau Ikasbidea (dotriña) aztertu eta gero kontu errazoia emoteko, edo eroateko.

Geroago etorri da lau auzoei beste bat geitzea, Erribera, (Erbera, etxebarritarren aozkeran) eta 1965 inguruko etxe banaketa eta bizilagunen lekutzeari buruz, nun egozanari buruz, onelako zeaztasunak agertzen ziran:

| **Auzoa** | **Etxeak** | **Familiak** | **Bizilagunak Guztira** |
|---|---|---|---|
| Alzaa | 35 | 43 | 205 |
| Aulestia | 39 | 33 | 198 |
| Galarza | 42 | 46 | 274 |
| Unamunzaga | 27 | 22 | 136 |
| Erribera | 30 | 50 | 180 |
| Guztira | 173 | 194 | 993 |

(Auñamendi-Diccionario'tik artuak)



# ERRIAREN LURRAK

Etxebarri'k, bere jaubetasuneko lurretan, 17,74 km.2 daukaz. Kontuan euki Lea-Artibai ingurune onetan beste erriak onelako neurriak daukezala:

| | |
|---|---|
| Lekeitio | 1,77 km.2 |
| Ondarroa | 3,61 km.2 |
| Gizaburuaga | 6,33 km.2 |
| Mendexa | 6,89 km.2 |
| Amoroto | 13,96 km.2 |
| Etxebarri | 17,74 km.2 |
| Berriatu | 19,85 km.2 |
| lpazter | 22,61 km.2 |
| Arbazegi | 24,50 km.2 |

eta Markina-Xemein, gaur Ziarrotza be bertan sarten dala, 63,87 km.2

Ortik ikusten da Etxebarria, Lea-Artibai maillan, geiago edo gitxiago, erdi aldean dagola.





# BIZILAGUNAK ETA EUREN BIZITZA JATORRA

Baserri bizitza da emengoa. Len geiago gaur baiño, gaur bestelako gintza sartua dalako be-aldean.

Juan Ramon lturriza kondaira idazleak diño, bere denporetan 3.600 anega gari batzen zirala emengo baserrien artean eta beste bost milla anega artotan, bai eta arba (nabo), liñu, baba, indiar, sagar, gaztaiña eta gozotegietarako bereziak diran ginda eta kereizak.

Kontu egin datu oneik Iturriza'k bere Bizkai'ko edestia idatzi ebanekoak dirala, au da, 1800 garren urte ingurukoak.

Orrez gaiñera baso ugarien jaube dala erri au, eta origaitik egur nai ikatzetan aberatsa zala, bai eta abereen janaritan be.

Ur ugari, ur garbi ederrak eukazala, eta batez be atsegiñena Aulestiarte'ko ura zala.

Bizilagunei buruz lturriza idazle berberak diño, bere kondairan, emengo andrak goragarriak dirala. Langille onak batetik, etxe goraberan andre zur eta biargiñak, berebizikoak etxeko abereak azi eta zaintzen, eta batez be ollanda ederrak eukiten.



# BIZILAGUNEN ZEREGIÑAK LEN ETA ORAIN

1825 urtean 649 lagun agertzen ziran emengo bizilagun lez. Euren artean baserri eta etxe zeregiñetatik kanpora agertzen diran lanbideak, ofizioak, oneik ziran:

| | |
|---|---|
| Errotaria | 1 |
| Errementaria | 1 |
| Argiña | 1 |
| Sukaldaria | 1 |
| Pioia | 1 |
| ikaslea | 1 |
| Zirujanoa | 1 |
| Entallatzaillea | 1 |
| Jostun ebagitzaillea | 1 |
| lrulea | 1 |
| llaillea | 4 |
| Jostunak | 3 |
| Organu jolea | 1 |
| Abadeak | 4 |
| Etxe arduradunak | 6 |
| Serbitzariak | 8 |

Ordez, 1985 urtean Etxebarrin egozan ogibideak, lan postuak, baserri lanak alboan lagata, beste oneik ziran; Bizkai'ko Aldundiak ataratako "Bizkai'ko lan merkatua" liburuan irakurri leikenez:

| | |
|---|---|
| Paper eta abar | 1 |
| Sailkatu bakoak | 1 |
| Argiñak | 3 |
| Jangaietako langilleak | 3 |
| Elektra indarrean | 4 |
| Merkataritzakoak | 4 |
| Egur eta paper gaietako | 7 |
| Lantegi zuzendariak | 8 |
| Ostatu etxetakoak | 9 |
| Teknikoak | 10 |
| Merkatari ta osalaritza | 11 |
| Sidero-metalurgian | 12 |
| Eraikuntza-pioiak | 12 |
| Karga-deskarga | 13 |

| | |
|---|---|
| lrakasleak | 13 |
| Banakaritza-aministrazio zerbitzutakoak | 18 |
| Mekanikoak | 29 |
| Nekazaritza, abere azkuntza, baso-lanak | 78 |
| Forjaketa | 86 |
| Guztira | 322 |

Urte orretan, 1985 urtean, len lan egin eta gero lan barik egozanak ogei ta bederatzi lagun ziran (29), eta talde oneitan sailkatuten ziran:

| | |
|---|---|
| Teknikoak | 1 |
| Papergintzan | 1 |
| Pioiak | 1 |
| Aministrazioan | 3 |
| Mekanikoak | 3 |
| Forjaketan | 3 |
| Jan eta Edari lanekoak | 5 |
| Ostatu serbitzariak | 6 |
| Karga-deskarga eta txoferrak | 6 |
| Guztira | 29 |

**BIZILAGUNAK GAUR**

Gure gizaldian Etxebarria milla bizilagunetik gora eukitera eldu zan, baiña milla eta eunera eldu barik.

Bizilagunik geien euki zitun urteak:

| | |
|---|---|
| 1930 urtean | 1.097 lagun. |
| 1945 urtean | 1.095 lagun. |
| 1942 urtean | 1.094 lagun. |
| 1941 urtean | 1.093 lagun. |

1945 urtean berakada egiten dau, berrogetak lagun gitxiago urte batetik bestera.

1965 urtearte, millatik gora ibili zan.

Urte orretan 980 lagun eukitera beratu.

1970, 1 eta 2'en barriro millatik gora, baiña 1973'en beratzen asten da eta ordutik ona onela dabil bertako bizilagunen auzi eta gorabera:

| | |
|---|---|
| 1973 | 981 lagun. |

| | |
|---|---|
| 1974 | 965 lagun. |
| 1975 | 730 lagun. |
| 1976 | 746 lagun. |
| 1977 | 750 lagun. |
| 1978 | 759 lagun. |
| 1979 | 751 lagun. |
| 1981 | 726 lagun. |
| 1982 | 739 lagun. |
| 1983 | 751 lagun. |
| 1984 | 744 lagun. |
| 1985 | 750 lagun. |
| 1986 | 794 lagun. |
| 1987 | 795 lagun. |
| 1988 | 798 lagun. |





# NUNGOAK DIRA ETXEBARRITARRAK?

Etxebarrin biziarren, danak ete dira etxebarritarrak, edo bertan jaioak? Edo ta nundik etorriak ete dira gaur bertakotzak bizi diranak?

Erriak alkartasun lako joera eta trukeak eukiten dabez euren bizitzan. Alako senidetasun edo urretasun bat igarten da sarri, batzukin baiño besteekin geiago.

Bizilagunen artean, artu daigun ezaugarritzat urte bat: 1825 urtea, esateko.

Bertako Udaleko erroltza baten irakurri leikenez, bizilagunen artean, bertakoetatik kanporakoak, au da, kanpotik bertara etorri edo ezkondutako oneik billatzen doguz.

Bizkai'ko beste errietatik etorriak 87. Era onetan banatuta:

| | |
|---|---|
| Arbazegi | 3 |
| Barinaga | 24 |
| Berriatua | 1 |
| Berriz | 1 |
| Bolibar | 11 |
| Elorrio | 1 |
| Mallabia | 3 |
| Markina | 28 |
| Murelaga | 4 |
| Nabarniz | 1 |
| Ziarrotza | 10 |

Gipuzkoa'ko errietatik etorriak 86 dira, era onetan banatuta:

| | |
|---|---|
| Aginaga | 9 |
| Alzola | 1 |
| Azkoitia | 10 |
| Azpeitia | 9 |
| Bergara | 1 |
| Eibar | 3 |
| Elgoibar | 33 |
| Gabiria | 1 |
| Mendaro | 7 |
| Mutriku | 3 |
| Oñate | 1 |
| Pasai | 1 |

| | |
|---|---|
| Soraluze (Plazentzi) | 3 |
| Errezil | 2 |
| Urretxu | 1 |
| Urrestilla | 1 |

Eta beste errialdetatik etorriak bi bakarrik agertzen ziran, biak Logroño'tik etorriak.

Erabide bardiñari jarraituaz, 1987 urteko zerrendan, era onetan sailkatu geinkez Etxebarriko bizi-lagunak, nundik etorriak diran kontuan artuta:

Bizkai'ko errietatik etorriak 206 lagun.

| | |
|---|---|
| Amorebieta | 1 |
| Amoroto | 2 |
| Apatamonasterio | 1 |
| Aginaga | 9 |
| Arbazegi-Gerrikaitz | 5 |
| Barakaldo | 2 |
| Barinaga | 2 |
| Bermeo | 1 |
| Berriatua | 10 |
| Bilbo | 22 |
| Bolibar | 1 |
| Durango | 3 |
| Ermua | 1 |
| Elorrio | 2 |
| Gernika | 3 |
| Ipazter | 2 |
| Mallabia | 6 |
| Markina | 113 |
| Mendexa-Xem. | 1 |
| Mundaka | 1 |
| Murelaga | 8 |
| Ondarroa | 12 |
| Portugalete | 1 |
| Zamudio | 1 |
| Zaldibar | 1 |
| Ziarrotza | 3 |

Gipuzkoa aldetik etorriak 82 dira, era onetan sailkatuta:

| | |
|---|---|
| Albazisketa | 1 |
| Azkoitia | 1 |
| Azpeitia | 1 |

| | |
|---|---|
| Arrasate-Mondragon | 8 |
| Beizama | 1 |
| Bergara | 1 |
| Deba | 3 |
| Donosti | 2 |
| Eibar | 26 |
| Elgeta | 1 |
| Elgoibar | 19 |
| Ernani | 11 |
| Errezil | 1 |
| Mutriku | 13 |
| Soraluze | 1 |
| Usurbil | 2 |

Araba aldetik, Gasteiz'tik etorritako bakar bat agertzen da.

Españar estaduko errialdetatik etorritakoak amaika billatzen dira, lurralde oneitako lez sailkatuta:

| | |
|---|---|
| Albacete | 1 |
| Barcelona | 2 |
| Caceres | 1 |
| Coruña | 1 |
| Jaen | 1 |
| Malaga | 1 |
| Murcia | 1 |
| Santander | 2 |
| Valladolid | 1 |

EUROPA'tik etorritakoetan bakarra billatzen da. ltaliatik etorria.

AMERlKETA'tik etorriak 15 dira.

| | |
|---|---|
| Cuba | 1 |
| Estatu Batuak | 6 |
| Mexiko | 6 |
| Colombia | 2 |

AFRlKA'tik etorriak be ba dira lau.

| | |
|---|---|
| Marruecos | 4 |

Azkenez, AUSTRALlA'tik etorritako bat be ezagutzen da.

Orrela, danen bateratze bat egin ezkero, gaurko etxebarritarrak era onetan banatu leikez:

Euskaldunak edo euskal errietatik etorriak:

| | |
|---|---|
| Araba | 1 |
| Gipuzkoa | 82 |
| Bizkaia: Errietariak (1) | 206 (Guztira bizkai- |
| Etxebarri bertakoak (2) | 466 tarrak 672) |
| | |
| España'ko probintzieta'tik etorriak: | 11 |
| Europarrak | 1 |
| Ameriketakoak | 15 |
| Afrikarrak | 4 |
| Australiarrak | 1 |
| | |
| Guztira | 787 bizilagun. |



# BESTE JAKINGARRIAK

1988 urteari dagokionez, jakingarri oneik emon geinkez:

**Udala:**

Zazpi lagunek osotzen dabe bertako Udal Batzarra, Alkatea eta sei ziñegotzik (kontzejalek).

Alkatea: Juan Luis Arrieta Zubizarreta.

Ziñegotziak: Santos María Espilla,
Juan Espilla,
Jose Antonio Zelaia,
Jose M.ª lbarzabal,
Margarita Bilbao,
lñazio lbarluzea.
Idazkaria: Mari Tere Urdampilleta.

**Parrokia:**

Parroki bakarra dago: Ander deunaren omenezkoa.

Parrokoa, 1948 urte ezkeroztik, Bernardino Barrutia *Eriz* jauna.

**Eskolak:**

Bakarra.— Bost irakasle.



**Osakidetza:**
Osagillea eta Botika, Markiña'n.

**Telefonoak:**
160 inguru.

**Auzitegiak:**
Lurralde maillakoa: Gernika'n.
Nausia, Bilbo'n.

**Kiroldegiak:**
Pelota toki ederra dauka, barriztatua. Bertan dago Proba-tokia be eta jokatzen diran idi-proba eta bestelakoak, entzute andikoak izaten dira eta jende asko batzen dabenak.

**Ibil-gailluak:**
Kotxe eta motorren sailla era onetan banatzen da:

| | |
|---|---|
| Autobusak | 3 |
| Kamioiak | 23 |
| Kotxe txikiak | 276 |
| Motorrak | 17 |
| Furgonetak | 5 |
| Ziklomotorrak | 2 |

**Bideak:**
Etxebarri'tik bidez bide ibiliaz, jakingarri oneik artu bear doguz:

| | |
|---|---|
| Bilbo'ra | 53 kilometro, Trabakua'tik zear. |
| Markiña'ra | 2,5 km. |
| Elgoibar'era | 12 km. Emen dago trenik urrena. |
| Gernika'ra | 25 km. |
| Durango'ra | 24 km. |
| Ondarroa'ra | 13,5 km. |
| Eibar'era | 14,5 (Barinaga'tik zear) |

# ETXEBARRIA ETA EUSKERA

1981 urtean Pedro Urizar'en liburu bat agertu zan "Contribución a la Dialectología de la Lengua Vasca".

An, Markiña'ko berezitasunez **bizkaiera** egiten daben errien artean Etxebarria agertzen da. Amaika lagun bakarrik egozan orduan euskera erabilten ez ebenak.

Etxebarria'ko euskera, Luis Luziano Bonaparte'ren zeazketan, Bizkai Sorkaldeko izkeran, Markiña'ko berezitasuneko agertzen zan.

# BATEZ BESTEKO SARRERAK

Bizkai'ko Aldundiak erriz-erri egindako Udalerrien egoerari buruzko ikerlan baten txosten au irakurten da:

"Familia-lankidetza motazko enplegu ugaria eta izari oso murriztua elkarbiltzen dituen ohizko nekazal ustiapena nagusi direlarik, errentagarritasun alorrean ondorio baxuak dituen udalerria da. Hala ere, siderurgia azpisektoreari dion menpetasunak, errentagarritasuna batez bestekoa baiño 0,79 urriagoko biurtzen da. Guzti hori hala baldin bada ere, udalerri honek Lurralde Historikoaren bataz-bestekon hurbiltzen den per-capita sarrera gozatzen du".

**(Udalez-udaleko Ekoizpen eta sarrera"**
**(Bizkai'ko Foru Aldundia)**

# UDAL AURRE-KONTUAK (presupuestoak) AZKEN URTEETAN

Azken urteotan, berreun bidar bidartu da Etxebarri'ko aurre-kontua.

1971 urtean, 423.000 pesetakoa zan.

1980 urtean, amar urte geroago, amar ta erdi bidar geiago, au da 4.474.610.

Eta 1988 urtean, 82.277.909 pesetakoa.

Alderantzi au zeaztasunez ikusteko, ara emen 1971 urtean asi eta 1988 bitarteko aurre-kontu edo presupuestoak.

| | | | |
|---|---|---|---|
| 1971 | 423.000 | 1980 | 4.474.610 |
| 1972 | 432.300 | 1981 | 5.259.695 |
| 1973 | 472.500 | 1982 | 5.647.510 |
| 1974 | 591.000 | 1983 | 7.443.953 |
| 1975 | 840.000 | 1984 | 9.526.398 |
| 1976 | 1.173.760 | 1985 | 10.260.569 |
| 1977 | 1.992.750 | 1986 | 17.547.018 |
| 1978 | 4.084.195 | 1987 | 50.267.000 |
| 1979 | 4.885.949 | 1988 | 82.277.909 |

1988 urteko gorakadearen arrazoi bat Udaletxe barria egin bearreko dirutza da.

# ETXEBARRIA ORAIN 60 URTE (1928'n)

Urte orretan Etxebarria Durango'ko auzitegi lurraldean sartzen zan. 1.030 egizko bizilagun eukazan, eta 1.088 eskubidezko.

Urte aretan erri agintaritza eukenak oneik ziran:

Alkatea: Ramon Arrizabalaga.

ldazkaria: Emilio Gabilondo.

Epaikaria: Jose Barinaga.

Fiskala: Domingo Barruetabeña.

Parrokian iru abade egozan: Franzisko Etxebarria, parrokoa, eta Marzelino lbarzabal eta Jose Peñagarikano, Laguntzailleak.

Maisu-irakasle bi egozan: Julian Alvarez eta Felipe Arteaga.

Bizarkentzaille bi egozan: Domingo Zelaia eta Pedro Zubiza-rreta.

Arotzak zortzi: Jose Arrieta, Ramon Arrizabalaga, Domingo Zelaia, Santos Espilla, Jose Mari Legarda, Jose Muniozguren, Jose M. Olalde eta Domingo Zubizarreta.

Jantoki bat: Elías Uria.

Baserri gaien saltzaille: Domingo Zelaia eta Sindikatoa.

Janari dendak: Lauk ordaintzen eben orretazko zerga: Ramon Arrizabalaga, Gabilondo'ren alarguna, Elias Uria eta Domingo Zelaia.

Elektra-indarra: Franzisko lruenpagate.

Errementari lez iru agertzen ziran: Carlos Barinagarementeria, Antonio Gisasola eta Jose Andres Olasolo.

Ogigille: Liborio Ugarte.

# GERNIKA'KO BATZAR NAGUSIETARA ETXEBARRIA'TIK JOANDAKO ORDEZKARIAK ETA BATZARRETAKO URTEAK

| | |
|---|---|
| Abaitua, Iñazio | 1858 |
| Abinaga, Pedro | 1613 |
| Adorriaga, Juan | 1637 |
| Adorriaga, Bartolo | 1694 |
| Agirre, Isidro | 1866, 1870 |
| Agirre, Manuel | 1744, 1746 |
| Alza, Bartolome | 1698, 1699 |
| Alza, Juan | 1586, 1596, 1599 |
| Alzaa, Franzisko | 1656, 1672 |
| Alzaa, Fr. Antonio | 1776, 1786, 1788, 1792, 1793, 1794, 1798 |
| Alzaa, Juan | 1569 |
| Andonegi, Juan | 1677 |
| Andrinua, *J.* Migel | 1562 |
| Andrinua, Domingo | 1606 |
| Andrinua, Bartolome | 1664 |
| Andrinua, Juan | 1639 |
| And u ruaga, Juan | 1637 |
| Ansola, Iñazio | 1638 |
| Ansotegi, Domingo | 1636 |
| Ansotegi, Andres | 1698 |
| Antxia, Franzisko | 1674 |
| Aregita, Juan | 1599 |
| Aregita, Martin | 1654, 1671 |
| Aregita, Domingo | 1662 |
| Aresilondo, Andres | 1574 |
| Aretxiluaga, Adrian | 1724 |
| Arkotxa, Domingo | 1726 |
| Armentia, Andres | 1788 |
| Armentia, Jose | 1744 |
| Armentia, Juan Antonio | 1802 |
| Arnoyaga, Franzisko | 1654 |

| | |
|---|---|
| Arnoyaga, Pedro | 1597 |
| Arrate, Juan Cruz | 1850, 1854 |
| Arrospide, Jose | 1790 |
| Astarloa, Jose Antonio | 1766 |
| Aulestia, Bautista | 1827 |
| Aulestia, Diego | 1768 |
| Aulestia, Juan | 1648 |
| Aulestiarte, Juan | 1591, 1593, 1602 |
| Azarrolaza, Andres | 1670 |
| Azarrolaza, Juan | 1632 |
| Azorin, Juan | 1650, 1667 |
| Baoydea, Juan | 1558 |
| Barinaga, Adrian | 1745 |
| Barinaga, Juan Jose | 1812, 1825 |
| Barinaga, Antonio | 1815 |
| Barinaga, R. Cristobal | 1831 |
| Barinaga, R. Juan Antonio | 1848, 1854, 1860, 1866 |
| Barinaga, R. Jose Martin | 1854, 1856 |
| Beoidia, Martin | 1620 |
| Barroeta, Martin | 1664, 1667 |
| Barroeta, Juan | 1666 |
| Barroeta, Cristobal | 1689, 1690, 1696, 1700 |
| Barroeta, Migel Ignacio | 1734, 1756 |
| Barroeta, Migel Andres | 1786 |
| Barroeta, Joakin | 1804 |
| Baskaran, Juan | 1730 |
| Baskaran, Franzisko | 1859, 1860 |
| Bereinkua, Martin | 1575 |
| Belaostegi, Domingo | 1645 |
| Belaostegi, Juan | 1680, 1692 |
| Belaostegi, Domingo | 1732 |
| Belarroa, Juan | 1635 |
| Belarroa, Juan | 1754 |
| Belarroa, Bixente | 1852 |
| Beobide, Martin | 1585 |
| Beobide, Martin | 1644 |
| Bereziartua Jose M. | 1864 |
| Bizkarra, Hernando | 1559, 1560 |
| Boidia, Martin | 1742 |
| Castaño, Jose J. | 1788 |
| Egurbide, Juan Bta. | 1856 |
| Egurrola, Domingo | 1640 |

| | |
|---|---|
| Egurrola, Bartolome | 1796 |
| Egurrola, Bartolome | 1856, 1859, 1860, 1862 |
| Elexondo, Martin | 1657 |
| Elgezabal, Antonio | 1770 |
| Elordi, Juan | 1806 |
| Elordi, Pedro | 1876 |
| Eskutasolo, Joan | 1611 |
| Fruniz, Juan Manuel | 1802 |
| Gabiria, Pedro | 1621 |
| Gaitan Barroeta, Agustin | 1820 |
| Gandiaga, Domingo | 1577 |
| Gandiaga, Martin | 1605, 1616, 1634 |
| Gandiaga, Pedro | 1665 |
| Gandiaga, Pedro | 1739 |
| Gandiaga, Franzisko | 1764, 1780 |
| Garro, Tomas | 1589 |
| Garro, Juan | 1710 |
| Gerendian, Juan | 1724 |
| Gerrikagoitia, Franzisko | 1844 |
| Gojeaskoetxea, Manuel | 1844, 1846, 1848 |
| Goiri, Pedro | 1615 |
| Goitia, Tomas | 1788 |
| Gortazar, Jose | 1868 |
| Guenetxea, Cristobal | 1754 |
| Gisasola, Juan Jose | 1870, 1877 |
| Ibañez, Jose | 1790 |
| Ibarguen, Franzisko | 1621, 1646 |
| Ibarguen, Juan | 1651, 1652 |
| Ibarluzea, Migel | 1625, 1626, 1627 |
| Ibarluzea, Andres | 1660 |
| Ibarluzea, Franzisko | 1679 |
| Ibarluzea, Juan | 1712, 1720, 1722, 1726, 1728, 1734 |
| Ibarluzea, Domingo | 1766 |
| Ibarluzea, Juan Antonio | 1804 |
| Ibarluzea, Jose Domingo | 1862, 1876, 1877 |
| Ibarrola, Domingo | 1782, 1798 |
| Ibarzabal, Franzisko | 1876 |
| Idoeta, Jose | 1854 |
| Imitola, Domingo | 1584, 1628 |
| I mitola, Domingo | 1640, 1669, 1682 |
| Iri berri, Antonio | 1764, 1780 |

| | |
|---|---|
| Irigoen, Martin | 1582 |
| Irigoyen, Antonio | 1748 |
| Iriondo, Migel | 1830 |
| Iturralde, Andres | 1760 |
| Iturralde, Jose | 1776 |
| Kareaga, Martin | 1625 |
| Larragoitia, Juan J. | 1730 |
| Larruskain, Franzisko | 1689 |
| Lejardi, Sebastian | 1631, 1643, 1673 |
| Lejardi, Martin | 1657, 1678, 1686 |
| Lejardi, Domingo | 1839 |
| Lobiano, Juan | 1572, 1579, 1582, 1617 |
| Lobiano, Andres | 1609, 1659 |
| Lobiano, Martin | 1668, 1690 |
| Lobiano, Jose | 1752 |
| Loiola, Franzisko | 1794, 1795, 1806 |
| Loiola, Jose Markos | 1858, 1868 |
| Maguregi, Domingo | 1560, 1567 |
| Maguregi, Domingo | 1846 |
| Maguregi, Juan | 1604, 1607, 1615, 1624 |
| Maguregi, Pedro | 1624 |
| Maguregi, Martin | 1661 |
| Maguregi, Bartolome | 1684 |
| Mamizaga, Pedro | 1846 |
| Mendiola, Migel | 1858 |
| Mugaguren, Bixente | 1784 |
| Mugartegi, Diego | 1839, 1841 |
| Munibe, Martin | 1622, 1623, 1624, 1626 |
| | 1628, 1629, 1639 |
| Munibe, Juan | 1650 |
| Muniozguren, Andres | 1801, 1816, 1823, 1825 |
| Muniozguren, Franzisko | 1852 |
| Okoroki (Otxoa), Juan | 1610 |
| Okoroki, Pedro | 1610 |
| Olabe, Aparizio | 1676, 1688 |
| Olaeta, Jose | 1674 |
| Olasolo, Jose Andres | 1818 |
| Olasolo, Jose Ramon | 1856, 1872, 1876 |
| Onaindia, Juan | 1774 |
| Orbe, Andres | 1752 (Valdespina'ko Markesa) |
| Orbegozo, Marzelino | 1833 |
| Rementeria, Andres | 1772 |

| | |
|---|---|
| Sarasua, Simon | 1653 |
| Sarasua, Adrian | 1738 |
| Solabarrieta, San Juan | 1633 |
| Solozabal, Migel | 1841 |
| Solozabal, Jose Maria | 1859 |
| Solozabal, Julian | 1868, 1876 |
| Ugarte, Domingo | 1618 |
| Ugarteburu, Martin | 1558, 1561, 1565 |
| Ugarteburu, Martin | 1649 |
| Ugarteburu, Bartolome | 1651 |
| Ugarteburu, Juan | 1746 |
| Ugarteburu, Juan | 1800 |
| Unamunzaga, Juan | 1578, 1583, 1613, 1630, 1642 |
| Unamunzaga, Jose Maria | 1854 |
| Unamunzaga, Bartolome | 1720 |
| Unamunzaga, Jose Iganzio | 1864, 1866 |
| Unamunzaga, Jose Antonio | 1872, 1876, 1877 |
| Urigoen, Martin | 1576 |
| Urkidi, Jose | 1790 |
| Urkidi, Jose Joakin | 1833 |
| Urkiri, Andres | 1647 |
| Urkieta, Martin | 1762 |
| Urrejola, Pedro | 1625 |
| Urrosolo, Pedro | 1663 |
| Zabala, Juan | 1697 |
| Zabala, Iñazio | 1824 |
| Zangroniz, Jose | 1770 |
| Zangron¡z, Franzisko | 1808, 1814 |
| Zezeil, Martin | 1750, 1759 |
| Zezeil, Juan | 1756 |
| Zuaza, Martin | 1612 |
| Zubizarreta, Andres | 1789 |
| Zuinaga, Jose | 1829 |
| Zuinaga Gisasola. J. | 1879 |
| Zuloeta, Martin | 1571 |
| Zuloeta, Juan | 1620, 1642, 1658 |

# ERROTAK

Noiz asi ete ziran errotak Etxebarria'n?

1704 urteko erroltzetan, zentzoetan, ez da agertzen errotarik.

Baiña ori ez da bakarrik Etxebarriko akatsa.

Arbazegi, Bedarona, Berriatua, Ziarrotza, Etxebarria, Gizaburuaga, Ibarrangelu, lpazter, Jemein, Markina, Mendeja, Murelaga, Natxitua, Ondarroa, Gerrikaitz, Amoroto eta Lekeitio'n be bardin gertaten da. Ango erroltzetan ez da agertzen errotarik. ("La Industria Molinera en Vizcaya en el siglo XVIII". Ana Gutierrez, Juan Jose Nuñez, Salbador Ariztondo).

Alaz eta beste tokietan agertzen dira.

Ala urte aretan, Bizkai'ko beste errialdetan, 117 errota agertzen dira, ta gero, 1745'n, 502 aiña zenbatu.

Orrek esan gura dau errotak egin eta gertuteko denporaldia orduntxe asi zala.

Gertu baiño, geitzeko denporaldia esango neuke nik.

Edozetara be gure jakin naia au da: Ez ete egoan aurrerago errotarik? Eta zeaztuta, ez ete egoan aurrerago errotarik Etxebarria'n?

Gure alegiñetan ibili ta ibili, Gernika'ko Batzar Etxeko Artxiboan, "Pleitos y autos" saillean, Registro n.° 6, n.° 59 zenbakiagaz, 1635 urteko agiri bat billatzen da: *"Visita General de las tabernas, Abacerías... Echevarría. Contiene: Autos y Diligencias correspondiente a la visita general hecha en el año de 1635 de las carnicerías, abacerías, molinos, tabernas, mesones, tiendas y pesos, así del infanzonado como de las villas de Señorío de Vizcaya"*.

Eta agiri orretan agertzen da, salatuen artean, Andres de Barinaga, molinero de Barinaga, eta iru uts-egiteen ondorenez, iru milla ta bosteun marau (maravedi) ezarrita; eta Maria Ansotegi, Barinaga'beko errotagaitik bi milla ta bosteun marau; eta P. Urrosollo, Ursulo'ko errotako iru uts-egitegaitik, iru milla ta bosteun marau; eta Juana Ugarteburu, Ugarteburu'ko errotako uts-egite bigaitik, bi milla ta bosteun marau; eta Ap. Agirre, Okorokiko errotako iru uts-egitegaitik, iru milla ta bosteun marau; eta Domingo Ansotegi, Ansotegi errotako iru uts-egitegaitik, iru milla ta bosteun marau.

Errotari orrei jakin eragiten jakoe aurrerantzean eleiz-ate anetako usarixoak gorde dagiezala eta gari anegako ez dagiela eroan oitura dan baiño geiagorik, ez arto eta beste gauzetan be, foruaren aurka eta erritarren kaltean dalako ori.

Eta agiri orretan, zigortuta lez agertzen diran errotak oneik ziran:

Ansotegi.

Barinaga bekoa.

Barinaga (Andres'ena) Au Xemeingoa.

Okoroki.

Ugarteburu.

U rrosolo.

Eta ez ain zuzen be urte orretan sortutako lez, aurretik lanean ebiltzan tez baiño.

Beraz 1635 baiño len ba egozan Etxebarria'n bost errota.

## Erroten jakingarriak geroagoko urteetan

**1745-1746** urteko erroltzetan errota oneik agertzen dira:

**Barinaga-Rementeria.** Jaubea: Andres Ansotegi. Maisterra: Ventura Zuazo.

**Ansotegi.** Jaubea: Andres Ansotegi. Maisterra: Nikolas Amutxastegi.

**Errotabarria.** Jaubea: Peñaflorida'ko kondea Maisterra: Franzisko Usatorre.

**Lomiño Errota.** Jaubea: Jose Lobiano. Maisterra: Andres Lobiano.

**Okoroki.** Jaubea: ln° Ugarteburu. Berberak erabilten dau.

**Urrosolo.** Jaubeak: Erdia Eibarko Frantziskotar monjak eta beste erdia Manuel Dgo. Agirre. Monjen alderdia Jose Lizaranzu'k erabilten dau eta Agirre'rena Gregorio Pagate'k.

**Sarazibar goikoa.** Jaubea, Sarasua'ren alarguna. Berberak erabilten dau.

Berrogeitamar urte geroago, au da, **1795** urtean, oneik agertzen dira:

**Errotabarria.** Jaubea: Peñaflorida'ko Kondea. Maisterra: Andres Barinaga-Rementeria.

**Urrosolo.** Erabilten dauna: Ramon Pagate. Erroteagaitik amabi anega gari ordaintzen dauz.

**Ansotegi.** Jaubea: Benito Ansotegi. Urteko errentatzat 31 anega gari ordaintzen dauz.

**Lobiano.** Jaubea: Maria Lobiano. Erabilten dauna: Jose Lobiano. Daukan errenta: 15 anega eta erdi gari; anega bi ta erdi arto eta 30 dukat dirutan.

**Arexilondo.** Jaubea: Joakin Solozabal. Adiñera eldu bakoa. Irabazien erdia berak jasoten dau.

Urte bete geroago, **1796** urtean zeaztasun oneikin agertzen dira:

**Aregilondo. Gandiaga.** Euren izenetako etxeetatik banatuta dagozan errota bi dagoz, eta iñor ez da bizi euretan.

**Ansotegi.** Bertan ez da iñor bizi, baiña Ansotegi Torretxeko errenteru batek erabilten dau.

**Urrosolo.** "Urzulo'ko errota bat dago, eta ez da iñor bertan bizi. Errota "Alzola-erreka" Urrosolo'n bizi diranak erabilten dabe, txandaka, baiña errotan bertan ez da iñor bizi".

**Lobiano.** Jaubea: Maria Txopitea. Errenteru batek erabilten dau.

**Errotabarria.** Jaubea: Peñaflorida'ko kondea. Ansotegi Torretxeko maizterrak erabilten dau.

**Ugarteburu eta bertako errota.** Iñor bizi barik. Jaubea: Juan Ugarteburu.

**1798** urteko agirietan, au irakurten da: 1704'tik gerora egiñiko etxe barrien erroltzea:

**Gandiaga'ko** errota barria. Jaubea: Maria Oliden Gandiaga. Aurten 40 dukaten errenta dauka. Bertan Domingo Egurrola, errenterua bizi da.

**1814** urtean iru erroten errentak agertzen dira. Besterik ez da aitatuten.

**Ansotegi.** Errenterua bizi da. Errenta 170 errial urteko.

**Errotabarria.** Errenterua bizi da. Errenta: 478 errial urteko.

**Lobiano.** Errentan dagon errota: Urteko 338 errial.

**1823** urtean erriari ordaintzen dautsen errota bi bakarrik agertzen dira:

| | Errenta zeatza, kendu bearrak kenduta. | Consuladuko zatia kenduta. | Erriarentzako % 10. |
|---|---|---|---|
| **Sarazibar** errota. | 165 errial | 140 errial | 14 errial |
| **Lobiano** errota. | 397 errial | 340 errial | 34 errial |



GABON KANTARIAK










**PALAZIXUA**



BIDEKO JARRILEKUA



EGIERREKO GATZASKA



ANSOTEGI'KO URARKA (PRESA)



AXILLONDOKO ERREKA



AXILLONDOKO TELLATUPIA



**KONTSEJU-ZARRA.-- LIBURUTEGIA**



"INDARGEI" LERTXUNDI'REN ARTELANA



ITURRIA



ZULUETA GOIKO ITURRIA





**MUNIBE ATXAPEKO
AMA BIRGIÑA**







URROSOLO. URUNA EGITEN



SAGAR BATZEN





**AXILLONDO**

# BURDIÑOLAK

Ugaria izan da Bizkaia burdiñoletan.

lnguru onetan ia errekondo bakoitzean egoten zan burdiñola bat.

Ezagunak ziran Ziarrotza'ko lurretan (kontu egin Bolibar erriz Ziarrotza zala) Markola, Olatxua, Armola, Olaburu eta Unzukola.

Berago, Xemein'en, or ezagutu ziran Kareaga, Otaolea, Arizmendi, Ubilla, Azpiltza, Plaza, Amallo-erreka, Agorria, Olazar, Amallobieta, Egurrola, Gabiola, Olazarbekua eta Ogiloin.

Arritu egiten da bat irakurten danean, Kostolamendi'n egoala ola orreitako egitura askoren gordelekua, andik Gipuzkoa'ra banatzeko.

Etxebarria'n ez daukagu jakingarri asko udaleko agirietan. XVIIl eta XIX'koetan zerbait.

Orraitio Ziarrotza'ko Kolejiatako paperetan, 1.413 urteko Urtarrila'ren 23'an izenpetutako agiri bat billatzen da.

Agiri onetan, orduan Ansotegi'ko jaube lez agertzen ziranak, urteroko errenta lez emon nai izan eutsen Ziarrotza'ko Kolejiatako abadeei emengo burdiñolatik artzen eben mozkiñetako zati bat.

Itxuraz Kolejiata'ko eleiza barruan illobi (sepultura) bat eskiñi eutsen emengoei, aldara nausiko maillen aurrean. lllobi orrek, oiñen aldetik, mailla orreik joten zitun, eta Ugarte, Mezeta, Albiz eta Barroeta etxetako jaunak euken antzera geratzen zan, ormatik asi eta lenengoa.

Ba ekiezan, orduko oituretan, baldintza eta lotuerak ipinten.

Eleiz aretan, urtero, san Pedro jaiaren biaramonean, meza abestu bat eskiñiko eutsen, oitura lez.

Gañera eskintza egiten ebenaren gorpuzkiñak ara eroateko borondatea agertzen eben. Ango abadeak eurak geratzen ziran illobi batetik besterako aldakuntza eta biar izanak lortzera beartuak. Mesede ori edo bear izan ori beteko eutsela, agindu eutsen, eleiza aretarako euren kontzientzian on-irizten ebena emotekotan.

Egindako kontratua Javier Enriquez Fernandez eta Maria Jose Sarriegi'k, "La colegiata de santa Maria de Cenarruza, 1.353-1.515" liburuan agertzen dau. (Eusko Ikaskuntza-1.986) eta guk bere zati bat agertzen dogu jarraian. Ansotegi eta inguruak aitatzen dituana, ain zuzen be, gure jakingarrirako.

**1413, enero, 23.** **Cenarruza.**

Doña Mayora Diaz de Aldanondo, moradora en el lugar de Aldanondo y doña Teresa Ibáñez de Elexate, vecina de Motrico, donan a la Colegiata cierta cantidad de dinero y pertenencias de la ferrería de Ansotegui, sita en la merindad de Marquina.

A.H.D.V. Sala Villanas. Fondo: Colegiata de Cenarruza. Registro XII n.° 21.

(A) Original: Un pergamino (295x300 mm.) Letra gótica. Buena conservación.

* * *

Por ende nos las sobre dichas donna Maiora / Dias e donna Teresa Yvannes por nos e por nuestros fijos e fijas bivos e muertos e por todos los nuestros herederos que son o pueden ser conoscemos e otorgamos que fasemos donacion e por las cosas sobre dichas por juro de heredat a la dicha yglesia de Cenaurrica e abbad e cabillo della a los que agora son e a los que seran de adelante en la dicha yglesia e en parte de lo que d/cho es la parte de los cinquenta maravedis de moneda vieja de renta que nos e cada una de nos las dichas donna Mayora Dias e donna Teresa Yvannes e nuestros herederos abemos oy en dia o podemos ayer de aqui adelan/te en qualquier manera en la ferreria de Ansotegui que es en la merindat de Marquina, entre la ferreria de Anchia e la casa e caseria de Basaybar con toda la otra parte de tierras e heredades e agoas que nos abemos / en qualquier manera entre los dichos logares de Anchia e Basaybar e las heredades de Manosca en partida de las quales dichas tierras e heredades e agoas esta poblada la dicha ferreria por abeni/miento que sobre ello paso entre nos e los ferreros sennores de la dicha ferreria que fueren a la sason, de las quales dichas tierras e heredades e agoas.

* * *

Ikusten danez, garbi agertzen da "Ansotegi burdiñola, Markiñako merindadean dagona, Antxia burdiñola eta Basaybar'eko etxe eta lurren artean.

Beraz geroko gizaldietan agertzen ez dan beste burdiñola baten azterrena artzen da agiri orretan: Antxia'ko burdiñola.

Denporak geroago, XVIII garren gizaldiko paperetan eta XIX garrenekoetan, beste zeaztasun oneik billatzen doguz burdiñolei dagokiezan ezaupide, ordainketa edo erroltzetan, zentzoetan:

**1745 urteko erroltzetan:**

Ansotegi, Andres Ansotegi jaubea.

Okoroki, Pedro Agirre jaubea.

**1795 urteko erroltzetan:**

Ansotegi, Benito Ansotegi, jaubea.

Okoroki. "Bertako jaubea dan Astarloa lizenziatuak erabilten dau".

**1814'ko erroltzean:**

Ansotegi, Benito Ansotegi'ren alarguna da bertako jaube.

1812'tik 1814 bitartean geldi egon da, eta aurten 200 kintal inguru landuko dauz.

Okoroki, Xabier lñazio Astarloa'rena da. 1810 urtetik 1814 bitartean lan barik egon da eta ba dirudi aurten 100 kintal inguru landu leikezala.



**ARNORIAGA'KO BURDIA**

# GARAIXAK
## IBARGUEN'GO GARAIXA

**LEKUTZEA**

Garai au Markina-Etxebarriko udalaren menpeko dan Galartza auzoko lbarguen baserriaren aurrean dago.

Erri burutik 2,5 km. dagoz bertara, Eibar'ko bidean, Bizkaia eta Gipuzkoa'ren mugatik kilometro ta erdira.

Urko errekako uren bideari jarraituz, goitik berakoan, garai au eta baserria bidearen egalean, ezkerretara dagoz.

Nai eta bide au jende asko ibilten dan bidea izan ez, bide egalean eta ain agirian egoteak, eta ain oso aurkitzeak, Bizkai'ko eta Euskalerri'ko garaixarik ezagunentzat biurtu dau.

Eleiz-ate onek ba daukaz beste lau orrelako garaixen ondorenak eta beste bi geiago egon zirala be jakiña da. Nai eta banakak izan, esan lei Markiña-Etxebarri izan zala, denpora zarretan, baserrien geigarri lez orrelakoak euki zituna eta auzo errietan be (Mallabi. Ziarrotza, Arbazegi eta Murelaga'n) onelakoak egoteak, sendotu egiten dau esaera ori. Kontuan eukiaz, gañera, Urko'ren urak bustiten daben inguru onetan geiago be ba dagozala: (Ala, Aranzeta, Barenda Goikoa, lbarreta Nagusia, llloro-Zearreta, Oreaga, Illoro Arespe eta Lobiano'n).

**KANPOKO IKUSPEGIA**

Bere baserriari dagokionez ikusita, Garai au baserriaren aurrean dago, bere alderdi nagusia baserriari begira daukala.

Be aldean lau zutabe piramide itxurako daukaz, eta bakoitzak, bere gaiñean, disko erako oiñarria daroan arri biribil bat turtoki ta konu-erako jasoeraz.

Kare arrizkoa da, tentekoen egitura au. Turtokien erabidea ez da ain ezaguna, era askotakoak erabiliarren orrelako egituretan, geienetan gorako bagako diska izaten dalako, eta gorakoa daukenak be ez dabe eukiten onen antzekorik. Garai onen bereiztasun bat au da: Zutabeen bitarterik ez dala bete eta sarratu esku-ormekin, zutabeak garbi eta zeatz ikusten dirala, oartu eragiñaz eurak dirala egitura guztiaren eutsigarri.

Goiko etxola egurrezkoa da oso-osorik, eta alkartze eta bateratzaille gaikiak be egurrezkoak dira.

Ez dago burdiñazko ultzerik, ordez oiturazko egurrezko ziribiribillak erabilten dira.

Aurretik atzera doazan arri-biribillen gaiñean eusten diran abe lodi birek eusten dautse.

Egaleko ormak goitik berako ol zabalez egiñak dira. Goi alde onetan inguru berezi bi bereiztu leikez, bai kanpotik eta bai barrutik.

Kanpotik ¡garlen da barrura sartzeko aurre-aldian daukan kubo gunea, bai eta leio bat be, itxitura barik, eta gero beste zati bat, ganbara deitzen dana, zapata, tellatuko uren berakadako alderdi biei egokitua.

Ganbara onek aurreko aldian eta atzean, 50 zentimetro inguruko urten-aldi bi daukaz, eta bakoitzari eusten bost eustabe, nai ta alderdi bakoitzean orrelako bana falta.

Aurreko urten aldian lau zulo daukaz, tailla apaiñez itxuratuak, batetik ikuspegiaren edergarritzat eta bestetik barruko aize barritzerako.

Bere gaiñea etxe-aurreari zutiko eran egiñiko tellatuak, egaleko ia metro erdiko urteerako erlatzak agertzen dauz.

Eustabeak, alde batetik ganbarari eusten eta bestetik aurrekaldean oiñarritzen dirala, aurretik atzera bitartean lau igarobide zuzenei tokia emoten dautse.

Barrurako ateak, aurreko orman, erditik ezkerreko bitartea beteten dau, lurretik ganbarara bitartean. Eta leioa, aurreko aldearen goian, erditik eskumara bitartean dago.





Azkenez, kanpoaldiari dagokionez, sarrerara eroaten daben eskillara. aurrez-aurrekoa da, eta oi danez, azken maillarik ez dauka. Orrek oinkada bat utsean emotera beartuten dauz gizakiak, eta barrura sartzea galerazo arratoiei.

## BARRUKO IKUSPEGIA

Barrutik itxura galduta dauka, nai ta erraz igarri bere egituran zelakoa izango zan.

Une onetan ate-orde batek barrua erdibituta dauka, ezker-eskumatako zati bardintsutan. Alaz eta asieran bestelakoa zan bere zola, garaixetan oiturazko zan eran, eta era onetan banatuten zan: Barruko eskillara lagauaz batera, barruan sartzen da, orri bako atetik zear, zuzen era baten banakatzaille eta batera kanporako ikustegi lez geratzen dan tokira eroanaz. Emen kanpoko atearen aurrean, aletoki nausirako atea dago. Toki au be lautua da. Ale toki onek, zabalune gitxi baiña sakona dan beste gordeleku bi daukaz babesgarri lez, eta oneitara bateratzaillearen egaletatik zear sartzen da.

Ganbarara barruko aletokitik igoten da, egurrezko eskillara baten bidez. Goiko zati onek ez dauka ezelako banaketarik, eta garai guztietan oitura dan lez, utsune bakarra geratzen da.

## APAINDURA

Esan lei Bizkai'ko garaixek ez ebela eukiten apaindura andirik, bai eta askok ez eukela ezelako apaingarririk be.

Alaz eta, apaindurak dagozan tokietan berezitasun bi igarten dira: Bat, apaingarria toki zeatzetan egoten dala, eta sekula be ez edozein lekutan edo osotasunean; eta beste bat, inguru orreik, garai guztietan, bardiñak dirala, onelako apaindurak daukezanen artean.

Orrelako apaindurak daukezan tokiak ganbara aurreak izaten dira, edo ta eust-abeak, barrurako sarreran edo ta ate orren karrankan.

Gaiki guzti oneik egurrezkoak izaten dira, itxidura izan ezik. ltxidurak burdiñazko morrollua eukiten dau, alderdi bietara erabilten dan txinget antzera.

Frankowski'k Markina-Etxebarria'ko garai bateri buruz idaztean esan eban, erdiko atea antxiñako egurrezko sarrailladuna zala, aiztoaz egiñiko sei-ertzeko izar, eguzki eta irudiz apaindua. Baiña oneri buruz eta zentzu onez Nolte'k diño, ori Lomiño Gane'ko garaikoa zala, nai ta atea galduta euki. Gauza da, geienetan morroilloa





eta bera indartu eta ibilten dan egurrezko zatiak, ondo apainduak egoten dirala, nai ta lbarguen'eko garaixan orrelakorik gertatu ez. Bear ba da utsune ori beteteko, apaindurak beste alderdietan sartuta daukaz.

Ganbararen aurrekaldean, aize-artzeko zuloak taillatuak ziran, nai ta gaur itxurabarik egon, baiña Frankowski'k egin zitun marrazkietan garbi ikusten da geometri erako marrazkiak zirala. Nolte'k itargi erdika, zulo biribil, barrualdetik beste lau eutsigarri daukazan zulo bat eta beste zulo biribil txikiago bat egurrezko zillerdiekin, diño.

Atzekoak ez, baiña aurreko eust-abeak be apainduta dagoz, erri oiturazko taillekaz, eta esan lei esku obeagoko baten lan eta egiturak igarten dirala.

## BABES ETA ERROLDAKETA

Garai au "lnventario arquitectónico de interés histórico-artístico de la provincia de Vizcaya" liburuan, laugarren tomoan, eta Markiña'ko fitxetako bederatzi zenbakiagaz erroldua dago. Orrek esan nai dau bertan egin nai dan zerbait egin edo aldatzeko, Eusko Jaurlaritzako "Historia-Arte Ondarearen Zuzendaritza" sailleko serbitsuen baimena bear dala.





Orrez gaiñera Nolte k "Compilación..." liburuan 35 zenbakiagaz erroldua dauka. An billatu leikez beste jakingarri batzuk, bai eta garai onen neurri, alderdi eta antzerako zeaztasunak.

**Javier Gonzalez de Durana**

***OARRA:*** *Lan au Bizkai'ko Aldundiak argitaratutako "MONUMENTOS DE VIZCAYA" liburuetako bigarren tomoan dator.*

*Egillearen baimenez euskeratu dogu eta **Etxebarria** liburu onetan sartu.*

# ZUBIAK

Gure zarrak gaurkoak baiño ardura geiago eukiten eben denporetan nekez galduko ziran arrizko zubiak egiten, sendotasuna eta indarra dotoretasun eta inguru giroagaz batera zainduaz.

Ur mesedegarriei bidea emon eutsenak eta kaltegarriak, lotsatuta lez, arin eta zikin euren azpietatik igaroten ikusi dituen zubi zarrak. Denpora luzetan egondako ugolde eta euriteen jazaldi ikaragarriak ezagutu zituenak eta oraindik zutik irauten dabenak, gerokoei egitura, txairotasun eta egokitasun irakatsiak emonaz.

Or dagoz etxebarritarrak etxeko edo auzoko dituen

Elu
Lausagarreta
Antxiko
Latzako
Okoki... eta abar.



**ANTXIKO ZUBIA**







LARTZA



ELU ONDOKO ZUBIA



**LAUSAGARRETA**

# ARMARRIAK

Ba dagoz Etxebarria'n armarridun etxeak.

Armarri batzuk bertakoei jatorriz dagokiezanak dira.

Beste batzuk bertara erakarriak. Au da, armarridun etxetakoak kanpotarrekin ezkontzean jaubetutako armarriak, besteengandik geituak.

Ez da gure lana istorian zear etxe andietako alkartzeak aztertu eta ezkontza orreitako goraberak azaldutea.

Guk, zeatz-meatz, armarrien barri emongo dogu. Jabier de lbarra eta Berge'ren "Escudos de Vizcaya" liburuetako amargarrenean oiñarrituko gara, armarri bakoitzaren ezaugarriak bertatik laburtuta adierazteko, gero agertzen doguzan argazkietan bakoitzak ezaugarri orreikin erraz konturatzeko eran.

Alfabeta erreskadan oneik dira Etxebarria'n billatu leikezan armarriak:

ANSOTEGl
ARNORlAGA
AROSTEGl
BAR RO ETA
BELARROA
MUNlBEKOAK:
- Goikoetxea
- Gutierrez de Caviedes
- Ibarra
- Munibe
- Urkijo.

UNAMUNZAGA

**Ansotegi.** Kasket, luma eta lanbrekin edo zintza antzekodun armarria. Bertan Calatrava'ko Kurutza alkartua, otso ibiltari bi bata bestearen gain, batek bildots bat aoan daroala, eta be aldean itargi erdika, okerretara.

Ansotegi bat Azorin'go Mikaelagaz ezkondu zan eta Martin Ansotegi'ren guraso izan ziran. Au Markiña'ko alkate izan zan eta Bizkai'ko sindiku. Au Arbazegi'ko Ganboa lrusta'gaz ezkondu zan eta ezkontza onetako seme izan zan Andres, Calatrava'ko zalduna izanar Uste da armarria arengandik datorrala.

**Arnoriaga.** Etxe onetan jaio zan Valentin Zubizarreta, Cuba'ko artzobispo izana.

Bere gotzain armarria da emen ipinita dagoana. Esaera: Pax Multa. Eta beian, marmol arrian idatzita, irakurgai au:

Exmo. e Iltmo. S. Fray Valentin Zubizarreta
Unamunzaga.
Jayo san Semendien 2n 1862n urdan
Camagüeico Gotsain 1914n
‖ san Santiago de Cuba co gongotsain
sala Sesellaren 26an 1948 urdan.

Arostegi. Leoi baten gaiñean leoi bi ikusten dira erdian armarri bateri eusten. Ba dirudi osotasuna galduta daukan ikurdi edo apaingarri dirala.

Barroeta. Jauregi torrean.

Kasket, luma, lanbrekiñak eta euren artean arrano biren buruak eta kanpai torre txiki bi eta Calatrava'ko gurutza irantsia.

Lau zatidun armarria da:

1.—Ander deunaren aspa eta bere ertzean zortzi puntadun izarra.

2.—Gorakada erdikan dagon leoi bat.

3.—Iru panela (ezki-orri edo biotz irudi), goian bi ta bat beian.

4.—Arbola baten gaiñean arrano bat, erpen artean daukan txarrikume bat jaten diardula.



**UNAMUNZAGA**



**PATROKUA**

Erdi-erdian koroe bat. Eta egaletan, lau alderdietan zear, esaera: Justitia eta Charitas Dilecti principi arces.

Belarroa. Luma eta lanbrekidun kasketa.
Lau zatitan banatua da armarria.
1 eta 4 garrenean, zuaitz bat bere aurretik otsoa igaroten.
2 eta 3, gaztelu bat.
Belarroa au be Munibe lurraldean dago. Adolfo Urkijo jaunak bere illoba zan Adolfo Kareaga'ri itxi eutsan etxe au.

Goikoetxea. Munibe'ko burdi-lekuan, jauregiaren alboko bertarako bidean.
Leoi bat agertzen da, ebagitako armarri bateri eusten. Goiko zatian ega-leoi bat; bekoan arbola bat, bere gerrian basurde bat zutik agertzen dala.

Gutierrez de Caviedes. Au Cantabria'ko Potes aldetik ekarria da. Gabriel Maria barraren bigarren abizena (apellidua) zan.
Arrano bat agertzen da, zortzi txirlaz inguratua, zati baten. Bestean bederatzi zikai-kirten, irunaka ipinita, eta zortzi izarreko azpildura.



ZUBIZARRETA





**MUNIBE. IBARRA** **MUNIBE. URKIJO**

**Ibarra.** Bitan ebagitako armarria da.

Zati baten arrano golla buru bikoitza.

Bigarren zatian: eskumatara iru panela. Ezkerretara banda bat, iru izarregaz, bi goian eta bat beian. Markes koroia.

**Munibe.** Munibe torrean.

Kasket barik eta lanbrekin barik, alemaniarren tajuzko armarria.

lru torredun gaztelu bat, itxas-olatuen gaiñean, eta zortzi ertz-dun izarra apaingarritzat.

**Urkijo.** Urkijotarren armarri au lengo gizaldiaren azkenetan ipinia da. Urkijo jaunak Gortazar-Munibetarrei etxea erosi ondoren, barriztatzeak egin zituenean.

Kaskodun armarria da.

Zati bikoa.

Baten erdian bost panela agertzen dira amairu izarrez inguratuta.

Bestean kurutze bat orriz inguratuta eta kurutze barruan bost panela.



BELARROA



ANSOTEGI



AROSTEGI

**Unamunzaga.** Kasket bat, bertan gizon baten burua agertzen dala; lumak eta egal banatan usoak, aoan lorea darabillela; lambrekiña eta egodun aingeru baten burua, armarriko inguru lez.

Armarriaren barruan iru otso ibiltari, bata bestearen gain.

Azpian iragarki baten etxearen izena eta 1752 urtearen adierazgarria.



**GUTIERREZ DE CAVIEDES**



1



**MUNIBE TORRE**

# ERROTARI ETA DENDARIEN PEKATU ARIÑAK

Errotariak naia jan eta putza bero, da euskal esaera.

Bai eta, denda ba dozu, zeuk zaindu bear dozu, bestela galduko dozu.

Eta ezin ukatu, ala da esana, dendariak eta errotariak etxerako ten egiten setatsuak diranik.

Len aitatu dogu, Gernika'ko Batzar Etxeko Artxiboan dagon 1635 urteko agiria.

Itxuraz salaketaren bat egon zan eta Etxebarrin agertu zan Bizkai'ko Agintari nagusiaren ordezkaria emengo errotak eta denda, ostatu eta abar ikusten ibili ondoren, agiri luze bat jaso eban. Agiriaren idazketa Jauregia deitzen zan etxean egiña da.

Gure erara euskeratu eta laburtuta, oneik dira emengo lekuetan billatutako utsunak:

Urrosolo.—Pixu okerrak euki dauz, eta ez arrapatzearren, konpondu nai izan dauz, batzuk ebagi ta besteak geituaz. Laukoa arraskata dauka. Emengo oituren aurka, bost eta sei libra kentzen zitun garia iotearren eta artoa ioten amar librako bat, au da, anegako bederatzi edo amar libra.

Lauko pixua geigarria ipinita. Beste bat oraintsu karrakatua. Diño orain ille bi egin zitula, alkatea joan zan baten.

Ez dauka errotan ez txarririk ez ollorik. Baserrian bai, baiña errotan ez. Errotan sartu be ezin lei txarriak, goi samar dagolako eta eskillaretan zear igo bear izaten dalako.

Ugarteburu.—Garia iotearren, lau libra ordez, bost edo sei kentzen izan dauz, foruaren aurka. Anotan, amar libratik bat, orrela anegako bederatzi edo amar libra kentzera elduten zala.

Ez dauka ez ollorik ez txarririk, eta uruna gordeteko kaixak goi samar eta ondo tapauta.

Okoroki.—Librako neurria zortziko (otxabo) bat gitxiagoz erabili dau. Emengo oiturak beteaz, Domu Santutatik san Juan bitartean iotako garitan anegako lau libra eroan ordez, bost eroan izan dauz eta udan sei, usario eta foru aginduen aurka. Anotan be amar libra eta amabitik bat eroaten dauala ibili da, usarioen aurka eta erritarren kaltez.

Librako pixuak zati bat falta dau. Ez dauka ollorik ez txarririk errotan.

Ansotegi.—Ogeiko pixua oker eukala eta akats ori itxuratzeko leundu egin ebala eta zatia geitu, diño, nai eta jakin ori igarri egingo jakola.

Garia iotearren be amasei libratik bat eroan dau, au da, anegako sei libra, eta ori erriko oitura eta Bizkai'ko foruaren aurka dua. Bardin egin dau artoagan be amar edo amabi librako bat kenduaz.

Pixuen goraberan autortu eban ondo eukazala, baiña ogeikoa zerbait geituta.

Zin egin dau, apirillean jakin ebala ikertaldi au egiteko zala, eta Elgoibar'eko errementari bateri deitu eutsala pixuak ikusi ta ondo ipintera, eta bat billatu eutsala oker eta bera konpondu, eta arek ipinita lez daukazala.

Barinaga.—(Andres'ena). Errota au Xemein'goa danez, besteen antzeko utsak billatu eutsazala esanagaz itxiko dogu.

Barinaga goikoa.—Foruaren aurka, anega gariko bost libra kendu izan dauzala eta bestetan amasei librako bat, jakiñarren Domu Santurutatik san Juanetara lau libra baiño geiago ezin eikezala eroan. Pixuak ondo daukaz, konponketa itxura barik. Ez dauka ollorik ez txarririk eta itxurarik be ez euki dauzanik.

Eleizondoko tabernan.—Eleizondoko tabernan, pixu onak, kobrezkoak, eta neurri onean. Ez da isten jokoan egiten. Jaubea: Maria Rementeria Ibarguen.

Dendan.—Jaube berberak daukan denda be ikertu da. Oriorako neurriak, ojalatazkoak, onak. Arraiñantzako pixuak be onak.

**1638'ko ikertaldia**

Lendik beste iru urtetara ikertaldi barri bat egin zan.

Orduan jaso zan agiritik dakigu, alkate aldaketa urtero egiten zala eta bear zan denporetan. 1635 urtean Juan Belarroa izan zan alkate. 1636'en Domingo Ansotegi eta 1637'n Juan Adorriaga.

Taberna lez bat egoan errian. Arraiña bertan saltzen zan.

Okela saltzeko tokirik ez egoan.

Jostun bat egoan eta taberna eta ostatua zan etxean bizi zan.

Eleiz-ateko lurretan bost errota egozan: Ansotegi, Barinaga, Okoroki, Ugarteburu eta Urrosolo.

Alkateak ez ekian ziur zenbat urte eukazan: "Gitxi gorabera 60 urte"

Ardau, orio eta bestelako pixuak paretu ziran, ikerlariak eroan ebenekaz, eta aztertzailleak bere ikuspegi oneik emon zitun:

Taberna.—Pixuak alderdi batera ontza erdiko jauskera dauka. Liberdiko neurria erabilten da orioa neurtzeko, eta pixkat andiagoa da. Kuarteroikoa, ordez, zerbait txikiago.

Ostatua.—Jaubea: Beatriz Bizkarra. Daukan imillauneko neurria ezin da paretu berak eroandakoagaz. Lau bidar be neurtu eta bardin. Ostatulariaren esanetan, berak ez dauka neurririk eta Belaoxtegi'rena darabil. Berak ez ei dauka orrelako neurri premiñik, zaldidunik ostatuan ez daualako artzen. Ogirik ez dau egiten, san Andres jaietan ezik, eta Elgoibar'etik saltzera etorten diranei erosten dautsa. 011o eta txarriak ba daukaz.

Taberna.—Katalina Alzate'rena. Ardau neurrietan azunberdikoa zerbait txikiagoa da. Besteak ondo.

Denda.—(Katalina Alzate'rena) Orio-neurriak: Kuarteroia, ondo. Laurdenekoa, zerbait txikiago.

Arrain pixurik ez dauka, ez dabelako saltzen eta beartuta be ez dagolako.

**Ostatua.—(K.** Alzate'rena). Daukan imillaun neurria beste ostatukoaren neurrikoa da. Ardau neurriak: Librakoak otxaba bat falta, eta libra bikoak ontza bat gitxiago dauka. Lau librakoak be ontza bat gitxiago, eta amarrekuak bardin.

**Okoroki.—Pixu,** ol eta aztaga (balantza) ondo orekatuta. Baiña gaiñeko pixuak geigarriak daukez eta oletatik bat zerbait moztua da. Zin (juramentu) egin dau il zan errementari batek ipini eutsazala.

**Ansotegi.—Pixu** eta balantzak bardin daukaz, baiña gaiñeko pixu txikiak zatiekin. Urte bi dirala, esan dau, orrela ipinita daukazala, zuzen pixatzearren.

**Ugarteburu.—Librako pixuak zortzikote bat falta. dau. Tabla batek ontza erdi gitxiago dauka. Ez dauka** ollo **ta txarririk errotan. Etxean bai. Urun kutxak beregi daukaz eta estaldu (tapatu) barik.**

**Urrosolo.—Pixuak akatsak daukez.**

**Barinaga.—Pixuak** ondo. Olak zerbait karrakatuak.

Ikerketak amaitu ondoren, erritarrei deitu eutsen, banaka, itaun batzuk egin eta erantzunak jakin nairik.

Besteen artean, ba ete dakien alkateak bideak aztertzen ibili diranik, eta premiña egon danetan erriko biderik konpondu ete daben eta bideak beti libre euki ete dituen. Bardin zubiak, premiñarik egon ba da.

Oitura onak zaintzen ete diran errian. Sasi-ezkontzarik egon ete dan, jokorik egiten ete dan tabernetan edo euren inguruetan, errial bi baiño geiago jokatuaz, eta ba ete dakien tabernetan jokorako kartarik ete dauken be.

Meza barrietara eta illetetara parrokitik iñor joan izan ete dan, irugarren oiñetik kanporako seniderik.

Errotariak zelan jokatzen daben euren beseroekazko artuemonetan. Pixu "romana"rik ba ete dauken.

Jostun, zapatari, perratzaille, albaiteru, barberu, zirujanu edo ta osalari batzuk euren zegregiñetan ondo ibili ete diran edo ta ezelako azterketa eta baimen barik orrelako serbitsuak egiñak diran.

Alkateak frutadun arbolarik ebagiten laga ete daben, edo ta erreketan sareekaz arraiñetan ibilten itxi, edo ta kare eta intxaur moskanik jaurti ete daben arraiñak ilteko.

Onelako itaunak egitea eskatu ebana, au da, erritarrei deitu eta euren testigantzak artzeko eskatu ebana, Pedro Olaeta deiturakoa izan zan.

Onek egin eban salakuntza-eskaria onela asten da:

*"Pedro de Olaeta, como de derecho y fuero mejor lugar aya parezco ante VM* Y de *número y acusso criminalmente a los fieles que han sido desde la última vissita a esta parte en esta ante-Iglesia donde VM se halla en vissita general y a los demás vezinos de ella molineros taberneros y otros oficiales que resultaren culpados en los delitos que sean declarados.* Y es *así que los dichos fieles taberneros molineros messoneros y otros oficiales de la dicha antelglesia contrabiniendo a todo puesto por el fuero deste Senorío y leyes reales no an cumplido con las obligaciones de sus oficios antes an echo y consentido las cosas y de los que abasso se declararán y an incurrido en las penas impuestas por el fuero y derecho".*

Argitu bearreko da idazki orretan esaten dan acusso a los **fieles,** alkateakaitik dala, orduan erriko alkateari "fiel" deitura emoten jakolako.

Esandako Pedro Olaeta ori da salatutako gizon, dendari. errotari eta abarren aurkako itaunak zelan egin, amabost-amasei puntutan zeaztu zituna.

Bi agertu ziran erantzunak emotera. Bat Kristobal izenekoa. Bestearen izenik ez da agertzen edo ezin da irakurri, baiña berak ez eban izenpetu, idazten ez ekialako.

Zeregin oneik Jauregi etxean egin ziran.

Orren ondoren, erantzunak ezagutu ondoren, bata ta besteentzako salakizunak zeaztu ziran eta bakoitzaren erruak sailkatuta jarri.

ltandu eutsen egindako salaketen aurka ezer erantzuteko euken. Errotari eta dendariak erantzun eben ez eukela ezer ezateko, baiña uste ebela biotz samur eta errukiz epaituak izango zirala.

Baiña erabagia uste baiño zital eta garratzagoa izan zan. Bear ba da, iru urte lenagoko ikertaldiko zigorrak zerbait eragingo eben, ain denpora laburrean barriro salakuntza bardiñetan jausten zirala oartuta. Dana dala, ikertutakoetatik iñor ez zan geratu zigor barik. Ez bakarrik ori. Azken iru urtetako alkateak be isun (multa) ederrak

artu zituen, euren agintari denporan zeregin orretan nortasunik euki ez ebelako.

Zerbait laburtuta agertzen dogu emon zan Erabagia, giro aretan zelan jokatzen zan ikusi eta aztertzeko.

**Erabagia**

**Lenengo.**—Onelako gauzak erriak gertatutzearen errudun azken iru urtetako alkateak etsiten dira, au da, Juan Belarroa, Domingo Ansotegi eta Juan Adorriaga eta zigortu bearra dago ta zigortzen dodaz:

Lenengo karguagaitik, 600 marau (marabedi), foruak agintzen daben eran.

Bigarrenagaitik: Beste 600 marau.

lrugarrenagaitik: Barriro ezin aukeratu dagiezala lau agintariok, oitura lez, edo ta baimena eskatu dagiela ille bi barru aske geratzeko.

Laugarrenagaitik: Beste seireun marautara zigortzen dodaz.

Bosgarrenagaitik: agiri au bialtzen dautset, ikertaldiko liburuetan sartu dagien.

Seigarrenagaitik, biurtu dagiezala erriari eta erritarrei abadeari erriaren kontura emondako iru dukat, eta agintzen dautsat Iñazio Egibeguren oraingo alkateari diru ori aurtengo kontuetan sartu eragiteko.

Eta oraingo alkate oneri, lenengo karguagaitik milla marauko isuna ezarten dautsat eta bigarrenagaitik bi milla marau.

**Okoroki.**—Maria Begon errotariari, lenengo karguagaitik lau milla marau, bigarrenagaitik milla ta bosteun eta irugarrenagaitik seireun.

**Ansotegi.**—Eta Maria Migel Ansotegi'ri, lenengo karguaga¡tik milla marau, bigarrenagaitik seireun eta irugarren eta laugarrenagaitik bakoitzeko lauren marau.

**Ugarteburu.**—Maria Ugarteburu'ri, lenengo karguagaitik milla ta bosteun; bigarrenagaitik seireun eta irugarren eta laugarrenagaitik, bakoitzeko laureun.

**Urrosolo.**—P. Urrosolo'ri, lenengo karguagaitik iru milla marau, bigarrenagaitik seireun eta Irugarrenagaitik laureun.

**Barinaga.**—Kristobal Barinaga'ri, lenengoagaitik zortzireun, bigarrenagaitik milla ta bosteun, irugarrenagaitik seireun eta laugarrenagaitik laureun.

**Ostatua.—** Beatriz Bizkarra'ri, bi milla marauko isun (multa) bat eta seireuneko beste bat.

**Taberna.**—Katalina Alzate'ri, milla marau.

Denda.—Katalina Alzate'ri, beste milla.

Orrez gaiñera Beatriz Bizkarra'ri beste milla marau. Bai eta berberari ardau kontuko utsekaitik, beste lau milla marau.

Eta oraingo alkateari agintzen dautsat ainbat ariñen zuzendu eragin daizala pixu eta neurrietako utsak, eta ori egiñarte, ez dagiala itxi eurak erabilten. Erabagi au 1638 urteko Azilla'ren 2'an emona da eta izenpetzen dauana Jeronimo Bermejo da.

Ezin ukatu orrelako zigorrak Etxebarri lako erri txiki baten zer esan ugari batetik eta bestetik asarre ugari sortuko ebenik.



**ERROTAKO TRESNAK**

# AZKEN GIZALDIKO KONTU BATZUK

**1814 urteko kontu batzuk**

**Amarrenak.**

Jakiña da gure aurretikoak lortzen zituen frutu eta emaitzetatik, euren amarrenak emon bear izaten zituela.

Etxebarriko amarrenak, errialetara biurtuta, era onetan banatuten zuran:

| | |
|---|---|
| Abade taldeak, amarren eta asikiñak | 3.542 errial. |
| Patroiak | 6.196 errial. |
| Parrokoak | 313 errialr |
| Eleiz erakunde edo fabrika deitzen danak | 1.805 errial. |
| Organu jotzailleak | 222 errial. |
| Guztira | 12.078 errial. |

Orrez gaiñera Markiña'ko erriak berak batzen zitun baserri-etxe batzutakoak, bai eta Ziarrotza'ko Kolejiatak be.

**Erriko sarrerak, etxe errenta eta emaitzetan.**

| | |
|---|---|
| Errenta garbia | 50.498 errial. |
| Garia | 2.012 anega. |
| Aitoa | 2.174 anegar |
| Gaztaiña | 57 anega. |
| Sagarra | 48 anega. |
| Indiana | 28 anega. |
| Ikatza. Kargak | 88 |

**Mendien emaitzak**

| | Kargak | Errialak |
|---|---|---|
| Lobiano barrena | 20 | 60 |
| Belarroa | 23 | 69 |
| Barroeta | 40 | 120 |
| Ansotegi | 66 | 198 |
| Astarloa | 25 | 75 |
| Murga | 80 | 240 |
| Munibe | 66 | 198 |
| Ubilla | 8 | 24 |
| Erriko mendiak | 33 | 99 |
| Guztira | | 1.083 |

**San Gregorio'ko ura**

Bizkai'ko beste errietan lez, oitura zan Errioxa'tik san Gregorio'ko ura ekartea. Ur onegaz bedeinkatzen ziran solo eta ortuak.

Erriko aguazilla bialtzen zan ortara, eta 1820 urteko kontuetan irakurten da 36 errial ordaindu eutsezala zeregin orretan bialdu ebenari.

**Aguazilla**

1820 urte kontuetan igarten da urtean 100 erria) ordaintzen eutsezala aguazillari. Urte onetan Jose lbarzabal zan erri-zain ori, baiña zazpi illa beteta, itxi eban ardura ori eta urteko alogeraren neurrian ordaindu eutsezan bere denporak.

**Ardaua**

1820 urte kontuetan ikusten da, oitura zala abadeei urtean bost kantara ardau klareta erriaren kontura emotea, Udalak agindutako dei eta mezuak pulpitotik emotearren. Urte onetan ardau ori 85 errial kostatu zan. Kantara ardauak 16 edo 18 litro eukiten zitun.

**Orduaria (erlojua) ren ardura**

Orduariaren ardura sakristauaren kontura egoten zan. Bera zaindu, korda emon eta abarregaitik, urtean amabi errial ordaintzen eutsazan erriak. Urte aretan, 1820'n, Domingo Antonio Zubizarreta zan parrokiko sakristaua eta ardura ori eukana.

**Osagillea**

1821'n iru urtetako alogera ordaindu eutsen osagilleari, urte orreik zor eutsezalako. Urteko 550 errialeko alogera eukan. Osagilleak korridu ta guzti eskatu eutsazan erriari bere atzeratuak.

**Amulategi mendia**

1820. Urtearen lenengo illean, Urtarilla'ren 19 eta 20'ko gabetan, ainbat erritar ibili ziran mendi onetako suak ezin amatauta. Gaizkilleen batzuk su emon eutsen. Gau orreitan zeregin orretan mendiratu ziranen gastua 147 errial izan zan.

Gero erritarrak urten eben gaizkillien billa. Birritan egin eben ostera ori, eta irugarrenean mikeleteei laguntzen joan ziran. Orretan ibili ziranei 308 erria) ordaindu etsezan erriak.

**Beste aberastasunak**

Urteko agirian esaten da lurren emaitzetatik kanpora ez dagola beste aberastasunik.

## Laneko emaitzak

Lau errementari dagoz eta baserriko tresnak zorroztu eta konponketak egiten dabez, euren premiña dagoenetan. Ortik kanpora eurak be lurrean lan egiten dabe eta osta-osta bizi dira jan gaiak karu dagozalako.

## Burdiñolak

Bi agertzen dira urte onetan.

Arostegi. lzen onetako burdiñola Benito Arostegi'ren alargunarena da. 1812'tik 1814'ra geldi egon da eta orain 200 kintal landutera ez da elduko.

Okoroki. Xabier l. Astarloa da jaubea. 1810 urtetik 1814'ra sarratuta egon da eta ba dirudi aurten 100 kintal landu al izango dauzala.

## Maisu gixarajoa!

Errian osalari bat dago eta erriak 320 erria) ordaintzen dautsaz.

Ba dago lenengo irakaskintzako maisu bat, urtean eun dukat ordaintzekotan, ardautan ataraten danetik. Baiña ezin izan da dirutza ori batu eta erriak bosteun dukaten euneko 3 ordaindu bear izan dautsaz atzerapenakaitik.

## Merkataritzako ondasunak

Ez da errian onelako aberastasunik ezagutzen.

(Jakingarri oneik, Gernika'ko Batzar Etxeko Artxibutik lortuak dira, urte orretako "Estadística Territorial" sailletik).

# BETIKO BURUAUSTEAK

1855/1858 ingurutan estu ebillan erria ordaintzen zitun serbitsu biri ezin aurre eginda.

Erri txiki askoren ardura eta buruaustea izaten zan osagilleari eta maisuari zelan ordaindu.

Etxebarria'n be bai.

Nai ta osagillea bertan bizi ez, konponketa egin bear izaten zan beragaz. Erabilli edo ez, etxea euki.

Asarraldi bat 1856 urtean gertatu zan.

Ordurarte osagilleak ogeita bost anega gari artzen zitun urtean edo euren dirua. Eta ogei ta amabi eskatzen zitun. Jakiña, betiko asarreak eta erria gora-goraka. Lengoak ezin ordaindu eta ainbestean igo bear. Eta azken baten, osagille barik ezin bizi.

Kontseju etxean batzar bat egin zan.

Berrogei ta bat lagun batu ziran eta euren artetik, auzo bakoitzeko lagun bat aukeratu eben, gogo txarrez baiña osagilleari emon bearko ziran anega garien banaketa auzo bakoitzean al zanik zeatzen egiteko.

Batzarreko agiria (akta) bederatzi lagunek izenpetu eben. Beste ogeita amabi lagunak firmatzen ez ekiela eta ezin eben euren baietzik emon idatziz beintzat. (Ikusten danez aldi aretan euneko ogetabi bakarrik ziran zela-ala eskolatuak).

Andik laster, Andrinua Goiko etxejauna zan Juan M. Zugaza'k karta bat zuzendu eban Diputasiñora, bere asarrea agertzen, esanez berari garia eskatzen eutsela, baiña berak ez ebala batzar orren barririk be jakin, iñok ez eutsalako ezer esan, eta gañera, kolera izurritea asi zanean, osagilleari deitu eutsala eta ez ebala joaterik nai izan, aitzakitzat ipiñlaz ez ebala ordaintzen, baiña berari erritar lez garia eutsela eta ia zuzena zan osagilleak beregana joan nai ez izatea eta berak garitan ordaindu bearra.

Egia zala beragaz zuzenean ez eukala lotuerarik, baiña ia Batzordeak bere aldetik ba ete eukan legezko eskubiderik kontratua egitean berari deitu ez eta gaiñera 1855 urteko legean agintzen zanik be bete barik. Origaitik Udaletxean egiñiko itunak ez eukala, bere ustez, indarrik, egin eben banaketa egiteko.

Dirudianez asarre gogorra sortu zan errian.

Aldunditik eskatu eutsen alkateari, zelako neurriak artuta eukazan osagillearen zorra ordaindu eta Maisuaren atzerapenak ordai nlzeko.

Alkateak eratzun eban esanez, osagilleak ordurarte eukazan urteko eun dukatak, erritarren arteko banaketa garitan egiñagaz ordainduko zirala.

Maisuaren zorraren zati bat, au da, milla ta berreun errial Udaletxeko dirutik ordainduko zala, baiña beste milla ta berreuneko zatia eskoletan ebiltzan mutillak eurak ordaindu bearko ebela.

Orrez gaiñera, diruagaz jaubetu al izateko, ardau klaretearen errirako serbitsu egitea, lau-bost urtetarako egingo zala, eta orreik zirala gai onetan artutako neurriak.

Aldi aretako osagillea Manuel Onaindia jauna zan, markiñarra.

(Agiri au Gernika'ko Batzar Etxeko Artxiboan dago. 10 Liburuan, 4 txoria eta 3 zenbakian).



**OGIA ERRETEN**

# ARDAUA ETA TABERNAK

Berriz'tik Ondarroa'ra bide barria egiteko asmotan ebiltzanean, au da, 1857 urtean, Ondarroa, Berriatua, Xemein, Markina, Etxebarria eta Zenarruza'ko udalak batzar bat egin eben Markina eta bere merindadeko eskribadu zan Emeterio Baskaran'en etxean.

Aldi aretan bideetan pentsaten asi ordurako, tabernak agertzen ziran, azken baten ardaua izaten zalako tabernentzako dirua emoten ebana, berari ezarten eutsoen petxa, zerga edo ordainbearra bitartean egoten zalako.

12 puntutako erabagia artu eben.

Etxebarri'k ez eukan une aretan bide barriagaz zer ikusirik, baiña bide orreri Etxebarrirarteko luzapen bat emotea be ba egoan asmoen artean, eta origaitik sartu zan besteekin batera.

Lenengo puntuan au esaten zan:

Ondarroa'k kanpoko ardau eta aguardientea saltzeko, ezingo dau saltzeko toki barririk ipini oraintxe daukazan kaletatik kanpora, arañarte txakoliñagaz dagon oiturea jarraituzr Markiña'k be ezingo dau beste tabernarik zabaldu Karmeliten Konbentu, Merzedekoen konbentu eta Egurbide'ren etxeak mugatzen daben lurraldetik kanpora. Berriatu'k Zubiaurre eta Torre bitartean bakarrik euki al izango dau. Xemein'ek ezin euki al izango dau beste tabernarik Bekobenta, ldarraga eta iruzubietako Olaetxe'tik kanpora; Ziarrotzak orain lruzubieta'n daukana eta Bolibar'en eleiz ondoan daukanak euki al izango dauz, eta Etxebarria'k gaur lbarluzea'ren aurrean daukana bakarrik.

Bigarren puntuan:

Bide barria egitean, esandako tabernetakoren bat bidetik kanpora geldituko ba litz esandako Ondarroa'tik Berriz'erako bidean eta gero Etxebarria'ri egin leikion luzapenean, bidetik kanpora geratzen diran tabernen ordez beste barri bakar bat egin leikie, bide barriaren egalean, eta lengo zarraren parean, tabernak euren artean gaur dauken bitartea zainduaz, eta taberna barria eskatzen dauan erriaren lurretan.

lrugarren puntua:

Etxebarria'k pentsatuko ba leu taberna barri bat zabaltzea bere parroki ondotik Urkaregi'ra bitartean, orrek mesede geiago emoten dautsalako, beste erriak ez dauke eragozpenik taberna ori jasoten lagateko, beti be araudi onetan izentatzen diran ordainbearrak ardauari saltzean ezarrita, bideak ordaindu al izateko.

Geroago Santu Guztien egunean beste batzar bat egin eben Markiña'n gauzak garbi izteko, eta urrengo urtean beste era batera jokatuta be, lenengo urtean ardauaren ziza'ren errematea erri bakoitzean egitea erabagi eben, ardura ori bere kontura artzen ebanari bearrezkotzat ipinita ardautan, kantarako, amalau marau (marabedi); txakoliñari kantarako zazpi marau eta aguardienteari berga bakoitzeko amazazpi geiago.

Gero ainbat aolku erri bakoitzaren zintzotasunari buruz eta abar.

Orrelako gorabera guztietan ardaua artzen zan dirua batzeko gairik egokientzat, erritarren artean bardintsuen ordaintzeko neurria edari ori izaten zalako.



**ALTZAA**

# ETXEBARRIA'KO KONDAIRA, LABAYRU'RI JARRAITUZ

Estanislao Labayru'k "Historia General del Señorío de Bizcaya" idatzi eban sei liburu lodi eta andietan.

Ez zan bizkaitarra jaiotez.

Aita, Zaragoza'n jaioa, nai ta naparra odolez. Ama bilbotarra, Goikoetxea familikoa.

Estanis Filipinas'etan jaio zan, 1845'ko Maiatza'ren 7'an, Luzon ugarte (isla) ko Batangas'en, bere aita ango gobernadore zala.

Urte bete eukala, gurasoak España aldera biurtzea erabagi eben iru semeekaz batean eta bidean etozala aita il zan. Ori ikusita ama Bilbo'ra etorri zan, bere senideen artean bizitera.

Estanis abade egin zan.

Erronda kalean bizi zan Bilbo'n.

Ainbat toki izendatu eutsezan abade lez, baiña berak idazle izatea eban gogoko eta batez be kondaira, istoria zan bere zaletasuna. Eta orainarte ezagutzen dan Bizkai'ko kondairarik ugari eta zeatzena idatzi eban.

1895 urtean asi zan argitaratzen eta 1903 urtean plazaratu eban seigarren liburua. Urte bete geroago, 1904'n il zan.

Abadea zanez, bere ikuspegirik geiena eleizetako artxiboetan billatu eta batua izan zan.

Guk bere liburuetan zear, Etxebarria'ri buruz berak idatzi eta batu doguzan agerpiderik jakingarrienak aitatuko doguz jarraian:

**Lapurreta eta eriotzak Barroeta etxean**

1470 urtea. Urte onetan, urriaren erdian, Barroeta'ko Mari, Albiz'ko Fernando'ren alarguna, Etxebarria'ko Jauregi torrean, bere andi ta txikien artean amabi semegaz egoala, bere arerio zan Ugarte'ko Gontzal beste zaldun batzuekin batean, euren artean Markiña'ko alkatea be egoala, etoikeriz, ankerkeriz sartu zan Jemein'go Barroeta torre etxean eta lapurretan egin eban, ango maiordomoari eriotza emon eta sutara jaurtiaz. Sute onetan galdu zan etxeko artxiboa.

Ugarte'ko Gontzal au gaizkille agiri eta nabarmen lez etsi eben Bilbo'ko auzitegian, 1471 urteko urtarrilla'ren 4'an, eta bardin geroago Gernika'n, 1474'ko urria'ren 13'an.

*(Irugarren liburuan, 263 orrialdean)*

**Eleiz gizonen erabidea**

1542 urtea. Urte onetan Etxebarria'ko eleiz gizonak zelan eratu bear ziran adierazten agiri bat izenpetu zan.

Parroki au Xemein'en euren etxe jatorra eukan Barroeta familiak irasia dala esaten da eta bertarako amarrenak emoten zituen 77 etxeen izenak agertzen dira.

Barroeta familiak, parrokiko patroi lez, aldare nagusian egindako illobi bat eukiteko onorea eukan, parrokiko ziran lau abadeen alboan.

Orrez gaiñera, gizonen aldeko jarrilekoen erreskadan, Ebangelioaren aldean, eta danen aurrean, jarrileku berezi bat eukan, Barroeta etxe eta torreko armarria bertan ipinita, eleizako patroi bakar lez.

Barroeta etxeari euren amarrenak emoten eutsezan etxeak, guztira 36 ziran.

*(Laugarren liburua. 227-229 orrialdetan)*

**Parrokia barriztatzen**

1570 urtea. Etxebarritar Domingo Arostegi, argin maixua, urte onetan egindako eskribu bitartez, parrokia barriztu eta anditzera beartu zan, luzeran eun eta amar (110) oin eta zabaleran berrogei ta bat (41) oin emonaz.

*(Laugarren liburua. 408 orrialdea)*

**Sugalak, fogerak**

1577 urtea. Etxebarria'ko san Andres'ek 16 sugal ta iru laurden eukazan. Dirutan 98 errial eta 3.332 marau balio eben.

*(Laugarren liburua. 430 orrialdea)*

*Oarra. Sugal zarrak, "Fogueras Viejas" irakurten da. Aldi berean Xemein'ek 24 sugal eta laurden bat eukazan. Berriatua'k 20 sugal, Amoroto'k 11, Mendexa'k 11, Ziarrotza'k 9 ta erdi.*

**Parrokiko lanak**

1587. Markiña aldean, Etxebarria'ko parrokia bere egituran asko aurreratua dua eta gitxi bear da amaitutzat emoteko eta bertako eleiztarrak euren parrokia eukiteko.

*(Laugarren Liburua,* 532 *orrialdea)*

**Barroeta etxea, Etxebarria'ko parrokiko patroi bakarra**

1616 urtea. Pedro Lopez Oronzua eta bere emazte Barroeta'ko Mari'ri Korrexidoreak ziurtatu eutsen, Barroeta etxea, noiztik gogoratu ezin eikeanetik, Etxebarria'ko patroi bakarra zala.

*(Bostgarren liburua, 85 orrialdea)*

**Parrokiko zeaztasunak**

1616 urtea. Felipe jaunak, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa'ko Korrexidoreei agindu eutsen, errege patroitzako parrokien egoera aztertzeko, parroki asko ondo eta txukun barriztuta egozalako, nai ta euretako patroiak asarre, mintsu eta zeken agertu.

Bizkai'ko Korrexidoreak azterketa egin eban. Ara bertako gora-berak.

Bertako patroiak Pedro L. Oronzua eta bere emazte Maria Barroeta ziran.

Parroki onetako irabazi edo sarrera lez, iru milla errial lortzen zituen urtero eta ez eben ezer ordaintzen bertako zuriketa baiño eta parrokiaren egiturarako berreun errial emotea baiño. Eta parrokiak orma guztiak barriztatzeko premiña eukan, bertan ezer egitekotan, zar guztia desegin bear zalako. Euri egunetan mezarik ezin zan emon, eta eleiztarrak bertan batu be ez; eun eta amar etxe sartzen ziran parrokiaren menpeko lez, eta torrea eta kanpai lekua egin ziranean aurreratutako 450 dukat oraindik zor eutsezan, patroiak ez eutselako ezetan lagundu. Eta parrokiak Etxarte'ko Gurutze deun izeneko ermitari be 130 dukat zor eutsazan, parrokiko premiñetarako bertatik artu ziralako, eta sakristirik eta kororik ez eukan eleizak eta eleiz jantzirik be ez.

Ori konpontzeko, esandako patroiei euren errentak baitu (enbargatu) eutsezan.

*(Bostgarren liburuan, 85 orrialdean)*

**Munibe'ko Lope**

1618 urtea.

Markiña aldeko Etxebarri'ko Munibe etxe jatorreko Lope, Sevilla'n bizi zanak, 1618 urte onetako Azilla'ren 25'an Sevilla'n izenpetutako azken-nai (testamentu) baten, Markiña'ko ermitari 50 dukat itxi eutsazan, eta Xemein'go eleizari lau milla errial balioko zidarrezko kustodia bat.

Agintzen eban, baita be, bera il ondoren parrokiaren ardura eukiteko, eta uri eta Etxebarria'ko beartsuen artean urtero 300 dukat banatzeko.

Munibe etxea, legegintzan, gudaritzan eta eleiz gizonetan gizon ugari eta argiak emona da.

Markiña'ko merindadean dagon etxe onek, beretzako mesede edo pribilejio lez, bertakoen bat ilten zanean, Etxebarria'ko abadeak gurutza goian eroela illa jaso ondoren, Xemein'go abadiei emoteko eskubidea euken. Mesede edo pribilejio au Kalagorra'ko Eleiz-ornitzailleak ziurtatuta itxi eban, geroago 1674 urteko Bagilla'ren 29'an Peñaflorida'ko konde zanaren Munibe'ko Martin jaunaren eskabidez.

*(Bostgarren liburuko 101 orrialdean)*

1625.—(Urte onetan ingelesak Cadiz'en sartu nai izan eben. Eta Bizkaia'n be bardin egin eikeen bildurrez, Erregeak karta bat egin eutsan Korrexidoreari, Bizkaia'n orrelakorik ez gertateko, gudatalde bat osotu egiala eskatzen. Arkabuz eta mosketoiz armatutako 600 laguneko taldea. Bizkai'ko agintariei be eskabide ori egin eutsen).

Eskatzen ziran seiren lagunak era onetara banatzeko ziran: Irureun uri eta irietatik (villaetatik); Eun eta irurogei Erri-Iautik; eun Enkarterritik eta beste berrogei Durango aldetik.

Martin Munibe etxebarritarra zan aldun nagusi, eta bera izan zan talde onen buru nagusi izentatua.

*(Bostgarren liburuan, 155 orrialdean)*

1626.—Urte onetan sartu zan Valladolid'en, ango Kurutze deun izeneko Unibersidadean, Pedro Munibe markiñarra (1) Kanofletan gaitu ardureagaz. Lenengo Oñate'n egon zan ikasle eta ikastaroetan gaillen agertu zan.

1630 urtean Araudi katedra lortu eban. 1632 urtean, leiaketa bitarte, Kanonetakoa, beste lauren aurka jardun ondoren, eta gaitasun andia erakutsi eban. Urte berberean, bost lagun leiaketara agertuta, Seigarreneko katedra irabazi eban eta andik urte betera, beste iruren aurka, bera geratu zan Legeetan Nausiena katedragaz.

Erregeak, 1635 urtean, Coruña'ko entzule izentatu eban, baiña mesede ori gitxi eritxi jakon eta ez eban onartu. Bereala Vallado-

lid'eko Txanzilleriko fiskaltzat aukeratu eben; 1641'n Granada'ko entzule, baiña bere zeregiña beteten asi baiño len, zeregin bardiña Valladolid'en betetekotan itxi eben. Eta soldadu gaietan be Erregearen esanetan egon zalako, 1642'ko apirillean Errege Korteko alkate aukeratua izan zan. 1643 urtean Aginduetako Konseilluan utsik geratu zan zeregin bat artu eban eta 1653'en Errege Konseillu eta Castilla'ko Gorenean, ministro izaniko ospe andidunekaz leiatu ondoren.

Bizkai'ko Jaurerriak bere arazo batzuen azterketa bere eskuetan itxi eban eta 1656 urtean il zan.

Munibe'ko Juan eta Aranzibia'ko Jordana'ren seme izan zan. Bere anai izan ziran: Bizkai'ko Aldun nausi izan zan Munibe'ko Martin, Santiago'ko zalduna; Juan eta Sebastian, gazterik illak; Antonia, Santiago zaldun eta Erregearen Konseilluko zan Martin Axpe'ren emaztea eta Maria Munibe, Azkoitiko klaratarren konbentuan erlijiosa izana.

(1) Etxebarria'ko san Andres edo erri-deituran Markina-Etxebarrikoa. 1603 *urtean jaio zan eta bere bateoko agiria 1.576 urtean asiera daukan Bateotako liburuan sartuta dago.*

*(Bostgarren liburuan, 160 orrialdean)*

## Mexiko'ko artzobispo

1643 urtea. Juan Mañozka eta Zamora, Etxebarria'ko semea, aurreko urtean Granada'ko Txanzilleriako lendakari zana. Mexiko'ko Artzopispotzako aurkestuten da.

Fray Juan Zumarraga, durangarra, izan zan Mexiko'ko artzobispo lez bertako katedral barria egitea asi ebana, eta Etxebarria'ko Mañozka au amaiera emon eutsana. Orrela, katedral onen egituran bizkaitar bi izan ziran bertan esku artu ebenak. Zor ugaripean lortu zan amaiera emotea.

Mañozka jauna amar urtetan ezagutu zan ango artzobispo, 1653 urte arte.

(Bostgarren *liburuan, 326* orrialdean)

## Zenarruza'ko abatak

1665 urtea. Salamanca'ko Bartolome deun izeneko ikastetxean oraindik ordena txikietako abadeki zan Iñazio Munibe, ikasle nagusia, Zenarruza'ko Abatetzat aukeratua izan da, On Lope bere

anaiak itxitako ardura ori beteteko, Alejandro Aita Santuak emondako bula bitartez.

Santiago'ko zaldun eta Peñaflorida'ko konde dan Martin Munibe eta Zezilia Axpe jaun andreen semea da. Azken au Zeanuri'ko Andra Mari eleizako patroia dan Martin Axpe jaunaren arreba.

*(Bostgarren liburuan, 433 orrialdean)*

**Markiña'ko karmeldarrekaz auzitan**

1723 urtea. Xemein eta Etxebarria'ko parrokietako abadeak Markiña'ko karmeldar fraileekaz auzi bat euki eben, eta ango priore eta fraileei agindua emon jaken konbentua sortu zanean onartutako baldintzak onartzen jarraitu, zaindu, bete eta bete eragiteko.

*(Seigarren liburuan, 128 orrialdean)*

**Jakingarri batzuk**

1741.—Etxebarria. Larogei ta sei sugal (fogera) osoko eta amalau txiki egozan, guztira eun. Barroeta'ko Migel jaunak aurkezten zitun bertako lau abadeak eroaten eben, eta patroiak, abade bakoitzari, amarrenak emoten eutsezan etxeetako bat eskintzen eutsen. Eleizate onetan jaunartzen eben eleiztarrak seireun eta berrogei (640) lagun ziran. Ermitetan Etxarteko Gurutze deuna eta Munibe'ko Pilareko Andra Mariarena egozan, biak ondo.

*(Seigarren liburuan, 239 orrialdean)*

1844 Urte onetako Dagonillaren (abustuaren) 3'an, erabagi batzuk artu ziran Gernika'n eleizetako ordain-bear eta laguntzen banatzea egiteari buruz.

Sei ataletan banatzen zan an artutako erabagia.

Bostgarrenean esaten zan, artutako erabagien oiñarriak zainduta, eleiz-talde bakoitzak bere neurriak artuko zituala eleizako gurtza eta abadien serbitsurako premiñak zintzo bete al izateko, orretan eleizak lendik eukan banaketa eta eleiz-bakoitzeko jendetza kontuan eukita, oiturea zan lez lendik etozan eskubideak gordeta, eta ez erri-legez, zibillez egiten zan banaketaren araberan.

Ⅲaren lauan Etxebarria'ko ordezkariak bere asarrea agertu eban bostgarren atal onen aurka, errian eleiz-laguntza artzen eben guztiak erriak izentauriko neurrien araberan beartu zirala esanaz; sindikoak Batzarraren izenean, orren aurkako beste asarrea agertu eben.

*(Labairu, VIII liburua. 44 Monogradia. 445 orrialdean)*

# ETXEBARRIA'KO JAKINGARRIAK ITURRIZA'RI JARRAITUZ

Juan Ramon lturriza eta Zabala'k, bere Historia General de Vizcaya y Epítome de las Encartaciones lenengo liburuan, guk euskeratuta agertzen dogun au diño:

XXVlll Atalburua.– MARKlNA-ETXEBARRlA

539.– Markina-Etxebarria'ko eleiz-atea (muga eta etxe barria esan gura dau bere deiturak) Arranoate eta Urkaregi'ren iparraldera dago, Bilbo'tik zortzi legua ta laurdenera egiten da eta Ondarroa'tik bi ta erdira; Sorkaldetik Elgoibar'eko lurrekaz mugatzen da eta Ego aldetik Eibar'koekaz, biak Gipuzkoa'kuak; Sarkaldetik Markina'ko lurrekaz eta lparraldetik Xemein'go eleiz ateagaz.

Bere lurraldea, nai eta Sorkalde eta Sarkaldetik basoti eta menditsu izan, lpar aldetik laua da, eta Arranoate, Urkaregi eta Max'eko urekin ugaritzen dan errekatxu batek buztiten dauan ibar itxurotsu bat dauka; mendi gai ugari sortzen dira bertan, langai eta ikatzetarako; abereentzako janariak, endalarra (zarzaparrilla) eta ur garbi ta atsegiñen iturriak daukaz, batez be Aulestiartekoa.

Baserrietako soloak urtero 3.600 anega gari emoten dabez; 5.000 arto, arba, liñua, baba, indar, sagar, gaztain eta jaubeentzako eta egituretarako berebiziko diran ginda eta kereizak. Bertako andrak biargiñak dira etxeko kontu eta zaintzan eta etxeko abereak zaintzen eta azten, batez de ollandak.

Bizilagunen artean 86 sugal (fogera) osotzen dira, alkate baten ardurapean, eta Gernika'ko Batzar Nagusietan, eleiz-ateen artean, 28 garren jarrileku eta botoa dauka.

540.– Andres Apostolu deunaren izeneko parrokia dauka. XlV garren gizaldian Barroeta etxe jatorreko jaunak irasia (fundatua), Kortagoitia izeneko bere lurraldean; errekaren eskuma aldeko muño txiki baten gaiñean dago. 1570 urtean barrien barri zabaldu eban Domingo Arostegi argiñak. Zati batekoa da; 110 oin luze eta 41 zabalean, bobedakin; bost aldara, erretaula ederdunak, euretarik lau 1782 urtean urreztatuak. Organoa 1787 urtean egiña da; 97 illobi dagoz barruan eta eleizako patroiaren illobia, bere torre eta illerriagaz.

Lau abade dagoz bere serbitsurako, ogibide osokoak, Barroeta etxeak aurkeztuten dauzanak, amarrenak artzeko eskubidedun

dala, eta Parroki onen eleiztarren artean (erlikia be bertan gordeten da) 156 etxe dagoz, geienak 400 urtetik ona jasoak; 780 lagun dagoz jaunartzeko adiñean; 8 errota, taberna bat, lenengo maillako eskola bat, telleri bat eta Etxearte'ko Martin deunaren ermita.

541.– Esandako etxeen artean armarridunak eta jatorrak dira batzuk, euren artean Jauregi, Torrea, Belarroa, Alzaa, Mañozka, Munibe bere eleizatxoagaz eta beste batzuk.

1460 garren urtean, Juan Lopez Ganboa'koak su emonda, erreta geratu zan Belarroa eta Torrebidarte artean Markina'ko merinoak eukan etxe bizitza goragarria. Gudaketa onetan il ziran bertako jaube Gonzalo (bañez Markina eta seme bi eta bere aldeko beste zortzi gizon, Lope Garzia Salazar'ek agertzen daben lez, eta geiago ez da barriztu izan.

542.– Gizon argien sorleku da. Nik dakidanez Juan Mañozka, 1643 eta 1653 urte bitartean Mexiko'ko artzobispo izana. Gizon txit argi eta gurgarria.

Mañozka eta Santo Matia'ko Fray Jose. Cuba'ko gotzaiña, indiarrak 16... urtean martiri illa.

Migel Urrosolo, santu usaiñez il zan Jesus Mariaren Fray Domingo'ren aita, karmeldar oñutsa. Viena'n il zan emperadorearen jauregian 1630'ko Otsaillaren 17'an. Bere Ordenako kronikak ugari goraipatzen dabe bere bizitza eta santutasuna.

Ziarrotza'ko Abata nagusi izan ziran Lope Antonio, Iñazio eta Franzisko Munibe.

*Oarra. Juan Ramon lturriza, Berriz'eko Olakueta'n jaio zan 1741'ko Jorraillaren 29'an eta Munditibar'en ii zan 1812 urtean. Beraz bere bizitzako denpora kontuan euki bear da bere zeaztasun batzuk irakurri ta gogoan artzeko)*

**Eleizetako argiñak**

lturriza'ren liburu onetan, bigarren liburuko 44-45 orrialdetan, Durango'ko parrokiei buruzko egituretaz jardutean, oar au agertzen da eta Etxebarri'ko bateri dagokiona da.

"Gernika'ko San Juan'go kanposantuan, 1645 urteko Dagonilla'ren 15'ean, erri eskribadu naizen Simon Arandia onen aurrean... agertu dira: Juan Ansola eta lbarguren, argin maixua, Markina-Etxebarria'ko bizilaguna batetik... eta bestetik Juan Ortiz Olaeta, au be argin maixua, Gautegiz'ko bizilaguna... eta esan eben Forua'ko bizilagun zan Sebastian Zarraga argiñak artu ebala Durango'ko Tabira'ko Andra Mariaren eleizako argin egitura, Olaeta'ko Ortiz jaunaren irizpidearen menpean. Eta lanaren zati andi bat egin ondoren,

Sebastian ori il zala, eta bere emazteak jarraitu ebala, baiña emaztea be, eta semeak be, il zirala eta oraindik amaitu barik egoala eleiz ori eta bertako arduradunak erabagi ebela Juan Ortiz'ek jarraitzea amaitu arte.., baiña orain arduradun argin ziranak erabagita eukela Juan Ansola eta lbarguren'ek amaitzea, Juan Ortiz'ek bere gaixotasun eta urteetan zartuta egoalako, bear zan eran amaitu ezin eikeana".



**TXIKIÑE**

# ITURRIZA'RI OARRA

lturriza'ren istor¡a irakurtean, ain zuzen 541 zatian datorren inguru onetako gudaketa bat denporetan lekutzeak, Lope Garzia Salazar'en "Biennandanzas e Fortunas" liburuan ziurtatzera eroan nindun.

Ba dirudi urtearen goraberan errakuntza andía dagola lturriza'k agertzen dauan urtea eta Lope Garzia Salazar'ek bere XXlI garren liburuko zatian esaten dabenagaz.

Ara kronika orreri dagokion zeaztasuna, "Las Biennandanzas e Fortunas, Códice del Siglo XV. Primera impresión del texto completo... por Angel Rodriguez Herrero, Tomo lV. Libros XX al XXV" liburutik atarata:

> DE/COMO QUEMARON JUAN LOPES DE GAMBOA E LOS GAMGOY / NOS, A GONZALO YBAÑES DE MARQUlNA, E DOS FlJOS. /
>
> Mucho antes desto, en el año del / Señor de UCCCLXX (1370) años, salió Juan Lopes de / Gamboa, el viejo, aguelo de Fernando de / Gamboa, con poderosa gente de los Gambo / ynos, con la luna, e amaneciole en / Marquina, e quemó a Gonzalo Ybañes de Marquina, pa / dre de Lope Ybañes de Marquina, e a dos fijos, / e otros muchos omes de los suyos dentro de / su casa, e de Ribaronla por el suelo.

Beraz lturriza'k 1460 diñona, 1370 urtea da textu onen araberan.

(**A. Zubikarai)**










eika

# ETXEBARRIA, PASCUAL MADOZ'EN IKUSPEGIZ

**Marquina-Echevarria o San Andres de Echevarria**

Orrela da Pascual Madoz'ek eleizate oneri dagokionari buruz idatzitakoari burutzat ipini dautsan deiturea.

Gero jarraitzen dau; guk euskeratuta agertzen doguna esaten:

"Markina'ko merindadeko eleizatea, Bilbo'tik zortzi legua ta erdira. Mugak, Iparraldetik Jemein, Ego aldetik Elgoibar eta Eibar, biak Gipuzkoakoak. Bere lurraldea, sorkaldetik menditsu eta pendiztsua ba da be, iparraldetik laua da, eta ibar polit bat dauka, Arranoate, Maax, Urrondo, Mendibil eta Urko'tik datozan iru errekatxotako urak batzen dauzan ibaiak igaroten dauala. Baso-gai, belardi eta iturrietan ugaria da, eta bere bana-banakako baserrietan, 1.131 pertsona bizi dira, eta euron ordezkariak, Gernika'ko Batzarretan, ogei ta zortzigarren jarrilekua dauka.

Barroeta'ko etxe jaunak XlV garren gizaldian Ander deunaren izenagaz irasi eban parroki bat dauka, jaun berberaren lurralde zan Kortagoiti'n jasoa, eta geroago 1570 urtean Domingo Arostegi argin maisuak zabaldua. Zati bakarreko da, luzeran 110 oin eta zabaleran 41 daukazala, bobeda, errataula ondun bost aldare, patroiaren illobi, eleiz-aurre eta torreagaz. Etxarte deritxon tokian, Kurutze Deunaren izeneko ermita dauka.

Eleizate onetatik datoz gaur Markiña'n bizi diran famili batzuk. Bere lurraldean, jauntxoen denporetan, eta gerra aldietan, gudaketa gogor eta odoltsuak egin ziran.

Munibe eta Torrebidarte artean egoan Merindadeko merinoaren etxea 1460 urtean beratua izan zan Juan Lopez Gamboa'ren erasoz, eta bertan il zan bertako jaube zan Gonzalo (bañez, bai eta bere seme bi eta beste zortzi lagun geiago.

Antxiñako kontuetan aitatzen diran Munibe, Belarroa, Torrea, Alzaa, Jauregi eta beste famili batzuk, eleizate ospetsu onetan sortuak dira. Origaitik aberriarentzat ongille izan diran gizon jatorren sorleku da, nai ta batzuk astuta euki. Batez be gogoratzeko dira Mañozka'ko Juan, 1643-1653 bitartean Mejiko'ko artzobispo izana; Fray Jose de Santa Maria eta Mañozka, Cuba'ko gotzaiña, XVll garren gizaldian inditarrak martirizatua; Jesus Maria'ren Fray Domingo, karmeldar oiñutsa, Viena'ko enperadorearen etxean

1630 urtean santu irizpidez illa; alkarren jarraian Zenarruza'ko abata nagusi izan ziran Lope, lñazio eta Franzisko Munibe, eta aitatu leikezan beste asko.

Markina-Etxebarriak arto, gari, igali, ortuari, ginda zoragarri eta osasun bedarrak emoten dakiz bere lurretan, eta bertan asten diran egaztiak eskabide ona eukiten dabe.

Durango'tik Markiña'ra duan errepidea bere lurraldearen mugatik igaroten da.



**ALKARRI LAGUNTZEN**

# UDALEKO ARTXIBOA

Udaleko artxiboa liburu oneikaz osotzen da:

| | | |
|---|---|---|
| **Erri ardularitza sailla:** | | |
| Udal batzarretako agiriak | 1632-1984 | 22 liburu |
| Dekretu eta erabagiak | 1856-1879 | 1 liburu |
| Batzordeen agiriak | 1569-1931 | |
| Erregistroak, agiri urteera eta abar | 1901-1985 | |
| Merkatuak. Alikatura | 1942-1945 | |
| Erri-serbitsuak | 1924-1934 | |
| Osabidetza | 1975-1980 | |
| | | |
| **Suztapen sailla:** | | |
| Zenbaketa | 1857-1985 | |
| Erri irakaskintza | 1911-1985 | |
| Lenengo sektorea | 1938-1985 | |
| Orokorrak | 1980-1985 | |
| | | |
| **Ogasun sailla:** | | |
| Kontuak | 1534-1943 | 17 liburu |
| Petxak eta zizak | 1910-1949 | |
| Kontribuziño eta zergak | 1891-1955 | |
| | | |
| **Lan-sailla:** | 1955- | |
| **Udala eta besteen arteko artu-emonak:** | | |
| Agintari zibillekazko artu-emonak | 1822-1947 | |
| Militarrekikoak eta guda gaiak | 1810-1985 | |
| | | |
| **Udaleko ez diran argibideak:** | | |
| Estatukoak | 1795-1833 | |
| Jaurerrikoak | 1702-1841 | |
| | | |
| **Osotu bakoak eta danetarikoak:** | 1939-1956 | |
| | | |
| **Zuzentza sailla:** | | |
| Giza erroltzea | 1939-1979 | |
| Orokorra | 1907-1940 | |

Artxiboa ondo eta garbi zainduta eta sailkatua dago.



UDALETXEA



GARRO INGURUKO MEATZAK



KAROBIA



PELOTA TOKI TA PROBALEKUA.



ESKOLETXEA

# ELEIZ LEGEZ

## Parrokia

XIV garren gizaldiaren azkenetan asten gara Etxebarria'ko parrokiaren aztarrenak artzen.

Asieratik Barroeta etxea izan zan bertako patroi arduretan, bera izan zalako parrokiaren sortzaille edo irasle.

Ba dirudi lenengo ezagutu zan parrokia gaurko toki berbertan egon zala, gaurkoa baiño askoz txikiagoa, Kortagoitia deitzen dan muño gaiñean.

Geroago, erdi jausi edo egoera txarrean egoalako, tokiz zabaltzea pentsatu zan eta orretarako orma barriak egin ziran eta 1570 urtea artzen da barriztapeneko urtetzat.

Domingo Arostegi etxebarritarra izan zan barriztatzea bere kontura artu eban argiña.

Ba dirudi ordutik dagola gaur ikusten dogun eran.

Aldare nagusi ederra dauka bere zaindari Ander deunaren irudia erdian dauala. Albotako aldarak 1782 urtean urreztatu ziran.

Organoa 1787 urtean egiña.



lturriza istori egilleak 97 illobi edo sepultura dagozala barruan diño. Gaur illobiak, lan barriak egin eta jarrilekuak ipini ziranetik, estalduta dagoz. lturriza istori idazleak bere liburuan 97 sepultura egozala diño. Guk ikusi doguzan planoetan, 96 agertzen dira.

Oiturea zan lez, patroiak bere jarrileku berezia eukan, gizonen jezarlekuen alderdian, danetatik bereiztuta, eta gaur be bere jarrile-kua or dago, Barroeta etxeko armarriak lepoan daukazala.

Ba dirudi patroiak urte batzutan bere ardurak bastertuta euki zitula, eta euki eban orren goraberan zigorren bat, amarrenak eta asikiñen goraberan, baiña eskubideak, bateko ta bestekoak, nekez itxi edo obeto esanda, setatsu zaindu nai ezaten zituen.

Eleiza ederra da.

Kanpotik gaztelu edo torre zar baten itxura dauka. Torre lautua.

Bertan errirako orduaria, 1950 urte inguruan ipinia. Gasteiz'ko Murua etxeak egindako orduaria da. Esfera bi, mekanikoa, burdin urtuan egiña, tren biduna, oskintza 100 x 41 x 58 zm.

Aldi baten lau abade egoten ziran bertako serbitsuan. Gaur batek eroaten dau serbitsu guztia eta 1948 urte ezkeroztik dago parrokian.

Eleiz oiturak, beste parroki askotako eran, azken Eleiz Batzar Nagusi ezkero zerbait aldatuak dira.

Sepulturetako egoera eta abar, galduak dira.



**SANTA ENGRAZI ERMITA**





**GURUTZE ERMITAKO MADALENA.** **SANTA ENGRAZI**

Orain erresponsoak egiten diranetan, eleiz erdian biztuten da argia.

Sepulturei buruz ba dago Kaloorra'ko gotzain baten galerazpen bat. ltxuraz oiturazko euken len etxekoandrak sepultura batetik bestera ibiltea, sepulturetan erresponsoak isteko aitzakiz, eta gotzain arek galerazo egin eban batetik bestera kontu kontari ibilteko oitura ori.

Etxebarria'ko eleiztarrak baserri errietako oitura, oneraspen eta ekanduak maitatzen dabez, nai eta orain, liturji barriagaz, eta bizimoduko premiña eta aukera barriekaz, batzuk bastertuta geratu.

Len ermitetan egiten ziran jai eta oitura batzuk, gaur parrokian egiten dira.

Bat esateko, Arrixan kontrako meza, len Etxarte'ko ermitan eskintzen zana, orain parrokian emoten da.

Parrokiko aldaretako irudi eta ormetako laukietatik gain, Xlll garren mendeko gurutza baliotsu bat dago, brontzean egiña, bai eta Ander deunaren erliki bat, etxebarritarrak maitasunez gurtuten dakiena.

Eleiz liburuak ondo zainduta dagoz. Geroago agertzen dogu euren zerrenda zeatza.



XIII MENDEKO GURUTZA.



ERLÍKIAK

**Geigarri bat**

Gorago esan dogu Domingo Arostegi izan zala XVI garren mendean parrokiko barriztapena bere kontura artu eban argin maisua.

Ala diño Labayru'k H.B.'ko lV garren tomoan, 408 orrialdean.

Onen geigarri lez esan daikegu beste argin ospatsu bat ibili zala barriztapen onetan: Martin Lejardi.

Eta barriztapen orretako planoak egindako arkitektoa, aldi aretan entzutetsu zan Lukas Longa, semea, izan zala.

Orrela diño lñazio lrizar arkitektoak, "Amigos del Pais" izeneko boletiñean argitaratutako lan baten. (lk. B.A.P. Cuaderno l-Il, 1945, 117 orrialdean).

**Etxarte'ko Kurutze Santua**

Kalamua azpian dago Etxarte'ko ermita au.

Egitura lautua, kanpoko ormetan.

Ate bi, goi aldea arkoan daukela.

Barruan egurrezko bobedak, politak, batetik besterako arkoak osotzen.

14,85 metro luze eta 10,35 zabal.

Aldare aurrean, arlosa eta egurrezko beia. Gaiñerakoak, lurrezko baldosak.

Erdiko aldara, ermitaren izena lez, kurutzearen omenezkoa.

Kristo'ren irudia bera, txikia, antxiñakoa, egurrezko kurutze luze batetik zintzilik. Bere alboan irudi bi, Neketako Ama eta Jon deunarenak, baiña ez taillatuak, margotuak baiño, erretaulako irudi lez.

Ebangelio aldean beste aldare bat, margotua, Apoloni eta Katalina deunak, Andra Mari, Anton Abata, Jon Bateatzaillea eta Kristo arantzaz koroetaua ezagutzen dirala.

Beste aldarea utsik dago. Ango Madalena'ren irudi txukun bat, gaur parrokian gordeten da.

Erre egin zan 1976 urtean. Eta erritar eta Udalaren kontura barriztatu zan.

Bertako jai eguna, iraílla'ko Gurutzer deun eguna izaten da, baiña aldi onetan egunetik urrengo domekara ospatzen da jai ori.

Gaur ez da egiten len oiturazko zan 'ataña errogatibarik.

Gurutzi Arregi'k bere Ermitas de Bizkaia liburuan, ermita onen agerpena egitean, antxiñako oiturei buruz au diño: Kofradia. Felipa Amutxastegi'ren esanetan, antxiña Kofradi bat egon zan ermita onetan. Eta "Ermita onetako diru-kontuen eta garbitasunen liburu onetan, "Kofradeak" egiten eben bazkarirako erosten ziran plater eta koillarak aitatzen dira. Baiña 1722 garren urtean, obispoak egin-



**ABADE ETXEA**



**GURUTZE SANTU ERMITA**

dako ikustaldian, jan-edan oneik ermitan, kanposantuan eta gaiñeko gelan egitea galerazo egin eban Obispoak".

Parrokian dagon artxiboko liburuen artean ba dago bat "Ermita de Santa Cruz 1718-1816" ezaugarrikoa. Oi danez, ermitako kontuak bertan agertzen dira.

Ermita au Etxebarria'tik Barinaga'ra duan bidetik urten eta burdi bide joanaz dago, bide aretatik berreun metro ingurutara.

**Santa Ingrazi**

Ermita au ez da lurrez Etxebarria'ren lurretan lekutzen, baiña eleiz legez emengo parrokiaren menpeko da. Lurrez, Markiña da.

Etxebarria'tik Barinaga'ra duan bide egalean dago, eskumatara.

Luzeran santa Kutz baiño metro inguru laburrago da; zabaleran ia metro ta erdi zabalago. Au da, zeatz esanda, emengo neurriak oneik dira: 13,60 metro luze ta 11,75 metro zabal.

Ormak arlangaitzez egiñak dira, egalak arlanduzkoak.

Tellatua lau alderdietarakoa.

Barruan, beia, arlosaduna aldare aurrean. Gaiñerakoan arriegal biribilla.

Atadi iregia dauka.

Kanpaitorre berezia. Egurrezko zutabe bi, tellatu txiki bateri eusten, eta tellatupean kanpai bat.

Imagiñak: lngartzi deuna erdian. Alboetan lauki margotuetan, Antolin eta Gergorio deunak. Txikitxoagoetan beste irudi batzuk.

Diñoenez len egon zan Esteban deunaren irudi bat, baiña kanpaia erosteko saldu zan.

Aldaretako maiak, itsuak.

Jaia. Jorraillaren amaseian gogoratzen da santa eguna, baiña urrengo domekan ospatzen da ortarako eleizkizunean.

Beste oiturak: Maiatzaren 9'an, Gergorio deunaren egunez, ura eta gatza bedeinkatzen ziran. Orioa be bedeinkatzen zan eta etxera eroan, belarriko miñak kentzeko. lnguruko esaera da: San Gregorixo, botilla bete orixo.

Letaiñetako ibildeunak egiten ziranean, egun baten Etxebarria'ko parrokitik egiten zan eta beste egun baten Bariñaga'tik.

Konpondu bearra ba dauka. Baiña premiña au ez da gaurkoa. Labayru'k bere "Historia de Bizkaian", 1741 urtean au diño, eleiz agintariak Markiña'ra egindako ostera baten ondorengo agerbide lez: "Barinaga: Ermita bi dagoz, Santa Marina eta santa lngartzi. Lenengoa itxurotsu zainduta dago, bigarrenak ba dauka konpondu bearra.

**Munibe'ko Pilarekoa**

Eleizaz Etxebarri'ko parrokiaren mendeko.

Gaur gaurkoz, ermita egon zan tokian, ezaugarri bakar bat geratzen da. Arlanduz egiñiko kanpai orma bat, bere kanpaiagaz.

Munibe'ko Jauregi barritik 30 metrotara dago.



**GURUTZE SANTU ERMITA**

ETXEBARRIA'KO
ZAINDARIA







SANTA ENGRAZI

MUNIBE'KO PILAREKOA

# PARROKIKO LIBURUAK

Ander deunaren izeneko parrokiko liburuak 1585 urtean asten dira, eta gaur arte jarraitzen dabe, denboretan liburua amaitu ta barriari asiera emonaz.

Ala jaiotza, ezkontza, eriotza, sendotza eta abarrei buruzkoak.

Sailkatuten joan ezkero, era onetan zeaztu geinkez:

Bateotakuak, danetara amar batzen dira, 1585 urtean asita.

Ezkontzetakuak, zazpi dagoz, 1618 urtetik asita.

illenak, beste amar, 1618 urtean asita.

Ba dago bataiatuen lndize bat, baiña ez asieratik asia, 1760 urtean asi eta 1865 bitartekoa baiño.

Matrikula liburuak deitzen diranak bi dira, 1893'tik 1911 bitartekoak.

Ermitei buruzkoa bat dago, Etxarte'ko Gurutze santukoa, 1718 urtetik asita.

Eleiz egitura eta erabideko saillean; parrokietako Fabrika deitzen dan sa¡llean, lau liburu dagoz 1810 urtean asita.

Urteurren eta zentzoetakoak, bi, 1690-1900 bitartekoak.

Anaidi eta Kofradien saillean, Errosario'ko Kofradikoak dagoz, 1591 urtean asita.

Vera Cruz Kofradikoak beste bi, 1.671/1.969 bitartekoak.

Abade taldeari dagokiezanetakoen artean, Kontu edo diru goraberak saillean, bi dagoz, 1.604/1.817 bitartekoak.

Errenta edo mozkiñenak, bat agertzen da, 1782-1855 bitartekoa.

ltun eta auziak deritxona, bakarra dago.

Eta zeaztasun bakoak, gai eta denporetan zeaztu bakoak, beste bost agertzen dira.

Liburuak ondo zainduta dagoz, parrokiko sakristian.

Orrez gaiñera esan bearreko da, Derio'ko Seminarioan ba dagozala micro-filmean artuta emengo liburuen kopiak. eta bear diran jakingarriak era batera edo bestera artu leikezala. Orretan aukera andia dago gaur eta batez be liburuak galtzeko edo erreteko arriskua galduta lagaten da.

Eleiz liburuak eta kondairako gertaerak

Eleizetako liburuak, kronika liburu jakingarriak gertaten dira. Ala dira dira jaiotza eta eriotzeei buruz. lllen liburuetatik jakiten dira

sarri gertaera negargarri batzuen zeaztasunak, batez be itxas errietan, beste iñun baiño zeatzago agertzen diralako euretan gure zarren ibillerak eta euren zoritxarrak.

Etxebarria'ko parrokiko liburu aundietako baten, liburuaren asieran onelako agerpen au billatzen da:

1762.—Urte onetan, Bagilla'ren amabostean, urak igo ziran eta lau alderdietatik adu eben eta gañezka lñazio lbarluzea'k, Beko Etxebarrikoa deitureagaz oraintsu barrien barri egiña daukan etxea. Bertatik tatarrez atara eben erriko andra bat eta eroan, orrez gaiñera ainbat kalte andi egiñaz. Eta jarraitzen dau adierazten Markiña'ko merindadean urak amorruz ibili zirala Karmen'go ormetatik zear, eta ez ebela itxi zutik egindako zubi barririk, eta antxiñatik datozan zubi zarretan be kalterik egin bakorik ez ebela itxi eta Bilbo'ko ibaian berrogei ta bi itxasontzi zatitu zituela, bat be osorik laga barik. Agirre bertako parrokoa da agiri ori izentatzen dauana.

> ("Este año a quince de junio subieron las aguas de modo y tanto que circundaron por las cuatro partes y con abundancia a la casa nuevamente erigida por lgnacio de lbarluzea, llamada de Beco Echabarricoa, de donde con violencia arrancó a una vezina y se llevó haciendo otros daños muy considerables. Oy decrecido en toda la merindad de Marquina en donde corrió la agua por las tapias del Carmen no dejando puente nuevamente fabricado y sin maltratar sumamente a los de años inmemoriales. Y llevó de la Ria concha de Bilbao cuarenta y dos navíos que se hicieron pedazos y ninguno se escapó").
>
> Agirre

# ETXEBARRIA'KO ETXEAK XVI GARREN GIZALDIAN

## (AMARRENAK)

XVl garren gizaldian, jakiña danez, errietako etxeak euren frutuen amarrenak eta asikiñak eskintzen eutsezan batzutan Parrokiari eta bestetan Patroiari, edo parrokiaren ardura eroaten eban Patroiari.

Ortik daukagu etxe askoren antxiñatasunaren barri.

Ba daukagu Etxebarria'ko zerrenda bat: 1542 urtekoa. Labayru'k bere "Historia de Bizkaia" liburuan agertzen dau.

Zerrenda bikoitza da. Batzuk Parrokiari eskintzen eutselako eta besteak euren patroiari, Barroeta etxeari Etxebarri onetan. Eta ba dagoz bieri batera eskintzen eutsenak be.

Zerrenda orretan agertzen diran etxeak, ezpairik barik, 1542 urtea baiño aurrez etozanak dirala.

Labayru berberak esaten dau beste batzuk be ba dagozala. Ez dira asko izango. Igarten da geroagoko zerrendetan beste izen batzuk ba datozala, baíña ez asko. Eta ordez orduan agertzen ziran batzuk, gaurko zerrendetan ez dira agertzen. Galdu ziran.

Etxe bakoitzak eleizeari ala Barroeta patroiari emoten eutsezan jakiteko, eleizari emoten eutsenei E izkia jarriko dautsegu etxe-deituraren ondoren, eta Barroeta'ri eskintzen eutsenei B. Eta bakoitzak berea zerrendan errezago billatzeko, alfabeta ordenan ipiniko doguz:

| | | |
|---|---|---|
| Adorriaga | E | |
| Agirre | E | |
| Agirre Arkotxa | E | |
| Agirre beko | E | |
| Agirre goiko | E | |
| Agorria | | B |
| Aldazkoa | | B |
| Alzaa | E | |
| Alzola | E | |
| Andrinua beko | E | |
| Andrinua goiko | E | |
| Anduiza | E | B |
| Ansotegi (erdi) | E | |

| | | |
|---|---|---|
| Arejita beko | E | |
| Arejita goiko | E | |
| Arestikoa | | B |
| Arexilondo | E | B |
| Arnoriaga | E | |
| Arostegi | E | |
| Arritoin | E | B |
| Aulestia | E | |
| Aulesti Bideazpi | | B |
| Aulestiarte | E | B |
| Azarrolaza | E | |
| Azorin | E | |
| Azorin zabal | E | |
| Balzola | E | |
| Barrenetxea | E | |
| Basabe goiti | E | |
| Basabe Urruti | E | |
| Basaibar | E | |
| Beide | E | |
| Belarroa | E | |
| Bizkarra | | E |
| Bitar | E | |
| Bizkarra goiko | E | |
| Dendarikua | | B |
| Egierrea | _ | B |
| Eguskiza | | |
| Elordi | E | B |
| Elua | | |
| Errementarikua | E | 3 |
| Eskutasolo | | |
| Etxarte | E | |
| Etxetxua | | B |
| Etxebarria | E | |
| Etxebarrikua | | B |
| Etxia | E | |
| Galarza | E | |
| Ganbokorta | E | |
| Gandiaga | E | |
| Garro | E | |
| Ibarguen beko | E | |
| Ibarguen goiko | E | |
| Ibarluzea | E | |

| | | |
|---|---|---|
| Ibarra | E | |
| Imitola | | B |
| Irigoen | E | |
| Kallejakua | | B |
| Kanala | E | |
| Korrikoa | | B |
| Kortabeitia | | B |
| Labarin | | B |
| Launo beko | E | |
| Launo goiko | E | |
| Larruskain | E | |
| Lausagarreta | E | |
| Lejardi | E | |
| Maguregi (bi) | E | |
| Makotegi | E | |
| Mandiola | E | B |
| Mangutegi | | B |
| Munibe beko | E | |
| Munibe goiko | E | |
| Okoroki | E | |
| Olabarria | | B |
| Orizate | E | B |
| Orizain | E | |
| Ormaetxea | | B |
| Osandategi | E | |
| Osolo | E | |
| Orisolo | | B |
| Sarasua | E | |
| Sarazibar beko | E | |
| Sarazihar goiko | E | |
| Tamasenekua | | B |
| Ugarteburu | E | |
| Urkaregi | | B |
| Urronamunzaga | E | |
| Urrosolo (bi) | E | |
| Urzulo | | B |
| Zelaikoa | | B |
| Zubieta | E | |
| Zugazti | E | |
| Zuloeta | E | |
| Zuloeta barri | | B |

# ZENARRUZA ETA ETXEBARRIA

Jakiña da Zenarruza'ko Kolejiatak ze ikusi ugari izan dauala inguru onetan, batez be inguruko baserri eta etxeekaz eukitako lotuerak bitarteko zirala.

Kolejiata orretako paperak eta liburuak irakurtean, ez asko, baiña ba dira Etxebarria'ri ikutu izan eutsenak.

Orrelakoen artean onek:

**Ansotegi.**

1413 urtea. Urtarriila'ren 23'an.

Aldanondo'ko Mayora Diaz eta Mutriku'ko Teresa (bañez Elexate'k dirua eta Ansotegi burdiñolako jaubetasun batzuk eskintzen.

Zegaitia: Ziarrotza'ko eleizan sepultura eskiñi eutselako eurentzat eta ondorengoentzat. Sepultura ori aldara nausiko eskillaren aurrean, ankakin eskillara orreik joten egoteko eran eta Ugarte, Mezeta, Albiz eta Barroeta eta antzerako etxeak euki zituen aiñako sepultura izatekotan, eleiz ormatik lenen egiten dana.

Gaiñera, san Pedro jai egunaren biaramonean urteurreneko meza abestua eskiñiko eutsen.

Origaitik eurak Ansotegi'tik euken berrogetaamarna marabedien errentaren zati bana eskiñiko eutsen (erdia emon eutsen) eta burdiñolaren alboan egozan lurrak be eskiñi eutsezan, ango langillei aginduaz emokuntza ori zaindu egiela aurrerantzeanr

(Bizkai'ko Aldundiko Kondaira Artxiboan, Zenarruza'ko Agirietan, Xll Agiritegiko 21 zenbakiduna).

**Erretolaza'ko ingurua**

1498'ko Urria'ren 12.

Martin Mañoska eta bere emazte Santxa lbarguren'eri Arretolaza korta (sela) alokatzen egindako ituna, bertako lurrak landuaz etxea be jasoteko eskubideagaz.

Ordez urtero Ziarrotza'ri bost anega gari neurri andikotan ordaintzera beartuten ziran, Ziarrotzako parrokiaren menpeko, amarrenak eta asikiñak bertara eroanaz, eta eukiten eben ganadu kontu guztia erdiz banako izatekotan.

Gorago esandako Artxibu berbertan dago agiri au, Xlll garren Agiritegiko 6 zenbakiagaz.

Benetan lotura gogorra izan zan Erretolaza baserrikoentzat eta igarten da ezin ordainduta ibilten dirala.

1643 urtean eskribadu aurrean kontuak argitu eta kittutzea egin eben, eta Retolaza jauna milla zazpireun eta ogei ta bi (1.722) errial belloiko atzeratuak ordaintzekotan geratu zan.

Mañozka'ri zorionak emoten

Zenarruza'ko paperen artean gordeta dago 1645 urteko Jorrai-lla'ren 20'an Bizkai'ko Jaurerriak Mexiko'ko artzobispo zan Juan Mañozka'ri egindako zorion agurra. Zorionak emoten dautsaz Nueva España'ra ondo elduteagaitik, bere zeregiñean urte asko opatuaz, eta eskatzen an egoan Pedro Irusta'ren alde al ebana egiteko. Irusta au Zenarruza'ko abade nagusi zan Diego Irusta'ren lengusua zan eta Bizkai'ko Aldun nagusi zan Martin Ganboa'ren osaba.

Amarrenak banatzeko ituna

1744-V-28.

Jemein, Berriatua eta Etxebarria'ko abade taldeak eta Zenarruza'ko Kolejiatako Abatak itun bat egin eben amarrenak eta asikiñak banatzeko eta Abatetxe aretako eliztar izan ziranei eleiz-laguntzak emotekor

Itun onen ondorenez zeintzuk etxe diran eleiz laguntzak emon bear jakoezanak zeaztuten dira eta amarrenak zelan banatu.

(Bederatzi eta amar foliotako agiriak dira)

Alzaa'ko Jose Andres kanonigo egiteko.

Zenarruza'ko Kolejiatan bertakoetatik kanpokoentzako dagozan kanonigo nortasuneko egiteko, beste iru kanonigok Etxebarria'ko parrokiko abade zan jose Andres Alzaa aurkeztuten dabe zeregin orretarako.

Aurkezpen onetako agiria 1780 urteko maiatzaren 15 an izenpetua da.

Abade nagusiak

Zenarruza'ko abade nagusien artean ospe andiko izan ziran Munibe'ko seme batzuk, euren artean Lope Antonio, Iñazio eta Franzisko, irurak bata bestearen atzetik nagusitzako ardurea euki ebenakr

# JUAN ANTONIO MOGEL PARROKOA

Mogel, euskal idazle argi eta jakintsua, "Peru Abarka" liburu ospetsua idatzi ebana, Etxebarria'ko Ander deun izeneko parroko izan zan.

Ez zan bertako seme, eibartarra baiño.

Bere denporetan nortasun andiko izan zan, eta nortasun ori Etxebarria'n egon zan bitartean be "osotu" ebala esan geinke.

Lau urte inguru egon zan Mogel emengo parroko lez. Zeaztasunaren kezka, baserritarrei erakusteko zaletasuna, erriari gertaerak gogoan sartu eragiteko gurari bizia eta eleiz-eskubideak zaintzeko ardura ta zintzotasuna, bere denporan bete bear izaten zitun eleiz liburuetan igarten dira.

Mogel'en lenengo "partidak" gitxi idazten daben izenpe edo firmagaz agertzen dira. Laugarren urterako bere firmak eskribadu baten marra eta urratsak erakusten dabez.

Bere zeaztasunaren kezka, esan dogu.

Ara, lekuko, berak idatzitako partida bat, jaiotzetako liburuetan agertzen dana.

Erderaz dago ta euskeratuta agertzen dogu:

"Gaur, 1774'ko Maiatzaren bian, nik, Etxebarria'ko san Andres parrokiko abade naizen Antonio Mogel'ek, ume bat bateatu dot. Egun bereko goizeko bederatzietan jaioa da eta Maria Theresa ezarri dautsat izentzat. Martín lmitoia eta Theresa Arnoriaga'ren legezko alaba da.

Eta gero. azpian, beste oar au ¡pinten dau:

"Jakin erazten dot ume onen gurasoak eta aurretikuak lmitola abizena erabili izan ba dabe be, eta ume onen agirian be ala ipini eragin dauste, jakin izar, dot abizen jatorra Egurrola dala eta lmitola bizi diran eta jaube diran baserri-etxearen daituratik artu dabela.

Oar au egiten dot urrengo baten okerrik egon ez dagian eta goian le: izenpetzen dot'.

"Advierto que aunque comunmente los padres o antepasados de esta niña se apellidan lmitola y aún a mí me hicieren poner así en ¡2 partida que aquí va ¡nserta, he averiguado que el apellido peculiar es Egurrola y que el de Imitola lo han tomado de la denominación de! caserío en que habitan y cuyos poseedo-

res son. Hago esta advertencia para que en ningun tiempo haya equivocación. Y firmo ut supra").

## Munibetarrekin auzitan

Beste zeaztasun bat, oraingoan eriotze bat bitarteko dala.

Onela asten da agiria, Eriotzetako liburuan:

1774 urteko Bagilla'ren 20'an, goizeko zortzi ta erdiak inguruan, Munibe'ko Erramun il da, Peñafloridako konde Jabier eta bere emazte Maria Josefa Arizaga'ren semea, Autortza, Eukaristi eta Azken lgortzako sakramentuak bere buru jaube zala artu ondoren.

Eta nai ta Etxebarria'ko parroki onen menpeko dan Munibe etxe nagusi edo torrean iléarren, gurasoak Xemein'go parrokian dauken illobian sartu nai izan eben, parroki onetako illetaren ordaiñik egin barik, bakar bakarrik peseta bi emonaz gorpua bere etxetik atara eta Markiña'ko uriaren lurrak diranerarte eroanaz. Orretarako esan eben Kalagorriko agintari batek, orain eun urte emondako eskubide bat eukela, etxe orretakoei aukera emonaz Etxebarria'ko abadeak peseta bi orreik kobrateko beste eskubide barik, nai eta jakin eskubide ori asarraldi baten denporan emon izan zala. Eta gaur be abade taldeak bere asarrea agertu dau, urrengo baten kalte geiagorik euki ez dagian, eta asarre ori agertu ondoren diñoen eskubidearen menpetasuna zaindu da.

Ez dau azken nairik (testamenturik) agertu, ondasunik ez daukan familiko semea izan dalako, baiña bai esan eban bere gurasoen borondatean lagaten ebala berari egokion guztia. Gitxi gorabera 23 urte eukazan. Eta onen barri geratu daiten, Etxebarria'ko san Andres deituradun parrokiko abade lez gaur bertan izenpetzen dot.

Don Ramon de Munibe

*"En veinte de junio de mil setecientas setenta y cuatro murió a eso* de *las ocho y media de la mañana del mismo día don Rarnon de Munibe, hijo primogénito de don Jabier Maria Munibe.* Conde de *Peñaflorida* y *doña Maric.:iosef: de Arizaga, su legítima mujer, haviendo recibido los Santos Sacramentos* de *Penitencia, Eucaristía y Extremaunción en su sano juicio. Sin embargo de haber muerto en la casa mayor o Torre de Munibe, perteneciente a esta parroquia' de san Andres de Echevarría, sus padres determinaron enterrarle en la sepultura que tienen en la* Parroquial *de Santa Maria* de *Xerrmeŕn de la villa de Marquina, sin pagar la quarta funeraria al Cabildo* de *esta Parroquia. sino tan solamente dos pesetas por la conducción dei cada* ver

*hasta el territorio de dicha villa de Marquina, para lo quaI manifestaron un Auto de un Provisor de Calahorra, provehido ahora cien años en que les amparaba en la posesión que se hallaban de la libertad de la elección de la sepultura sin que el Cabildo de esta parroquia de San Andres de Echevarria pudiese alegar más derecho que las dichas dos pesetas de la conducción, el quaI Auto fué proveído en rebeldías del mencionado Cabildo de Echevarria. Sin embargo ha protestado el Cabildo de esta para que en tiempo alguno no le venga perjuicio.* Y *bajo esta protesta se ha obedecido en un todo dicho Auto. No testó por ser hijo de familia que no poseía bienes algunos ni hizo legado alguno y dijo tan solamente que todo lo dejaba a la disposición de sus Señores Padres. Su edad era poco más* o *menos de 23 años.* Y *para que conste firmé como Cura de la Parroquia de San Andres de Echevarría. oy el mismo día de mes y año".*

Firmado: Juan Antonio Mogel

Mogel auzitegian

Etxebarria'n parroko zala, Mogel'ek ba eukan, itxura baten, barru estu eta kezkatiduna zan emakume autorlari bat. Ez zan etxebarritarra, elgoibartarra baiño, eta monja antzeko edo "beata" deitzen ziranetakoa zan: Maria Garate lez ezagutua.

Autortzako gauzak lotu egiten dabe autorentzulea, kasu onetan abadea, eta gaitz da jakitea, orrelakoetan bear dan mututasunak sakon lotzen daualako, zabaltzen dan aitzakia egiazko dan ala bekaizkeriz edo gaiztakeriz sortua eta zabaldua dan. Ez dakigu zelako irizpide eta jokabidea erabillan Mogel'ek Maria'ren gogoa zuzendu naian. Baiña gauza au da: Maria Garate orrek salatu egin ebala bere autorlea, Mogel parrokoa, Inkisisiñoiko auzitegira, eta auzitegi aretan agertu eta bere menpean "garbiketa" edo "zuriketa" egin bearra euki ebala, eta orretarako denporaldi bat Logroño'n igaro bear izan ebala, "ameslari" eta "itsukeriz" jokatzen ebillalakoan salatuta.

*(L. Larrañaga, Boletín de la R.S.V. de los Amigos del País, 1969. Actitud del Clero Vasco, ŕdazlanetik laburtua).*

# ETXEBARRIA'KO GIZONAK
## AiTA DOMINGO URROSOLO

Migel Urrosolo'ren seme izan zan.

Ama aragoitarra.

Origaitik berari buruz idatzi dabenak, Kantabria eta Aragoi'ko ospea deituten dautse.

Taumaturgo deitura be emon eutsen, au da, mirari-egillea.

Bere doaiak ikusita il eta laster asi eben oiturazko dan auzia, zoriondun aututeko, Erroma'ko Eleizan ortaz erabagiten daben Saillean, Kongregaziñoian.

Urrosolo fraileak, euskaldun askoren pekatua igarri eban beragan. Bere abizena, apellidua, aldatu egin eutsen, ia igarri barik, eta Ruzzola deitutera eldu.

Frailea bera ez zan jaio Etxebarrian. Aita bai. Esaten danez, aitagaz batera anai asko gertatean, aita etxetik kanpora joan zan eta Calatayud'era aldatu, eta ango eskribadu izatera eldu eta bertako bategaz ezkondu. Ortik Aragoi'ko ospe, len esan dogun lez. Au Calatayud'en jaio zan 1559 urteko Maiatzaren 16'ean.

Mutil berezi lez jaio be. Agin guztiak urtenda eukazala. Origaitik, esaten danez, lotu egiten eutsen aoa amaren bularrik mindu edo ez zulatzeko.

Zaragozan sartu zan fraile, Tortosa'n abadetza artu eta gero Valencia'n bere ikasketak sakondur

Mutil ederra zala esaten da, eta zirikaldi gogorrak euki zitula emakumeen aldetik, errez maite mintzen ziralako beragaz.

lragarle (profeta) entzutea euki eban. "Armada invencible" zalakoa lnglaterra'rako gertu zanean, Erregiñari esan eutsan ondatua izango zala, galtzaille gertatuko zala. Eta alaxe jazo be.

Bere otoitzen bidez, legorte baten, euria lortu eban; andre itsu bateri ikusmena biurtu jakon eta ainbat orrelako mirari bereganatzen eutsezan.

Geroago Madrid eta Barzelona'n ibili zan.

Valencia'ko konbentuko nagusi aukeratu eben; geroago Toledo'ko. Baiña barruko biziaren maitale zalako, uri andietako zarata eta nastetatik igesi, Bolarke'ko eremura (desertura) aldatzea eskatu eta lortu eban.

Gero Aita Santuak karmeldar oiñutsen ordezkari izentatu eban.

Barzelona'tik Italia'ra urteteko zala, erritarrak ez eutsen itxi nai

joaten. Eta errege ordekoak lagunduta, eskutuan itxasoratzea lortu eban.

Jesus'en Teresa il zanean, zoriondu eta santututeko lanetan alegin andia ipini eban, eta bere bizkaitar odola gogoratuaz, Bizkai'ko Batzar Nagusiak, andre andi aren deuntasuna eskatzera adoretu zitun.

Bere Ordenak agintzen eutsazan kargurik andienak apaltasunez artu eta ondo beteten alegindu zan. Orrela ltali, Frantzi eta Alemani'n ibili zan konbentu barriak sortzen.

Erroma'n, Aita Santuak, ateak zabalik eukazan beretzako. Origaitik Borghese kardenalak esaten ekian, Paul V Aita Santuagandik iñok ezer nai ba eban, ez eukala besterik Aita Urrosologana joatea baiño.

Alemania'ko gerran benetako indarra agertu eban ango nagusiekaz eta bere aolkuak onartzen eutsezan. Eta garaitza lortu eben. Kontu egin, erlegiño aldezko gerra deitzen zan au 1618 urtean asia zala eta 1648'n amaitu zala.

1621 urtean Paulo V Aita Santua il zan eta XV garren Gergorio aukeratu. Onek Alemanian jarraitzeko eskatu eutsan. Gero Be-aldeko errialdetara aldatu zan. Andik Frantziara, Luis XlIl gana. Beti garai aretan katolikotasunaren aurka asiak ziran dotriña barrien zabalkundeak eragotsi nairik.

Alako baten biurtu zan Erroma'ra. Aita Santu batek baiño geiagok Kardenal izentatu nai izan eben. Aita Domingo ukatu egiten zan orretarar Beste batzuk, XV garren Gergorio'k lez, bere autorletzat aukeratu eben.

Urrosolo'ren bizitza arrigarri ikusten da. Ainbat errietako agintariekin gerra eta beste nastetan sartuta ibiliarren, ainbat idatzi "mistiku" egin zitun: Ondo ilteko, santutasun bizitzako argibiderako, Salmoen gaiak, Teologiaren Mistika eta abar.

Gergorio XV'k, il zorian aurkitu zanean, bere alboan euki nai izan eban. Aita santu au il eta barria aukeratzeko Konklabean, batzarrean, bost boto euki zitun Urrosolo'k A¡ta Santu lez aukeratzeko.

Barriro Viena'ra bialtzen dabe ango Enperadorearen eskabidez. Eta au an il zanean, Enperadorearen korte guztia batu zan bere illetetan.

Il ondoren, zoriontsu, beato izentatzeko auzia bereala zabaldu zan, Viena, Frisinghen eta Malina'n asitako agerbideen bidez. Eta laster lortuko zan, Vlll garren Urbano'k aurrez agindu bat emonda euki ez ba leu, santutasun auzietan, il eta ondorengo berrogeitamar urte igaro barik ez asteko agintzenr

Orrelako ospe, entzute eta birtutez bizi izan zan Etxebarria'ko seme baten seme au.

Eta ba dakigu oraindik be ba dabiltzala eleiz jakintsuak, gizon miragarri aren bizitzaz arduratuta.

Esan bearreko da ainbat liburu agertu zirala bere bizitzari buruz España, ltalia, Frantzia, Austria, Txekoeslovakia eta abarretan.

Etxebarria'k ba dauka, bertako odoleko onetan, zetan poztu eta arrotu.

Jatorriz bizkaitarra danari ezin ukatu ba leikio bizkaitar deiturari k, jatorriz Etxebarritarra danari, iñok ezin ukatu etxebarriatar deiturarik. Orrelako Aita Domingo Urrosolo.

**MAÑOZKA, JOSE**

Ez daukagu onen barri andirikr

Juan Delmas'ek, XlX garren gizaldian idatzi eban "Biografía Universal de Claros Varones de Vizcaya'n labur-labur au diño bera dala-ta:

Mañozka, Jose de Santa Mathia: Markina-Etxebarria'n jaio zala, Cuba'ko gotzain izan zala, inditarrak baitu ebela eta gero martiri il zala 1674 urtean.

*Oarra. (Oneri buruz Iturriza'k bere "Historia"n, Lenengo liburuko 280 orrialdean, 64 zenbakidun oar bat ipinten dau esanez: "Guatemala'ra aldatu eta an il zan 1675'ko otsaila'ren 13'an. Fidel Fita).*

**MAÑOZKA, JUAN**

Delmas'ek Bizkai'ko gizon andien arteko liburuan, au diño:

Domingo Zamora eta Katalina Mañozka'ren semea.

Salamanca'n ikasi, Araudietan (Kanonetan) gaitu eta bere argitasun eta duintasun entzutea bereala zabaldu zirala.

Felipe lII'garrenak lndietako Cartajena'n Inkisisiñoko Auzitegia sortu nai izan ebanean, bera aukeratu eban lenengo lnkisidoretzako, nai ta berak orretarako gogorik agertu ez. Orrela sortu eban an auzitegi ori. Andik Lima'ra bialdu eben, Quito'ko auzitegia be ikertzeko baimenagaz.

1636 urtean Erregeak lnkisisiñoko Auzitegirik gorenerako izentatu eban.

1642 urtean Granada'ko Txanzilleriko lendakaritza emon *eutsan* eta urte bete geroago, Mexiko'ko gongotzai (artzobispo) izateko aurkeztu eban.

1651 urtean Mexiko'ko irugarren artzobispo lez ezagutzen da. Bertan il zan.

**MARKINA, Gonzalo (bañez**

Onen fitxa be Delmas'ek emoten dausku, gorago esandako liburuan.

Munibe eta Bidarte etxeen artean, Errialde onetako merinoa biziten zan etxean jaio zala, Etxebarria'n.

Etxe oneri su emon eta deseginda itxi eban 1460 garren urtean Juan Lopez Gamboa'k, bere inguruan egon zan gudaketa baten ondorenez. Gudaketa orretan il zan Gonzalo au, bere seme bi eta ainbat lagun bere alde ebiltzanak. Ortutik etxea beratuta geratu zan, iñok ez eban jaso nai izan, bere jatorria galdu zan eta sortua izan zan tokia be.

*Oarra. Oneri buruz gogoratu Lope Garcia Salazar'ek 1370 urtea esaten dauala).*



**BURDIÑA, EGURRA TA ARRIA, OR EUSKALERRIA**

# MANUEL VALENTIN ZUBIZARRETA

Aita Higinio Gandarias lbaibarriaga'k, "Luz y Amor" deitureagaz liburu bat argitaratu eban 1986 urtean Gasteiz'en.

Manuel Valentin Zubizarreta eta unamunzaga oneri buruz.

Bertatik jasoten doguz zeaztasun eta irizpide batzuk etxebarritar gizon ospetsu izan zan oneri buruz.

Arnoriaga baserrian jaio zan, 1862'ko Azilla'ren 2'an, eta orduko oiturei jarraituz biaramonean bateatu eben Ander deunaren parrokian.

Gurasoak: Jose Felipe Zubizarreta Solozabal, etxebarritarra eta Brigida Unamunzaga Amillategi, bariñagatarra.

Bost anai izan ziran; Jose, Juan Agustin, Maria Josefa, Manuel Valentin eta Juana Casimira.

Baserri ona, bere jaiotetxea. Osasunez eta ondasunez. Frantzetarren denporan zerga andia ipini eutsen, baserri aberatsa zalako. Alaz eta..r Valentin'en anai Juan Agustin zan baserriagaz geratu zana. Oneri bere seme Asentzio'k. Au Elgoibartar bategaz ezkondu zan, eta seme bat euki eben. Baiña emazteak Elgoibar erabillan biotz eta ametsetan eta ara aldatu ziran, eta baserria alokatu. Urte batzuk dirala, baserria uztu zan eta orain utsik dago eta zatika jausten.

Valentin umetatik asi zan eleiz zaletasunez. Larrea'n egin eban, karmeldar ordenarako nobiziadutza, Burgos'en filosofia ikasi, Teolojia Markiña'n eta Gasteiz'en abadetu, 1886 urteko Abenduaren 19'an.

Gero konbentuetako irakasle ta Ordenako ikerlari. Nagusi Gasteiz'en.

1899'en Txile'ko karmeldarren nagusi orde.

Ondoren Camagüey (Cuba)'ko karmeldarren ikerlari aukeratu eben eta 1914 urtean errialde onetako gotzain. 1916 urtean Cienfuegos'ko gotzain eta 1924'n Cuba'ko Santiago'ko artzobispo.

Liburu zale eta liburu idazle sutsua izan zan Aita Valentin, batez be Teolojigaietakoak.

Alegin biziak egin zitun Cuba'rako bertako seme ziran abadeak lortu al izateko, ortarako Abadegaien ikastetxea sortu eta bertan gazteak gertuten.

Ainbat eleiz barri zabaldu zitun bere agindupeko eleiz-barrutietan. Baztertu eta ezeukientzako egoitzak be bai.

Larogei ta sei urte beteta be, oraindik adorea euki eban eten

barik bere zeregiñetan jarduteko, edozein ordu eta edozein lurraldetara joanaz, eta orrelako ostera baten gaixotu zan eta egun gitxi barru il zan, 1948 urteko Otsaillaren 20'an.

Berrogei milla lagun baiño geiago joan ziran bere illetetara.

Gotzain on, eskuzabal, laguntzaille eta maitekorra izan zan Aita Zubizarreta eta bere bizi guztia kubatarren aldeko maitasun eskintza izan zan.

Il ondoko egunkarietan irakurri al izan zan: Gure gotzain agurgarria txiro, beartsu il da, bizi zan antzerar

Kubatar guztiak, ezker nai eskumatarrak, bere eriotzeak minduta itxi zitunr

Cuba'ko Santiago'ko ziñegotzi (kontzejalak) komunistak be euren maitasuna agertu nai izan eutsen eta koroe andi bat bialdu eben bere illetara, Artzobispo eredu eta ezagutu eben guztiak maitatua izan zalako.

Bere illetako itzaldian beste gotzain batek au esan eban: Soiñen edertasun eta indarragaz batera, arimaren sendotasuna zaintzen dakian kristiñau zintzo dan erri zar baten jaioa zala.



**ARKOTXA ZAR**

# MADARIAGA BARTOLOME
# 1768 - 1835

Frailea.

Markiña'ko konbentutik, bere sermoietan inguru guztian ibili eta ezaguna.

Karmelo Etxenagusia jaunak, bere "Euskal ldazleen Lorategia"n, (Derio, 1965) diño:

Etxebarria'ko San Andres'koa, karmeldar sermolariar Lan bi itxi dauskuz euskeraz: 1.—"lkasikizunak" (3 liburu, agindu eta sakramentuei buruz).

2.—"Euskal Errijetako olgeeta da dantzen neurrizko gatz-ozpinduak" euskal dantzen zillegitasun auzia aztertzen. Bere izketa aberatsa da, esateko lez aberatsegia (Villasante). Bere idazkera berezko eta zabala da... "Orixe"k "batez be nire idazle zar kutun" deituten dautso.

Aita Bartolome nor zan, zeatz-meatz, Mikel Zarate'k erakusten dau, bere "Bizkai'ko Euskal lkasleak" liburuan.

**Nor zan**

"Markiñako euskerea esaten jakona, gipuzkoarrenaz nastauta egon arren, garbia, lotsazkoa ta ederto oguzia edo ebagia beti izan da. Bizkaian Markiña aldekoa ta Gipuzkoan Tolosa aldekoa dira entzuterik geien daukenak. Markiñakoa bestearen aldean sendoa da, errotsua, mendi mutilla lakoxe azkarra. Tolosakoa biguna, udabarriko aizea langoxe ots eztiduna, eguzki epeletan ta sutondoan azi edo iñuturiko umea legezko azal-zuria. Markiñakoa arra da, Tolosakoa emea; ta mutil zarra ta neska zarra izateko jaioak ezpalitzaz, bien ezkontzatik sorturiko seiña edo aurra, munduan ez dagon lakoxe berbeta edo izketea izango litzake" (1).

"Bizkaian Markiña aldekoa...". Euskera jator eta ederraren iturria da Markiña aldea. Eta, zorionez, euskal-idazle askoren sorlekua bere izan da.

Markiña aldeko erri batenr Etxebarrian, jaio zan Madariaga Bartolome bere.

Mutil kozkorra zala, Markiñako karmeldarren komentura joan zan. Eta Lazkanon, Panplonan eta Tudelan egin ebazan abade-ikasketak.

(1) Azkue R. M.

Meza barria emon ondoren, oraindiño gaztea zala, sermolari izateko izentau eben bere nagusiak. Eta or doa gure "Aita Prai Bartolome Santa Teresa" Euskalerrian zear, kristiñau-fedea sendotu ta zabaltzen, euskaldunak ezagutu ta onbideratzen.

Eta entzute andiko sermolari egiten da; erririk geienetan ezagutzen dabe Aita Bartolome.

Eta erririk-erri sermoagiñen diardula, abadeak euskal-liburu barik dagozala konturatzen da ta liburu bat idatziteko asmoa artzen dau.

"lkusirik, irakurlea, zareana zareala, ez daukazula zeure euskeran pulpituan esateko zer irakurrik, entero gitxi baiño, gogoratu jatan kristiñauaren ERAKUTSlKO lau zatiak pulpituti esateko edo prediketako ikasikizunetan imini bear nituala. Adiskide askok aurreratu nabe sail oni ekitera. Esaten eben txito asmo ona zala. Eta onera jakinekoa euskal-errietako Kura jaun ta eleiza gizonentzat" (2).

Arrezkero, sermoagiñen eta idazten diardu Aita Bartolome arduratsuak.

Baña, alako baten, frantzesak datoz Markiñara. lzan bere, España ta Frantziaren arteko Askatasun-gerratean gagoz.

Frantzesak bota egiten dabez komentutik ango fraile guztiak. Eta aurrean darabillezr Eta, batez bere, Aita Bartolomeri iñon direanak egiten deutsez. Esku-lotu ta Bilbora daroe, eta juizio antzerako bat egin ondoren, bere jaioterrira dakarre ta parrokuaren menpean izten dabe, sermoiak egitea ta konfesetea galazota (3)r

Orrexegaitik, andik urteetara bere, gogoan ditu frantzesak. "Nor oian sartu da igaro direan urteetan, prantzesen bildurrak ikara eragin bagarik? Nok ames egin dau beste gauzarik? Nor geratu da negargarri bagarik" (4)r

Baiña egunak joan, egunak etorri, estu ta larri ibilli ondoren, gerratea bere amaitu zan. Eta 1813-an. Markiñako komentura joan zan barriro Aita Bartolome.

Leenengotan, bakarrik egon zan. Gero, beste fraile-lagun batzuk bere etorri jakozan. Eta, leenengo leenengo, komentua garbitu ta konpondu egin eben.

1818-garren urtean. Aita Bartolome egin eben komentuko Nagusi.

Gerorantza bere, bein baiño geiagotan izan zan Nagusi. Eta

(2) "Jaungoikoaren amar aginduetako lenengo bosteen ikasikizunak, itzaurrean.

(3) Berak diñonez, ondo eta pozik egon el zan parrokuaren menpean.

(4) Jaungoikoaren amar aginduetako azkeneko bosteen ikasikizunak, 53-garren orialdean.

ainbeste ta ainbeste sermoi ta idazlan eder egin ondoren, Burgos aldean il zan gure Aita Bartolome odolgarri gartsua.

Gizon jatorra ta gogorra izan zan. Borborka ura darion iturria dirudin etorri oneko sermolari ospetsua: euskal-idazle sakon, argi ta jatorra.

Ara emen Fray Bartolome'ren liburu baten lenengo orriaren irudi bardiña:

EUSCAL - ERRIJETACO

OLGUEETA, TA DANTZEEN

NEURRIZCO- GATZ-OZPINDUBA

*AITA PRAI BARTOLOME*

SANTA TERESA,

MARQUINACO CARMEN

ORTOZECO

*PREDICADORIAC PRESTAUBA,*

Y
IRUÑEAN. JOAQUIN DOMINGO
Nausiiaren , eta Gaztiaren
Liburuguillaau.

Biar dan ondo izatiagaz.
i z 6 urtian.

## Nun il zan Aita Bartolome?

Mikel Zarate'k, goratxuago irakurri dogun lez, Burgos aldean il zala esaten dau.

Ba dakigu aldi aretan karmeldarren erakundea gaur baiño zabalago zala lurretan eta emengoak ba eukela Burgos aldean euren eragiña.

Ortik etorriko da M. Zarate'ren ustea, inguru oneitan bere amairik ez aurkitzean.

Orrez gaiñera ba eukezan Aita karmeldarrak gaur erabilten ez dituen beste konbentu batzuk be.

Orreitako bat Lazkao'n gaur beneditarrak dauken etxea izan zan.

Guk alegiñak egin doguz Aita Bartolome ospetsua nun il ete zan jakiten eta Aita Honorio Gandarias'engandik lortu dogu, San Joakin deiturako karmeldarren erakundekoak Gasteiz'en dauken etxe nagusitik eta an gordeten diran konbentu zarretako artxibutatik, orren aztarrena ataratea. Ain zuzen be Lazkao'ko konbentuko illen liburuetan agertzen da Aita Bartolome'ren eriotz agiria eta emen agertzen dogu kopia ori.

Bertan oartu leike "era natural de la Villa de Marquina" ren ondoren, kurutze txiki adierazgarri bat marratu eta "Echevarria" geitzen dala. Ziurretik Markina eta Etxebarria bereiztuten ekien borondate onekon batek geitua.

Guk artu dogun lez sartzen dogu kopia ori.

# IBARZABAL ETA OLABE'TAR JUAN PEDRO, "PERU" (1830-1899)

"Etxebarri'n probalari eta jokolariak ugari izan dira. Baiña bertsolaririk izan danik, bat baiño ez dakigu. Bertsolaria ezezik, probalaria be ba-zan.

Gizon ori Juan Pedro lbarzabal izan zan, Landibar'ko Ramon eta Perune'ko aitaita zana".

Esan dogunez, Juan Pedro (Bizkai'ko) Etxebarria'n jaio zan, izen bereko baserrian 1830'ko otsaillaren 19'an eta bost anai-arreba izan zituan: Juan Jose, Jose Martin, Maria Josefa Martina, lñazio Maria ta Domingo Antonio.

Bai bere gurasoak (lbarzabal eta Goinetxea'tar Jose Frantzizko eta Olabe ta Aldazabal'dar Maria Teresa), baita bere aitaren aldeko aitaita-amamak be (Ibarzabal'dar Eusebio eta Goienetxea'tar Josepa), Etxebarria'koak ziran; baiña ez, ostera, bere amaren aldeko aitaita-amamak: izan be, Olabe'tar Juan Markiña'koa zan eta Aldazabal'dar Teresa Berriatua'koa.

"Alde guztietan Peru esaten eutsoen. Juan Pedro orren entzutea zaarren artean oraintsu arte izan da, bere sasoian gizon ospetsua izan zanez".

Izan be, bera jaio zan baserriaren izena aldatzeragiñoko ospetsua izan zan bere izena ta entzutea, ain zuzen be, bere alditik aurrerantzean, erritarrak naiz kanpotarrak "peru" esaten dautsoe baserriari: "Peru'ren baserria", "perunekoak"... sarri-sarri entzuten diran esakerak dira.

1877'ko urtarrillaren 27'an (ia-ia 47 urte zituala) Etxebarria'n ezkondu zan Berriatua'ko Amallobieta eta Plaza'tar Erromualdagaz; ezkontza onen frutua sei seme-alaba izan ziran, iru gizonezko ta beste iru andrazko: Jose Ramon, Maria Antonia, Juan Maria, Jose Manuel, Josefa Zoila, eta Lorentza.

Asieran esan dogunez, "Peru" bertsolaria izan zan, baiña bere "bertso-paperak" ez dira agertzen iñun. Ba-dakigu Markiña'ko jaietako bertsolari sariketan parte artu ebana eta 320 errealeko lenengo saria Pello Errota'gaz erdibanatu ebana. "Andik urte batzuetara Gernika'n be egiñen eban bertsotan Peru'k. Orduan be Pello Errota ba-zan. Peru'k ontza urrea ekarri eban" (1).

Bertsolari lez ospetsua izan ba'zan, probalari lez ez zan gitxiago izan: "Probetan be errimea zan Peru. Orduko sasoian Unamun-

tzaga'n probalari gogor bat zan. Aiztarrekin bat eginda, Peru'ren aurka lau egin zituan eta guztietan Peru'k irabazi. Ordukoak dira bertso oneik:

*Lau proba jokatu*
*ta laurak irabazi!*
*Erreka onetan ez dok*
*onangorik azi!*

Baiña Peru'ri alako baten galtzea be suertau jakon. Bere beiak Tiruli eta Parda ziran, pasiegoak, aundiak eta gangarrak. Eta berari be bertsoak bota eutsoezan:

*Tiruli eta Parda,*
*biak montañesak!*
*Oiek indarrean sartzen,*
*ez ditu errezak!*

lbarzabal'dar Juan Pedro "Peru" Etxebarria'n il zan 1899'ko maiatzaren 6'an.

("Antxiñako Gizonak": "Gure Errian"n, 296 alean).



# ETXEEN AGERPENAK
# 1704-1825 bitartean

Gernika'ko Batzar Etxeko Artxiboan, etxeen zerrendak, "fogeraziñoiak" len deitzen ziran lez 1704 urtean asten dira.

Geroago 1745/46'en egin zan beste bat.

Ondoren 1796 urtean.

Etxeen egoera jakiteko, ba doguz baita be 1814, 1823 eta 1825 urtetako zerrendak.

Origaitik Etxebarriko etxeen zerrenda 1704 urtean asten dogu. Orrek ez dau esan nai aurretik etxe oneik ez egozanik. lñoiz batu doguzanean, etxe bakoitzaren fitxan adieraziko dogu. Bestela, Bai-Ez batekin agertuko dogu esandako urteetan etxe bakoitza agertzen dan edo ez.

| | 1704 | 1745/6 | 1796 | 1814 | 1823 | 1825 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| ALZAA AUZOA | | | | | | |
| Agarrebenta | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Alzaa | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Amoroto | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Ansotegi | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Antxia | Bai | Bai | Ba¡ | Baí | Bai | Bai |
| Alaba | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Arkotxa barri | Ez | Ez | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Arkotxa nausi | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Atotea | Ez | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Baraibar bekoa | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Belarroa | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Beodia | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Errotabarria | Ez | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| lturriaga | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Makotegi | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Manuzkoa | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Monterrey | Ez | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Munibe | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Munibe txiki | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Munibe torretxua | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Okoroki | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Sabarminaga | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |

| | 1704 | 1745/6 | 1796 | 1814 | 1823 | 1825 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Txoribenta | Ez | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Zulueta andi | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Zulueta txiki | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |

**AULESTI AUZOA**

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Aldazko bekoa | Ez | Ez | | | | |
| Aldazko goikoa | Ez | Ez | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Aldazko retolaza | Bai | Ez | Bai | Bai | Bai | Ez |
| Alzola | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Anduiza | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Ardiden | Ez | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Arregilondo | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Anoriaga | Bai | Ez | Bai | Bai | Bai | Ez |
| Arritoin | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Azorin | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Azorin zabal | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Aulestia | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Aulestiarte | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Belaotz | Bai | Ez | Ez | Bai | Bai | Bai |
| Bideazpikoa aulesti | Bai | Ez | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Bideazpikoa erdiko | Bai | Ez | Ez | Bai | Bai | Ez |
| Bideazpiko ramonena | Ez | Ez | Bai | Bai | Bai | Ez |
| Bizkarra andi (Nagusi) | Bai | Ez | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Bizkarra txiki (Casilla) | Ez | Ez | Bai | Bai | Bai | Ez |
| Etxebarria | Ez | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Kallejakua | Ez | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Egierrea | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Ez |
| Eleiz burukoa | Bai | Bai | Ez | Bai | Bai | Bai |
| Elordi | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Gandiaga | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Ibarguen beko | Ez | Ez | Bai | Bai | Bai | Ez |
| Ibarguen txiki | Ez | Ez | Bai | Bai | Bai | Ez |
| **Ibarrolaza** | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Imitola | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Izillarte izitarte | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Ibarluzea andi | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Kortabeartia Goitia | Ez | Ez | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Korru barria (Korrubarrena) | Ez | Ez | Bai | Bai | Bai | Bai |

| | 1704 | 1745/6 | 1796 | 1814 | 1823 | 1825 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Kalea | Ez | Ez | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Laubarin | Ez | Ez | Bai | Bai | Bai | Ez |
| Mandioca | Bai | Ba¡ | Bai | Bai | Bai | Ez |
| Ormaetxea | Ez | Ez | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Tomasenekua | Ez | Bai | Bai | Ez | Ez | Ez |
| Zelaikua | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Ez |
| Goikoetxebarria | Ez | Ez | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Jauregi Torrea | Bai | Ez | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Sakristaunekua | Ez | Ez | Bai | Ez | Ez | Ez |
| Atabalderukua | Ez | Ez | Bai | Ez | Ez | Ez |
| Bentaetxe taberna | Ez | Ez | Bai | Ez | Ez | Ez |
| Dendarikua | Ez | Ez | Bai | Bai | Bai | Bai |

**GALARZA AUZOA**

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Andorriaga | Bai | Ba¡ | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Andikara | Ez | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Andrinua beko | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Andrinua goiko | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Ba¡ |
| Arostegi andi | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Arostegi txiki | Ez | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Barinagarementeria | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Barrenetxea | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Ba¡ |
| Basabe | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Bereikua | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Bustindegi | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Elua | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Eskutasolo | Ba¡ | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Galarza | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Ibaiguren goikua | Ba¡ | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Ibaiguren bekua | Bai | Bai | Ez | Ez | Ez | Ez |
| Ibaiguren | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Ibarra | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Iramategi | Ez | Ez | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Iriguen goena | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Iriguen bena | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Iriguen aldekua | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Iturraran | Ez | Ez | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Iturreta Agirre | Bai | Ba¡ | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Lausagarreta | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |

| | 1704 | 1745/6 | 1796 | 1814 | 1823 | 1825 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Lobiano Barrena | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Lobiano errota | Bai | Ba¡ | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Maguregi | Bai | Bai | BAi | Bai | Bai | Bai |
| Ubegia | Ez | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Obegi sakona | Ez | Bai | Bai | Ez | Ez | Ez |
| Otxandegi | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Santa kutz | Ez | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Ugarteburu | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Urbieta | Bai | Ba¡ | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Urtao | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Urrosolo adanietxea | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Urrosolo | Ez | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Urrosolo andi | Bai | Bai | Ez | Bai | Bai | Ez |
| Zabala | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |

**UNAMUNZAGA AUZOA**

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Agirre bekua | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Agirre goikua | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Agirre sarasua | Ez | Ez | Ez | Bai | Bai | Ez |
| Alzibar | Ez | Ez | Bai | Bai | Bai | Ez |
| Arejita bekoa | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Arejita goikoa | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Arejita zuria | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Arejita etxetsua | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Arenaza | Ez | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Aretxuluaga | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Azarrolaza | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Azarrolaza etxetxua | Bai | Bai | Ez | Ez | Bai | Ez |
| Balzola andi | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Balzola txiki | Ez | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Eguzkitza | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Errementarikua | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Garro andi | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Garro txiki | Ez | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Lejardi | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Lopeneko | Ez | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Mangutegi | Bai | Ez | Ez | Bai | Bai | Bai |
| Orizala andi | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Orizala txiki | Ez | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |

| | 1704 | 1745/6 | 1796 | 1814 | 1823 | 1825 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Orizano | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Osolo | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Sarazibar beko | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Sarazibar errota | Ez | Ez | Ez | Ez | Bai | Ez |
| Sarazibar goiko | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Saratsu barri | Ez | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Saratsu zarra | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Saratsu erdiko | Ez | Ez | Bai | Bai | Ez | Ez |
| Unamunzaga nagusi | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Unamunzaga txiki | Ez | Bai | Ez | Ez | Bai | Bai |
| Urkaregi | Ez | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Urkidi | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Urzulo | Ez | Ez | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Zelaieta | Ez | Ez | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Zugazti andi | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |
| Zugazti goiko | Ez | Bai | Bai | Bai | Bai | Bai |



**ERREMARA ARRIA**

# ETXEAK AUZOZ AUZO

**ALZAA**
**AULESTIA**
**GALARTZA**
**eta**
**UNAMUNZAGA**

auzoetan sailkatuta,
lengo denporetan agertzen ziran lez,
eta bakoitzaren agerpide batzuk.

# ALZAA AUZOA

## AGERRE

Etxe onen izena ba dago 1542 urtean parrokiari bere amarrenak eskintzen dautsezanen artean. (Labairu, Historia de Bizcaya, IV, 227).

1704 urteko erroltzean "La casa de Agirre de Yusso de Madalena Agirre, irakurten da. "Foguera" erdikotzat egoan.

1745/6'eko zerrendan, Peñaflorida'ko kondea jaube eta Juan Azkarza, errenteru lez agertzen dira.

1795/96 urtetan, bardin.

1814 urtean Madalena Agirre agertzen da jaube eta bertan *bizi* zan.

1823 urtean, errirako zergak ordaintzeko, 644 errialeko irabazien oiñarria ipinten eutsen.

1825'ko erroltzean amaika lagun agertzen dira bertako bizilagun lez. Aita zarra, alarguna. Senar emazte gazteak, ondoren barik. Beste senar emazte gazteak, lau seme alabekaz eta emaztearen anai bi.

1988 urtean Arrieta-Gandiaga sendia bizi da eta seme alaba bi bizi dira eurekin. Jaubetasuna Maria Gandiaga'ren izenean dago. 12 hektarea.

## ALZAA

1542.—Parrokiari bere amarrenak eskintzen dautsezanen zerrendan agertzen da.

1704.—Urte onetako zentzoan Bartolome Alzaa agertzen da jaube lez.

1745/6.—Urtekoan, izen berbera.

1795/6.—Franzisko Antonio Alzaa agertzen da jaubetzat.

1814.—Errenterua bizi dala esaten da.

1823.—Erriko zergak ordaindu al izateko, etxe oneri 1.178 errialeko sarrera ipinten dautse, ordain bearra aren neurrian zeaztuteko.

1825.—6 lagun bizi ziran bertan. Ama alarguna, senar emazteak eta iru seme.
1988.—Utsik dago. Jaubetasuna Barrenetxe kooperatibaren izenean dago.
4,5 hektarea

## AMOROTO

1704.—Pedro Amoroto zan jaubea eta bertan bizi zan. Foguera erditzako etxe lez egoan.
1745/6.—Jose Amoroto agertzen da jaube lez.
1795/6.—Juan ldoeta agertzen da jaube.
1814.—Errenteru bat bizi zan bertan.
1823.—Udaleko zergak ordaintzeko egiten zan banaketarako, 329 errialeko irabazien oiñarria izentatu eutsen.
1988.—Utsik dago.
Jaube lez Fermin Maguregi Alberdi agertzen da.
2,5 hektarea daukaz. 7 bei eta 20 txal dagoz bertan.

## ANSOTEGI

lzen onetan burdiñola, errota, etxea eta Torrea sartzen dira.
1413 urtean, burdiñola agertzen da Ziarrotza'ko Kolejiata'ren eleizari diru laguntza eskintzen. (lkusi liburu onetan Burdiñolak izenpuruko sailla).
1542 Bere amarrenen erdia parrokiari emoten irakurten da, etxe au.
1704 Andres eta lñazio Ansotegi agertzen ziran jaube.
1745/46 urtetan bardin, eta errenteru lez Jose Soloaga.
1795/6 urtetan Benito Ansotegi da jaube eta errenterua daukar
1823 Udaleko zerga batzetarako, 1.003 errialeko oiñarria ipini eutsen.
1988 urtean, Rikardo Aginaga eta Felisa Eizagirre errenteruak bizi dira.
Jaubetasuna Natal Ruiloba Doubling'en izenean dago.
Miami'n bizi da.
Errota be kontatuta, 17 hektarea daukaz.
7 bei, 5 txal, asto bat eta zaldi bat daukez bertakoak.

**Errota eta Burdiñola**

1746 urtean, Nikolas Amutxastegi zan errotari.
Etxe ondoan zubi polita dago, baiña gaur naastua.
1988 Jose Elordi Arakistain bizi da errenteru lez.
Ogei urte inguru dira errota azkenengoz erabili zala.
Jaubea Natal Ruiloba.
Ansotegi ingurune au, lurrez Etxebarria ba da be, eleizaz Xemein'go parrokian sartzen dira.
Armarria (eskudoa) dauke.

## ANTXIA

1413 Ba dirudi urte onetan burdiñola bat egon zala. Ziarrotza'ko Kolejiata'ko paperetan, Ansotegi'ko eskintza bat agertzean..., "entre las ferrerías de Anchia e la casa de Basaybar" esaten da.
1704 Urte onetako e:roltzean au irakurten da: "La casa de Anchia, que posee san Juan de Bergara, vive Joakin Urresti, 1/2 foguera".
1745/6 Jaubea Andres lñazio Ansotegi. Errenteru Pedro Amoroto.
1795/6 Jaubea Benito Ansotegi.
1814 Errenterua bizi dala esaten da.
1823 Erriko zergak ordaintzeko bere sarreren oiñarri lez 329 errial izentatu eutsezan.
1898 Kuba'ko gerratea bitarte, Ansotegitarrak etxe au saldu bearra euki eben.
1988 Etxe bizitza bitan banatuta dago.
Baten Rafael Armolea eta Juanita Bereziartua senar emazteak bizi dira euren seme lker'egaz. Eurena da jaubetasuna.
3 bei, 3 txal, beor 1, oillo eta usoak daukez.
Beste etxean Jabier Armaolea eta lsabel Pagegi bizi dira, Joana eta Maria alabekaz.

1557 urtean, Ziarrotza'ko Kolejiatak beragaz ordainketak egiteko ze ikusi euken etxeen zerrenda bat agertu eban eta orreitakoen artean Antxia etxe onen izena be irakurten da.

**ALABA = (ARABA)**

1704 urteko erroltzean, Markiña'ko Mersedeko monjak agertzen dira etxe onetako jaube lez, eta Maria Mañozka errenteru lez.

1745/6 eta 1795/6 urtetan be jaubetasun bardiña agertzen da. (Foguera erditzakotzat ordaintzen eban)

1823 urtean, erriko zergak ordaindu al izateko egiten zan banaketan, 117 errialeko sarrera izentatu eutsen, oiñarri lez.

1825 urtean, 6 lagun bizi ziran, senar emazteak eta 4 seme alaba

1988 Joakin Alzibar 87 urtekoa bizi da bertan. Bai eta M.a Jose Aretxabaleta (bera agertzen da jaube *lez), Jesus* Alzibar, Adoración Aranzeta eta Alain Alzibar.

3.5 hektarea.

4 bei, 4 txal, asto bat eta oilloak daukez.

**ARKOTXA BARRI**

Ez da agertzen etxe onen azterrenik ez 1704, ez 1745/46'eko erroltzetan.

1795 urtean Martin Arrate agertzen da jaube lez.

1814 urtean berbera bizi da.

1823 urtean, erriko zergak ordaintzeko egin zan zerredan, 233 errialeko sarrera izentatu eutsen oiñarrizkotzat.

1825 urtean senar-emazte zarrak, senar-emazte gazteak eta zarren seme ta alaba ezkongaiak bizi ziran.

1988 urtean, ez da iñor bizi.

Jaubea Pedro Mari Olabarri.

**ARKOTXA NAGUSIA**

1542 Eleizari bere amarrenak emoten eutsezan etxeen artean, Arkotxa-Agirre agertzen da.

1704 urteko erroltzean, Domingo Arkotxa agertzen da jaube lez.

1745/6 urtetakoan, Tomas Arkotxa.

1795/6 koetan, Domingo Pagoegi.
1814 urtekoan esaten da bere jaubea bizi dala bertan.
1823 urtean, 467 erria) zeaztu eutsezan bere irabazien oiñarritzak, erriko zergetarako neurri orreri egokienaz ordaintzeko.
1825 urtean lau lagun bizi ziran, senar emazte eta suin-erraiñak.
1988 1970 ezkeroztik utsik dago. Jose Urbieta Bilbao'ren izenean dagoz jaubetasun eskriturak.
9,5 hektarea.

## ATOTEA

1704 Urte onetako erroltzean ez da agertzen.
1745/6 Barroeta, abade kapillauari dagokiona da. Errenteru lez l. Lejardi bizi da bertan.
1795/6 Jaubetasun bardiña ezagutzen da.
1814 urteko erroltzan, errenterua bizi dala esaten da.
1823 urtekoan, 362 errialeko irabazi-oiñarria izentatu eutsen, neurri orreri buruz erri-banaketetan ordaindu bear izateko.
1988 Esteban Arrieta Txurruka agertzen da jaube lez.
Bera eta Dominga Txurruka emaztea bizi dira, eta euren seme alaba Alberto eta Pakita eta onen emazte Jabier eta Josu euron semea.
10 Hektarea daukaz.
9 bei, 9 txal, eta oilloak daukez.

## BARAIBAR

Lurrez Etxebarria. Eleizaz Xemein-Markina'ko parrokiaren menpeko.
1413 urtean, Ziarrotza'ko Kolejiata'ko paperetan, Ansotegikoen itun batean, ..."entre las ferrerías de Anchia e la casa e casería de Basaybar" esaten da.
Beraz, orduan Basaybar deitzen eutsen. Geroago Basibar Azpikoa be deitu izan da. Bai eta Baraibar bekua be.

1542 urteko zerrenda baten, eleizari amarrenak emoten eutsezanen tartean, Basaibar etxea be agertzen da.
1704 Urte onetako erroltzean au irakurten da: "La de Baraybar de Yusso, de Juan de Ochandategui. Vive Diego de lzagirre. 1/2 foguera".
1745/6 urtetakoa, jaubetzat Fernando Zubillaga agertzen da, eta errenteru lez Juan Bta. Garro.
1795/6 urtekoan, Manuel Lexardi zan jaube.
1814 urtekoan, bere jaubea bizi dala esaten da.
1988 urtean, Utsik dago.
Antonio Zarrabe eta Josefa Txurruka dira jaubeak.
Lurrez Etxebarria da, baiña eleiz-menpetasunez, Xemein'go parrokikoa.

## BELARROA

1542 Urte onetako zerrenda baten, eleizari amarrenak emoten eutsezanen artean agertzen da etxe au.
1704 Urte onetako erroltzean Antonio Belarroa agertzen da jaube lez eta Markos Alzaga errenteru lez.
1745/6 urtetan, Juan Belarroa, abadea, zan jaube. Eta lñazio Alberdi errenterua.
1795/6 urtetan, Bixente Belarroa ja'_ibe.
1823 Erriko zergak ordaintzeko egiten ziran eskabidetan, berari 980 errialen irabazia ipinten eutsen oiñarritzat, eta orren araberara ordaindu.
1825 10 lagun bizi ziran bertan:
Aita alarguna eta bost seme alaba, danak 14 urtetik berakoak.
Beste senar-emazte bi eta euron seme-alaba bi.
1988 Jausita dago.
Jaubetasuna lñazio Urkijo Olano'rena da.

## BEIDE (BEOIDIA, BEIDIA)

1542 urtean, Eleizari amarrenak eskintzen eutsezanen artean **Beidea** etxea agertzen da.

1704 urteko erroltzean, Beoydia izenez dator, eta jaube lez Martin Beoydia.
1745/6 urtetakoan, Beodia izenez agertzen da, eta jaubea Martin Meoidia.
1795/6 urtekoan, barriro Beoydia idazten dabe, eta jaube lez Franzisko Beoydia.
1814'koan, Beodia esaten da eta bere jaubea bertan bizi dala.
1823 urtean, erriko zergak ordaintzeko egiten dan baserrien zenbatekoan, 784 erria) ezagutzen dautsez oiñarrizko irabazitzat.
1825 urtean, 5 lagun bizi ziran bertan. Senar emazteak eta 3 seme alaba txiki.
1937 Zati bat gerra denporan apurtu eutsen bonba bategaz.
1988 Juan Espilla eta M. Luisa Guenaga bizi dira bertan, eta iru alabakaz bizi dira.
10 hektarea.
5 bei, 5 txal eta oilloak.

## BEIDE-BARRI

1988 Jose Mari Salaberria eta Felisa Aldazabal senar emazteak agertzen dira bertako jaube. Euren seme Jose Antonio, Pili Mentxakagaz ezkondua eta onein alaba Nerea bizi dira bertan.
5 hektarea.
6 bei, 7 txal, asto bat, 3 auntz eta oilloakr

## ERROTA BARRIA

1704 urtean, ez da agertzen bere izenik.
1745/6 urtetan, "Molino llamado Errotabarría, del Conde Peñaflorida" irakurten da. Eta Franzisko Usatorre bertako errenteru lez.
1795/6'ko urteetan bardin agertzen da.
1798 urtekoan, errenterua bizi dala bertan esaten da.
1823 urtean, erriko zergak ordaintzeko bakoitzaren neurria zeaztuteko, 560 errialdeko oiñarria ipini eutsen, aren arabera ordaintzeko.

1825 ko kontuetan, bost lagun bizi ziran bertan, errotaria, bere emaztea eta iru seme alaba.

1988 Maria Uriguenpagate Arizmendiarrieta'ren izenean dago jaubetasuna. Beragaz batera bere alaba eta onen senarra ta lau seme alaba bizi dira.

**ITURRIAGA (ITURRIRA)**

1704 Urte onetako erroltzetan Martin Lejardi agertzen da bertako jaube.

1745/6 urteetan, Martina Iturriaga, esaten da, jaubetzat.

1795/6 urtetan, Migel Lejardir

1823 urtekoan, 467 errialeko oiñarria ipinten dautse, orren arabera erriko zergak osotzen laguntzeko.

1825 urtean lau lagun bizi dirala agertzen da. Senar-emazteak eta seme bi.

1988 Utsik dago.
Jaubetasuna Severiano Basterretxea'ren izenean dago.

**LANDIBAR**

1988 Josefa Txopitea Apoita alarguna eta Jose Manuel lbarzabal dira jaubeak. Eurokin batean Jose Manuel'en emazte dan Maria Cruz Ansola eta Koldo eta Patxi semeak bizi dira.
3,5 hektarea.
Bei bat, 3 txal, txarri bi eta ardi bi daukez.
Lau untzitegi (konejutegi) dagoz bertan. Euretan 250 eme, sortzailleak, eta 28 arrak. Eta milla untzi aragitegitarako.
Esaten danez, etxe au Peru bertsolariak egiñiko etxea da, bere semea sartzeko.

## MAKUTEGI

1542 Urte onetan parrokiari bere amarrenak eskintzen eutsezan etxeen artean agertzen da aur

1704 De Susso esaten da. Au da, goikoa.
Eta bertan esaten da Macotegi de Yusso, au da, bekoa, Markiñakoa dala.

1745/6 Urte onetako zerrendan Markutegi lez agertzen da. Jaubea Franzisko Rementeria.

1795/6 ko erroltzetan, Makotegi txikia idazten da. Jaubea Jose Jabier Antxia.

1814 koan, errenterua bizi dala esaten da.

1823 urtean, 354 erria) zeaztu eutsezan ondasun oiñarritzak, kopuru orren araberan erriko zergak ordaindu eragiteko.

1835 urtean zortzi lagun bizi ziran bertan: Guraso zarrak, euron alaba ezkongaia, senar emazte gazteak eta euron iru ume.

1988 Manuel Mandiola eta Mari Tere Goiogana dira jaubeak, eta euron seme alaba Teresa, Daniel eta Andoni bizi dira bertan.
10 hektarea.
5 bei, 5 txal, zaldi bat eta gañerako abere ta egaztiak daukez.

## MAÑUZKA

1413 "La Colegiata de Santa Maria de Cenarruza" 1353-1515 liburuko, 89 orrialdean, "Las heredades de Mañoska" esaten da.

1416 Liburu berbertan, "Martin Ivannes de Manosca, cura e clérigo de Sant Andres d'Echavarria" irakurten da.

1704 urtean, Manuzkoa irakurten da. Pedro Fdez. Mugartegi agertzen da jaube lez eta Domingo Ansotegi bertan bizi.

1745/6 ko zerrendan, "Casa torre de Mañuzca", Pedro Mugartegi jaube eta Martin Erretolaza errenterua.

1795/6 urtetakoan, Mañozca esaten da, eta Pedro Mugartegi, jaube lez.

1814 ko zerrenda, errentan emonda egoala agertzen da.

1823 Urte onetan erriko etxeen artean egin zan irabazien oiña-

rriak izentatzean, 352 errialeko oiñarria ipini jakon etxe onerir

1988 Domingo eta Maria Dolores Furundarena eta Pedro Urionaguena bizi dira bertan. 4 bei, 4 txal eta oilloak daukez.

Manuel Murga Mugartegi'ren izenean dagoz jaubetasun agiriak.

Etxe onetan jaioa zan Juan Mañozka 1643'tik 1653 bitartean Mexiko'ko gongotzain (artzobispu) izan zana. Bai eta Jose Santos Mañozka, Kuba'ko gotzain izan zana, eta indioak XVlll garren gizaldian martiri lez il ebena.

**MONTERREY**

1704'ko erroltzean ez da agertzen etxe onen aztarrenik.

1745/6 urtekoan, Andres l. Ansotegi zan jaube eta errenteru lez Lucia Ondarroakoa.

1795/6 urtetan, Benito Ansotegi.

1823 urtean, erriko zergak ordaintzeko egin zan etxeen erren- ta zeaztutean, 329 erria) izentau jakozan etxe oneri bere oiñarri lez.

1825 urtean, sei lagun bizi ziran. Senar-emazteak, ama zarra, eta senarraren iru anai arreba.

Etxe au Ansotegitarreña izan zan, baiña 1898 urtean, Kuba'ko gerrako ondorenez, saldu egin eben.

1988 Basilio Lartitegi eta Kristina Kortabitarte senar emazteak (jaubeak) eta euren seme Jose lñazio bizi dira bertan.

7 hektarea.

bei bat, txal bi, zaldi bi, untzi eta oilloak.

Labea dauka, baiña ez da erabilten.

**MUNIBE**

Urkijotarren jaubetasunean, iru MUNlBE ezagutu edo bereiztu bear dira:

MUNlBE, jauregia.

MUNIBE, txikia.
MUNIBE, torretxua.

1542 Urte onetan eleizari amarrenak emoten eutsezan etxeen artean, Munibe bi agertzen dira. "Munibe de yuso eta Munibe de susso". Au da, Munibe bekoa eta Munibe goikoa.

1704 urteko zerrendetan, iru etxeak, Peñaflorida'ko kondearen izenean agertzen dira. Jauregian Pedro Larriaga bizi zala esaten da, txikian Jose Onzate eta torretxuan Bixente Lizaranzu.

1745/6'eko zerrendetan be, jaubea bardiña da, baiña Muniben Asensio Aulestiarte bizi zala esaten da, txikian Jose Egiguren eta Torretxuan Domingo Ordorika.

1795/6 eta geroko urteetan be jaubetasuna jarraian dator.

1823'ko erriko zorrak ordaindu al izateko egin ziran zerrendetan, bakoitzak ze neurritan ordaindu bear eban zeaztu al izateko, Munibe'ri 408 errialeko errenta ezagutu eutsen oiñarritzat, txikiari kopuru bardiña eta torretxuari 992 errial.

Gaur iru etxeak utsik dagoz.

Armarri (eskudo) ak daukez.

## OKOROKI

1542 Urte onetan eleizari amarrenak emoten eutsezan artean agertzen da etxe au. Urte orretan Ozoroki izena irakurten da.

1704 Urte onetako erroltzean, Ocolloki irakurten da. Jaubea, Pedro Agirre, lege-gizon lizenziatua. Errenterua, I. Arkotxa.

1745/6 urtetan, Okoroki agertzen da, eta lengo jaube berbera. Pedro Agirre au Bizkai'ko Sindiku izan zan.

1795/6 urtetako zerrendan, Jose Antonio Astarloa agertzen da jaube.

1814'urtekoan, Astarloaren errenterua bizi dala esaten da.

1823 urtean, Etxebarri'ko etxeen errentak zeaztu ziranean, erriaren ordainbearrak jaso al izateko, etxe oneri 354 errialeko oiñarria ipini eutsen.

1988 Andres eta Kontxita Espilla neba-arrebak bizi dira. Jaubetasuna Andres'en izenean dago.

16 hectarea.
5 bei, 5 txai.
Errota eta burdiñola egon ziran bertan.

## SAGARMINAGA

1557 Urte onetan Ziarrotza'ko Kolejiatak, beragaz era batera edo bestera lotuta egozan etxeen zerrenda bat egin eban eta an agertzen da Sagarminaga etxe onen izena.
1704 urtean, Juan Ugarte zan jaubea eta Domingo Iriguen eukan errenterutzat.
1745/6 urtetan, Juan Ugarte'k jarraitzen eban jaube, eta Agustin Sagarminaga zan errenterua.
1795 urtean eta geroago be, Peñaflorida'ko kondea agertzen da bertako jaube.

## TXORIBENTA

1704 Urte onetako erroltzean ez da agertzen.
1745/6 Ez da agertzen.
1795/6 erroltzean, Andres Urkieta agertzen da bertako jaube.
1814 urtekoan esaten da errenterua bizi zala.
1823 Erriko zergak ordaintzeko, bakoitzaren errentak zeaztutean, oneri 70 errialeko oiñarria ipini eutsen.

## ZULUETA ANDI

1542 urteko zerrendan, eleizari amarrenak eskintzen eutsezanen etxeen artean Zulueta be agertzen da.
1704 ko erroltzean, Juan Zulueta agertzen da jaube lez eta berbera bertan bizi.
1745/6 urtetakoan, Domingo Zubizarreta agertzen da jaube, eta iñor bizi ez.

1795/6 koan, Jose Zangroniz jaube eta Andres Garramiola errenterua.
1823'en 385 errealeko oiñarria izentatu eutsen, bere ordain-bearra ortik ataratekor
1825 lau lagun bizi zirala esaten da ama alarguna, senar emazteak eta urte beteko umea.
1988 Klaudio, Pedro, Leon, Joan eta Julian Totorikaguena anaiak eta Jose Luis loba bizi dira bertan. Jaubetasun agiriak Klaudioren izenean dagoz.
41 hectarea.
8 bei, 7 txal, 40 ardi eta oilloak daukez.
Ogi erreteko laba dauke eta astean bein egiten dabe ogia.
Tolarea be ba dauke, baiña azken bost urtetan ez dabe erabili.

## ZULUETA TXIKI

1704 urtean, Juan Zuloeta'rena lez agertzen da eta bertan Francisca lmitola, "beata" del Carmen, Bizi zan. ltxuraz, orduko legean, etxeetan bizi ziran monja izango zan.
1795'ko erroltzean, Jose Zangroniz da jaube.
1823 urtean, 385 errealeko oiñarria ipini eutsen, erriko ordain-bearretan esku artzeko neurri lez.
1825 urtean, zazpi lagun bizi ziran. Senar emazteak eta bost seme alaba.
1988 Jose Gerrikabeitia'ren izenean dago jaubetasuna. Ba dira amazortzi urte bertakoak emendik alde egin ebela.
18 hektarea.
Beor bi, 9 ardi, untzi eta oillo batzuk zaintzen dira gaur bertan.

# AULESTIA AUZOA

## ALDAZKOA

lru Aldazkoa izeneko etxe agertzen dira lengo denporetan:

**Aldazkoa Retolaza**

1705 urtean etxe txiki lez agertzen da. Fogera laurdeneko lez.

1796 urtean, Aldazkoa **erdiko** ("de medio") lez agertzen da eta bere jaube Juan Ceceil Retolaza.

1823 urtean, erriko diru batzerako, 117 errialeko errenta ezagutu eutsen.

**Aldazkoa Goikoa**

Ez da agertzen 1705 eta 1745'ko erroltzetan.

1796 urtean lñazio Aldazkoa, irakurten da jaubetzat.

1814 urtean, Gregorio Solozabal.

1823 urtean, 71 errialeko errenta ezagutu eutsen, erriko diru batzerako oiñarri lez.

1825 urtean, lau lagun bizi ziran bertan: Senar-emazteak, au Bolibar'koa, alaba bat, ogibidez irulea eta beste neska bat, ogibidez jostuna.

1988 urtean, jaube lez Maria Amillategi Kareaga agertzen da.

**Aldazkoa Bekoa**

Ez da agertzen 1705 eta 1745 urtetako erroltzetan.

1796 urtean, Barroeta etxearena dala esaten da.

1814 urtean "de la Patrona" esaten da.

1823 urtean, 93 errialeko errenta ezagutu eutsen, erriko banaketetarako.

1825 urtean, iru lagun bizi ziran: senarra, organu jotzaillea, elgoibartarra; emaztea, sukaldaria, eibartarra eta emen jaiotako alabatxo bat.

## ALZOLA

1704 urtean, Markiña'ko Mesedetako Konbentuaren jaubetasuneko lez agertzen da. Juan Oranegi eta Domingo Mugarza bizi ziran errenteru lez.

1746, 1796 eta 1814'ko erroltzetan, jaubetasunak bardin jarraitzen dau, Markiñako monjaen izenean.
1823 urtean, oiñarrizko errenta lez 224 errialekoa ezagutu eutsen, erriko bear-izenetan neurri orretan esku artzeko.
1825 urtean, iru lagun bizi ziran bertan, ama alarguna eta seme bi, biak ezkongaiak. Ama elgoibartarra zan.

## ANDUIZA

1705 urteko erroltzean, Iñazio Azkarate ezagutzen da jaube lez eta bertan bizi zala esaten da.
1745 urtean, Domingo Aulestiarte da jaubea eta Min Elordí, errenterua.
1796 urtean, Domingo Lausagarreta izentatzen da jaube lez.
1814 urtean, jaubetasuna Madalena Lausagarreta'ren izenera aldatzen da.
1823 urtean, 224 errialeko oiñarrizko errenta ezagutzen dautse, erriko diru batzetarako neurri lez.
1825 urtean sei lagun bizi ziran. Senar emazteak eta semea, famili bateko eta beste senar-emazteak (biak Xemeindarrak) eta alaba.
1705'ko zerrendan, "fogera" erdikako lez agertzen zan etxe au.

## ARDIDEN (ADRIDEN)

1705 urtean ez da agertzen.
1745 urtean barria dala esaten da eta Andres Ansotegi zala jaubea eta Gabriel Larrinaga bertan bizi.
1796 urtean, Benito Ansotegi da jaubea.
1815 urtean, Ansotegi'ren errenteruak bizi dirala esaten da.
1823 urtean, 574 errialeko oiñarrizko errenta ezagutu eutsen, oiñarri orren araberan bere errirako ordaintzak eragiteko.
1825 urtean lau lagun bizi ziran bertan. Senar emazteak, au Mendarokua eta beste seme alaba bi.
1988 Jausita dago.
Jaubetasuna Juan M. Guenaga'ren izenean dago.
16 hektarea.

## AREGILONDO (AXILONDO)

1704 urtean, Arejolondo izenagaz agertzen da.
Jaubea Domingo Baskaran. Errenterua, Maria Egierrea.

1745 urtean Domingo Larruskain agertzen da jaube lez eta bertan biziten.

1796 Joakin Solozabal agertzen da jaubetzat. "Con su molino, sin habitación".

1815 urtekoan, Joakin bere jaubeak erabilten dauala esaten da.

1823 urtean, 536 errialeko oiñarria ipini eutsen, erriko diru-premiñetan orren arabera ordaintzeko.

1825 urtean, 6 lagun bizi ziran. 70 urtedun aita alarguna, bere seme ezkondua emazteagaz, au mallabiarra zan, emaztearen anai gazte bat (mallabiarra) eta beste morroi bi, bat markiñarra.

1988 Etxe bizitza bitan banatzen da.

1.— Benito Maza eta Franciska Diaz senar emazteak eta euren iru seme bizi dira. Errenteruak dira.
Jaubea Felisa Ibarluzea, baiña jaubetasuna aldatzeko eginbearretan dabiltz, M.ª Luisa eta Agustina Solozabal'en izenean.
15 hektarea.
17 bei, 5 txal, beor bat, untzi (koneju) eta olloak daukez.

2.— Utsik dago. Udarako erabilten dabe.
Jaubeak, M.ª Luisa eta Agustina Solozabal.

Aldi baten, azpaldi, iru abade bizi ziran baserri onetan, Solozabaldarrak.

## ARNORIAGA (ARNORIXA)

1704 urtean Arnoyaga izenez irakurten da. Antonio Zubizarreta zan jaube.

1745'n, Armorriaga irakurten da. Jaubea Domingo Armoriaga.

1796'en, Arnoriaga. Jaubea Andres Arnoriaga.

1815 urtean, izen eta jaube bardiñak jarraitzen dabe.

1823 urtean, 583 errialeko oiñarrizko errenta zeaztu eutsen, erriko ordain bearretan neurri orren araberan ordaintzeko.

1988 Jausita dago.
Jaubetasuna, Zubizarreta ren izenean.
17,6 hektarea.

## ARRITOIN (ARROTAIN)

1704 urteko erroltzean esaten da Franzisko Arrotain ildakoaren izenean egoala, baiña konkurtsora atarata egoala.
1745 urtekoan, Markiña'ko Mesedetako monjen konbentuaren izenean agertzen da, eta Santiago Zubillaga errentero lez.
1796 urtekoan be konbentu bardiñaren izenean egoan jaubetasuna.
1815 urtean **Arrutain** irakurten da, eta monjen errenteruak dirala bertan dagozanak.
1823 urtekoan, Arritoin irakurten da. 525 errialdeko oiñarrizko errenta izentatu eutsen, erriko ordainbearretan orrela ordaintzeko.
1825 urtean, bederatzi lagun bizi ziran. Senar-emazteak (senarra Xemeindarra) eta euron iru seme alaba. Eurekin batean len bertan bizi ziranen lau seme-alaba.
1988 Jausita dago.

## AZORIN

1704 urteko erroltzean, Juan Galdona agertzen da jaube lez eta Jose Ezenarro bertan bizi.
1745'n Andiaga'ren oñordekoen izenean dago. Bizi Ezenarrotarrak.
1796'urtean, Manuel Urrestieta da jaubea.
1823 urtean, 643 errialeko oiñarrizko errenta ezagutu eutsen, erriko premiñetan neurri orren araberan ordaintzeko.
1825 urtean lau lagun bizi ziran: ama alarguna, agiñatarra, senar-emazteak, (au Errexildarra) eta semea.
1988 Ez da iñor bizi.
Etxe onen urratsak 1498 urtean be billatzen dira. Urte orretan Ziarrotzako kolejiatako abatak Martin Mañoska eta bete emazteari Arretolaza'ko zelaia alokatu eutse-

nean enfitesi zentzu erabidez, Furtunno de Asorin, Etxebarriako bizilaguna agertzen da lekuko (testigu)lez.

## AZORINZABAL (ATZOINZABAL)

1704 urtean, Bixente Azobinzabal agertzen da jaube lez.
1745 urtean, Domingo Zugazti, eta Pedro Asorinzabal'egaz bertan bizi dala esaten da.
1796 urtean, Domingo Asorinzabal, jaube.
1815 urtean, bere jaubeak erabilten dauala esaten da.
1823 urtean, 513 errialeko oiñarrizko errenta ezagutu eutsen.
1825 urtean, amar lagun bizi ziran. Senar emazteak ete onein lau seme-alaba. Beste gizon alargun bat eta onen iru semeak, oneik danok elgoibartarrak.
1988 Pedro Guenaga Sarasua agertzen da jaube lez.
5 hektarea. 5 bei, 4 txal, txarri bat eta oilloak daukez bertan. 1936/7'ko gerratean, Agarre Txiki Mendaro'ko baserrira aldatu ziran bertakoak, baserri ingurura bonbak jaurtiten zituelako.

## AULESTIA (ALLUSTI)

1704 urteko zerrendan, Martin Aulestia agertzen da jaube. Sugal (foguera) osokoa zan.
1746 urtekoan, jaube berbera agertzen da.
1796 urtekoan, Diego Aulestia zan jaube.
1814 urtean, Bautista Aulestia.
1823 urtean, erriko dirutzak ordaindu al izateko, bakoitzaren oiñarrizko errentak ipini ziranean, etxe oneri 536 errialeko errenta zeaztu eutsen.
1825 urtean 9 lagun bizi ziran bertan: Juan Bta. Aulestia eta Josefa Gerrikabeitia (Arbazegitarra) eta M.ª Josefa Zarrabe, bollibartarra, neskamea. Eta Martin Aulestia, alarguna. Bai eta Pedro Onaindia eta Josefa Zenarruzabeitia, bata bollibartarra ta bestea ziarrotzatarra eta euron seme Andres eta Bixente Arbazegin jaioak eta Jose Mari emen jaioa.

1988 Etxe bizitza bitan banatua:
Baten Jose Domingo Elordi eta Arrate Uruinabarrenetxea senar emazte eta bertako jaubeak bizi dira euren seme Aritz'egaz.
8,5 hektarea.
8 bei, 10 txal, oillo eta untziak daukez.
Bestean Jose Mari Basterretxea, bere izenean dago jaubetasuna, eta Gillermo anaia bizi dira.
8,5 hectarea.

**AULESTIARTE**

1704 urtean, Markos Aulestiarte agertzen da jaube lez. Sugal (foguera) osoko etxea.
1746 urtean Kristobal Barinaga agertzen da jaube lez.
1796 urtean, Jose Muniozguren zan jaubea.
1814 urtean, Andres Muniozgurenr
1823 urtean, 408 errialeko oiñarrizko errenta ezagutu eutsen, erriko diru-batzetan oiñarri orren araberan ordaintzeko.
1825 urtean, senar emazteak eta sei seme alaba bizi ziran.
1988 Jesus Unamunzaga'ren izenean dagoz eskriturak eta bertan bizi da bere arreba Mari Tere eta onen senar Jesus Arrietagaz.
9 hektarear
9 bei, txal bat, beor bat eta oilloak daukez.

**BELAOTZ**

1705 urtean, au esaten da: "la casilla de Belaoch", au da, Belaotz etxetxua. Franzisko lbarluzea zan jaubea eta bertan bizi zan. Sugal laurdeneko lez, "foguera" laurdeneko lez egoan.
1745 eta 1796'ko zerrendetan ez da agertzen.
1814 urtekoan, erriko andre nagusiaren (patronaren) bizi laguna bizi zala esaten da.
1823 urtean, 128 errialeko oiñarrizko errenta izentatu eutsen.

1825 urtean sei lagun bizi ziran: Aita alarguna, senar-emazteak, au Ziarrotzakoa eta euron iru seme alaba.
1988 Erribera Kalean Dago gaur Belaotz etxea.

## BEKOETXEBARRI

1763 egiña lez agertzen da.

1796 urtean, Maria Txopatea zan jaubea.

1815 ko zerrendan esaten da, Lobiano'ko bizilagunak bizi dirala bertan.

1823 urtean, 315 errialeko oiñarrizko errenta zeaztu eutsen.

1825'n lau lagun bizi ziran bertan: Maria Lobiano, bertakoa, etxe zaiña.
Josefa A. Etxebarria, 45 urtekoa, ezkongaía, neskamea (krixadea) Urrestilla'koa; Maria san Martin, 41 urteduna, ezkongaia, irulea, Agiñakoa, eta Petra Mendikute, 24 urteduna, ezkongaia, ilalia (tejedora), elgoibatarra.

1988 Etxe ostean iturri bat dauka.
Margarita Ituarte'ren izenean dago jaubetasuna.
Etxe bizitza bi daukaz:
Baten Josefa Zarrabe bizi da.
Bestean Joan Onaindia-Felisa Ibarzabal senar emazteak.

## BIDEAZPIKOA

Izen onegaz iru etxe ezagutzen ziran Etxebarrian.

**Bideazpikoa Aulestia**

1705 urtean Martin Aulestia zan jaube eta Migel Bengolea abadea bizi zan bertan. Etxetxua "casilla". Sugal (foguera) laurdenekoa.

1796 urtean Juan Olabe zan jaubea.

1814 urtean, **Bidebekua Aulestia** izenagaz agertzen da. Eta errenteru bat bizi zan bertan.

1823 urtean, 259 errialko oiñarrizko errenta uste izan eutsen.

1825 urtean, erriko parrokoa bizi zan, bere arreba (markiñarra) eta serbitsariagaz (au bolibartarra).

**Bideazpikoa Erdikoa**

Beste Bideazpiko Aulestia joten egoan, 1704 urtean eta Jose Zabala zan jaubea.

Beste urtetan, errenterua bizi zala esaten da, izenik emon barik.

1823 urtean 93 errialeko errenta uste izan eutsen.

Etxe au be "etxetxu"tzat euken, eta sugal edo fogera laurdenekoa zan.

**Bideazpikoa Ramonena**

1796 urtean Ramon Solozabal agertzen da bertako jaube lez.

1815 ko zerrendan errenterua bizi dala esaten da.

1823'en 315 errialeko oiñarrizko errenta ezarri eutsen.

## BIZKARRIA

Etxe bi ezagutzen dira izen onegaz.

Bat, **Bizkarra Txiki,** "etxetxua".

1796 urtean Jose Barinaga'rena zan.

1814 urtean, errenteru bat bizi zala esaten da.

1823 urtean 70 errialeko oiñarrizko errenta uste izan eutsen, orren araberan erriko diru batzetan ordaindu eragiteko.

Beste bat, **Bizkarra Andia,** edo ta **Nagusia.**

1705 urtean, Franzisko Bizkarra zan jaubea eta bertan bizi zan.

1796 urtean Jose Barinaga agertzen da jaube lez.

1814 urtean, berbera.

1823 urtean, 187 errialeko oiñarrizko errenta uste izan eutsen, neurri orretan erriko diru batzetan sartzeko.

1825 urtean, lagun bi bizi ziran, senar-emazteak. Senarra mutrikuarra zan.

1988 Julian Lejardi'ren izenean dago jaubetasuna.

Bertan bizi da bere emazteagaz. Eta bertan bizi dira Ester eta Juan Jose seme alabak, eta Ester Olabarria, Juan Jose'ren emaztea.

Bei bat, txal bat, zaldi bat, txarri bat eta untziak daukez.

Babes-ortu (negutegi) bi. Larrosentzakoak 36 m2 daukaz eta klabeliñentzakoak 40 m2.

4 hektarea.

## DENDARIKUA

1796 urtean, Migel Azpiri zan bertako jaube.
1816 urtean, jaubea bizi zala esaten da, errenteru bategaz.
1823 urtean, 176 errialeko oiñarrizko errenta ezagutu eutsen.
1825 urtean zazpi lagun bizi ziran, Jose lbarzabal eta Mari Sarasua, alabeagaz, bai eta Jose Eguen eta Mari Azpiri, seme bategaz, eta 29 urteko neska ezkongai bat eurekaz.

## EGIERREA (EGIXARRE)

1704 urtean Domingo Egierrea zan bertako jaube.
1746 urtean izen berberean jarraitzen eban.
1796 urtean, Andres Barinaga irakurten da jaube lez.
1814 urtean, errenterua bizi zala esaten da.
1823 urtean, 467 errialeko errenta ezagutu eutsen, oiñarrizko orren araberan erriko premiñetan ordaindu eragiteko.
1988 Utsik dago. 1972 urtean ustu zan.
Jaubetasuna Maritxu Azpiri'ren izenean dago.
Etxe ingurua Franzisko Salaberriak erabilten dau, errenteru lez.
8 bei, 7 txal eta 4 ardi daukaz.
14,5 hektarea.

## ELEIZPURUA

1705 urtean. "La casilla de Eleizpurua de Rementeria" irakurten da, eta Domingo Arenaza'rena izan zala eta bertan Maria Olabe, san Franzisko ordenako "beata" bizi zan.
1705 urtean, au da, lengoaren ondoan, "la casilla de Andres Rementeria", esaten da eta bertan bizi dala.
1814 urtean, erriko andre andiaren (patronaren) errenterua bizi dala esaten da.
1823 urtean, 138 erria) zeaztu eutsezan oiñarrizko errenta lez.
1825 urtean sei lagun bizi ziran. Bat, A. Solozabal, jantzi taiu-

tzallea (entallador) esaten dau agiriak eta M. Rementeria, etxeko arduraduna. Euren seme bat 28 urtekoa eta beste urtebiko mutiko bat, Logroño'tik ekarria; etxeko jaunaren neba, jostuna eta morroi bat. Sugal (fogera) laurdeneko lez egoan.

## ELORDI

1704 urtean Juan Elordi'ren izenean agertzen da.
1745 eta 1796 urtean izen berberean jarraitzen dau jaubetasunak.
1814 urtean, Pedro Txurruka bertako jaubeak erabilten dauala diño.
1823 urtean, 455 erríaleko oiñarrizko errenta ezarri eutsen, erriko goraberetan orren araberan kontuak egiteko.
1825 urtean, 8 lagun bizi ziran. Nagusi alarguna eta seme txiki bi. Nagusia Mendaro'n jaioa zan. Senar emazteak (senarra Barinagakua) eta euren iru ume.
1988 urtean Jabier Muniozguren'en izenenan dago jaubetasuna.
Utsik dago.
16 hectarea.
9 bei, 9 txal, 3 asto eta oilloak daukez.
Tolarea be ba dago, amar urtetan erabili barik.
Babes-ortua, negutokia, 160 m2.

## ETXEBARRIKUA

Etxe oneri buruz, 1745 urtean, zeaztasun oneik billatzen dira:

Bat, Etxebarria bekua, jaubea Migel Ibarzabal.

Bestea, "otra nueva de L Ibarluzea, esaten da, errenteru lez l. Gandia eukala. Eta "otra también de l. lbarluzea", errenterutzat Juan Ormaetxea.

1745 urtean, Etxebarrikua, Juan Bta. Egierrea jaube zala be agertzen da.

1796 urtean, Bartolome lbarzabal zan etxe onetako jaube.

1814 urtean, Eusebio lbarzabal, bere jaubeak erabilten eban.

1823 urtean, 350 errialeko oiñarrizko errenta ezarri eutsen, erriagazko kontuak neurri orretan erabilteko.

1825 urtean iru lagun bizi ziran, aita alarguna eta senar emazteak.

1830 urtean, etxe onetan jaio zan Juan Pedro lbarzabal, bertsolari eta probalaria. 1899 urtean il zan. Beraren entzutez, etxe oneri PERUNE be deitzen dautse.

1988 Euxebio, Paulo, Justo eta Ramon anaiak bizi dira bertan. Euren izenean dago jaubetasuna.
4 hektarea.
2 bei, 4 txal.

## GANDIAGA

Etxe bi ezagutzen dira **Gandiaga** izenagaz: **Gandiaga Nausia** eta **Gandiaga Errota.**

**Gandiaga Nagusia**

1704 urtean, Domingo Gandiaga zan jaube.
1745 urtean, Pedro Gandiaga.
1796 urtean, Maria Olioen agertzen da jaube lez.
1814 urtean Agustin bere jaubea bizi dala esaten da.
1823 urtean 644 errialeko oiñarrizko errenta ezarri eutsen, orren goraberan erriko ordainketetan parte artzeko.
1825 urtean, zortzi lagun bizi ziran bertan.
1988 Jose Agustin Muniozguren Basterretxea'ren izenean dago jaubetasuna.
18 hektarea.
6 bei, 3 txal, asto bat.
Tolarea be ba dago, baiña berrogei urtetan erabili barik.
Argi indarra berea dauka.

**Gandiaga Errota**

1704 urtean ez da agertzen, ez eta 1745'n be. Baiña 1798 urteko zerrenda baten, 1704 ondoren egiñiko etxeen artean agertzen da eta 40 dukatetan alokatua, alkilatua egoala.
1988 urtean Jose Etxaniz eta Dominga Uriguen'en izenean dagoz eskriturak eta bertan bizi dira, bai eta euren seme

alaba Maria Jose eta Juan Jose eta onen emazte Teresa Etxaburu, eta Joseba euron semea.
5 hektarea.
12 bei, 7 txal, idi bat, sei auntz eta oilloak.

## GOIKOETXEBARRIA

1796 urtean agertzen da lenengoz. Domingo lbarluzea zala, esaten da, bertako jaube.
1824 urtean, Lobiano'ko bizi laguna bertan bizi dala esaten da.
1823 urtean, 430 errialeko oiñarrizko errenta ezarten dautse, erriko premiñetan neurri orretan erantzun eragiteko.

## IMITOLA (IMINTXOLA)

1704 ko zerrendan, Domingo lmitola agertzen da jaube lez. lzen eta jaubetasun berean jarraitzen dau 1746 eta 1796 urtetako zerrendetan.
1796 urtean, Imitola'ko etxetxua be agertzen da. Jaubea Domingo lmitola berbera.
1814 Jaubeak erabilten dauala esaten da, maizterrekin.
1823 urtean. 1003 errialeko oiñarrizko errenta zeaztu eutsen, erriko premiñetan neurri orretan erantzuteko.
1825 urtean, bederatzi lagun bizi ziran bertan. Juan Ansotegi, 64 urte, alarguna, Bolibartarra, Jose eta Juan, semeak, azken au Elgoibartarra. Jose Garate eta Rita Zabala, au Mendexarra, senar emazteak eta Juan Garate eta Manuela Zabala, bi oneik Soraluzetarrak (plazentzia-rrak). Eta lñazio eta M.ª Bta neba-arrebak, biak mende-xarrak.
1988 Etxe bizitza bi.
Baten, jaubeak, Julian Lapazaran eta Segunda Etxeba-rria dira, eta eurekin batean Jose Fernando, Luis, Oskar, Bixente eta Ane seme alabak bizi dira.
4,3 hektarea.
7 bei, 9 txal, asto bat, 21 ardi, txarri eta oilloak daukez.
Tolarea be ba dauke, bai eta erreteko labea be.
Beste etxean, Pedro Barrutia eta Matilde Ortega senar

emazteak bizi dira eta eurak dira jaube. Eurekin batean Jose Mari eta Iñaki semeak bizi dira.
4,3 hektarea.
5 bei, 5 txal eta oilloak daukez.
Tolarea be ba dauke.

**Imitxola Txiki**

Ia ogei urte dira utsik dagola. Jaubea, Julian Lapazaran.
4,3 hektarea.
**Imitxola** baserriak lurrez Etxebarria dira eta eleizaz Larruskain.

## IBAIGUREN

Aulestia auzoan **Ibaiguren** deiturako etxe bi aurkitzen dira. Bata **Ibaiguren Bekoa** eta bestea **Ibaiguren Txiki.**

**Ibaiguren Bekua**

Ibaiguren lez be irakurten da.

1796 urtean agertzen da lenengoz. Mutrikuko Agustindar monjaena lez ezagutzen da.

1814 urtean, Domingo Baridano errenteru lez bertan bizi dala esaten da.

1823 urtean, 446 erria) ipini eutsezan oiñarrizko errenta lez, dirutza edo neurri orren araberan bere ordaintzak egiteko.

**Ibaiguren Txiki**

Goikoa izenagaz be ezagutzen da.

1796 urtean Migel Barinaga eta bere arreba bizi zirala bertan, esaten da. Urte orretan "etxetxua" lez zeaztuten da, eta Maria Barinaga bere jaube lez.

1814 urtean, emakume bi bertan bizi dirala esaten da.

1823 urtean, 70 errialeko oiñarrizko errenta zeaztu eutsen, erri ordainketetarako.

## IBARROLAZA

1704 ko erroltzean, Juan Bta. Larruskain agertzen da bertako jaube.

1745'koan, Min Aulestia jaube eta Franzisko Lazkano errenteru lez.
1796 urtean, Diego Aulestia zan jaube.
1704 inguruan egiña da. Bost urterako 40 dukateko errenta eukan, errenta ori garitan ordainduaz.
Aulestia etxekoen maizterra zan.
1823 urtean 394 errialeko oiñarrizko errenta ezarri eutsen, orren araberan bere erriagazko betebearrak beteteko.
1825 urtean, 30 eta 27 urteko senar emazteak bakarrik bizi ziran.
1988 Bartolome Ezenarro eta Juana Zelaia dira jaubeak. Eurekin batean Angel Ezenarro eta M.ª Carmen Hernando senar emazteak bizi dira eta onein seme Unai.
14 hektarea.
3 bei, 3 txal, 2 auntz, 8 ardi, aari bat eta oilloak.

## IZILLARTE

1704 urteko erroltzean, Martin Aulestia agertzen da jaube lez eta Franzisko Arkauz bertan bizi.
1745 urtean jaubea bardiña da, eta errenterua Antonio Arizpe.
1796 urtean Diego Aulestia agertzen da jaube lez.
1814 urtean, Aulestia ren maizterra bizi dala esaten da.
1823 urtean, 303 errialeko oiñarrizko errenta zeaztu eutsen, neurri orretan erriari erantzuteko.
1825 urtean lau lagun bizi zirala esaten da.
1988 Jausita dago.

## IBARLUZEA

Etxe bi ezagutzen dira **Ibarluze** izenagaz. Bata **Ibarluze Andi** eta bestea Txiki.

1704 urteko erroltzan, Juan lbarluzea zan jaubea eta Franzisko Garro bertan bizi.
1745 urtekoan, jaubea lengo berbera, eta errenterua Antonio Gandiaga.
1796 urtean, Domingo lbarluzea zan jaube.

1814 urtekoan esaten da, Mariana bere jaubeak erabilten dauala.

1823 urtean, 945 errialeko oiñarrizko errenta zeaztu eutsen, bere bear izanak era orretan ordaintzeko erriagaz.

1825 urtean lsabel lriondo alarguna eta alaba bi bizi ziran bertan eta morroi bat, elgoibartarra.

1988 Martina Gandiaga alarguna bizi da bertan, Laureano Gisasola eta Juanita Erkiaga señar-emazteekaz eta onein iru seme alaba. Jaubetasuna Laureano'ren izenean dago.

15 hektarea. Tolarea be ba dauke, azken zortzi urtetan erabili barik.

Ogia erreteko laba be bai, ba¡ña 16 urte dira erabilten ez dabela.

6 bei, 7 txal, beor bat, txarri bat eta oilloak.

**Ibarluzea Txiki**

1823 urteko zerrendan, 117 erria) ezarri eutsezan oiñarrizko errenta lez.

1825 urtean lau lagun bizi ziran, Juan Zubizarreta eta Manuela Ibarluzea senar emazteak eta seme alaba bi.

1940 urtean barriztu eben.

Felix Egurrola eta Rufina Aldazabal senar-emazteak dira bertako jaube eta Juan Jose semeagaz bizi dira.

Etxe onetako "Lista" ardi txakurra Euskalerri eta Bizkaiko txapeldun geratu zan 88'ko leiaketan.

Semea aari-topeketan ibilten da eta 120 burukada emon zitun bere aari batek.

11,5 hektarea.

Bei bat, txal bat, asto bi, 6 auntz, 80 ardi eta 6 aari.

## JAUREGI

1796 urteko zerrendan, Domingo Astorki'n eukan kapillautzakoari egokiona dala esaten da.

1814 urtean lñazio Aramendia bizi zan bertan.

1823 urtean, 210 errialeko errenta izentatu eutsen, errigorabe-retako ordainketetan oiñarrizko lez.

1825 urtean iru lagun bizi ziran: abadea eta arreba bi.

Etxe onetan bizi zan baita Bariñaga'ko parrokoa bere arrebagaz, eta beste serbitzari zar bat eta onen aizta alarguna.

1635 urtean, erriko pixu, neurri, errota, denda eta abarren ikerketa egin zanean, etxe onetan izenpetu zan ikustaldi aretako agiria.

## JAUREGI TORREA

1705 urtean, Jauregi "etxetxua" izentatzen da eta bertan Martin Retolaza eta Pedro Azorin abadeak bizi ziran. Jaubea Azorin zala.

1796 urteko zerrendan, Barroeta etxekoa dala esaten da.

1814 urtekoan, erriko andre andiarena.

1823 urtean, 133 errialeko errenta ezagutu eutsen, oiñarri lez, erriko goraberetarako.

Armarria dauka.

lbarra eta Berge'k, Torres de Vizcaya liburuan diñonez, XlX garren mendeko jauregitxua da.

Etxe bizitza baten Jose Baskaran eta Josefa Basterretxea Mendibe senar-emazteak bizi dira seme alaba bigaz eta euren izeko Maria Mendibe'gaz.

Beste etxea utsik dago. Maritxu Muniozguren'en izenean eskriturak (Jauregi baserria).

## KALLEJAKUA

1745 urtean agertzen da lenengoz etxe au.

Domingo Lejardi zan jaubea, eta Martin Eguskiza errenterua.

1796 urtean Martin Lejardi zan jaube.

1823 urtean, 58 errialeko oiñarrizko errenta ezarri eutsen, orren arabera erriko zorretan eta ordainbearretan eskatzeko.

Beste etxetxuen errentak ikusita, ba dirudi etxe au txikietarikoena zala.

## KORTABITXI

1796 urtean. Kortagoitia, Barroeta etxeko lez agertzen da.

1814 urtean, Migel Andres jaunaren maizterra bizi dala bertan, esaten da.

1823 urtean, 408 erria) zeaztu eutsezan oiñarrizko errenta lez.
1988 Santiago Arrieta'ren izenean dagoz jaubetasun agiriak, eta bere emazte M. Angeles Maruri eta iru alaba bizi dira bertan.
2,5 hektarea.
3 bei, 4 txal, zaldi bat, txarri bat eta untziak.

**KALEKOA**

1796 urteko zerrendan da lenengoz. Jaubea Franzisko Zang ron iz.
1814 urtekoan errenteru bat bizi dala esaten da.
1823 urtean, 175 errialeko oiñarrizko errenta ezarri eutsen, erriko goraberetan neurri orregaz erantzuteko.
1825 ko erroltzean zazpi lagun agertzen dira bertan biziten. Etxeko jauna, 38 urteduna eta 44 urtedun emaztea, markiñarra, eta seme alaba bi.
Etxe jaunaren arreba bat, 36 urteduna, irulea, eta beste andra alargun bat, a be irulea, bariñagatarra eta 11 urtedun mutil bat, Logroñotik ekarria.

**KORRUBARRENA**

1796 urteko zerrendan agertzen da lenengoz. Martin Txopitea jaube.
1818 urtean etxe jaubea bizi zan bertan eta errenteruak.
1823 urtean, 186 errialeko oiñarrizko errenta izentatu eutsen.
1825 urtean, 30 eta 28 urteko ezkongai bi bizi ziran, Zezeil abizendunak, bata irulea eta bestea jostuna, 60 eta 66 urtedun beste bi, lotutzailleak (liadores, esaten dau erderaz) eta beste senar-emazte bi, iruleak.

**LAUBARIN**

1796 urtean Domingo Maguregi, gaztetxoaren izenean egoan.
1814 Domingo Maguregi'ren errenteruak bizi dirala esaten da.
1823 urtean, 210 errialeko errenta izentatu eutsen oiñarritzat.
1988 Jausita dago.

## MANDIOLA

Etxe oneik agertzen dira **Mandiola** izenekoak. **Mandiola** utsik, eta **Mandiola Barri.** Bai eta **Mandiola Zar** eta **Mandiola Txiki** be.

**Mandiola**

1704'ko erroltzean, Juan Mandiola'ren izenean egoan jaubetasuna. Bere alarguna eta semeak bizi ziran bertan.

1746 urtean, Jose eta Pedro Mandiola'ren izenean, eta bertan bizi ziran.

1796 urtean Iñazio Mandiola agertzen da jaube lez.

1814 urtean, errenteruak bizi zirala esaten da.

1823 urtean, 805 errialeko oiñarrizko errenta ezarri eutsen, erriko goraberetan neurri orregaz, erantzuteko.

1988 utsik dago.

Jose Maria Mandiola'ren izenean dago jaubetasuna.

**Mandiola Txiki**

1922 urtetik utsik dago.

Jaubea Jose Mari Mandiola.

**Mandiola** zar edo nagusi eta txiki'ren artean 33 hektarea daukez.

**Mandiola Beko**

Utsik dago, apurtuta, iru ormatan gelditua.

1936 urteko gerran, Beide'tik bonbak jaurti eta euretariko batek **erre** egin eban **Mandiola** baserria.

Baserri eder eta ondo apaindua zan.

Jaubea Iñazio Astigarraga, Otxandio'n bizi dana.

**Mandiola Goiko**

Utsik dago.

Jaubea Iñazio Astigarraga, Otxandion bizi dana.

**Mandiola Beko eta Goiko'ren** artean 13 hektarea daukez.

## ORMAETXEA

1796 urteko zerrendan agertzen da lenengoz.

Jose Muniozguren bertako jaube.

1814 urtekoan, Aulestiarte'ren maizterra bizi dala esaten da.
1823 urtean, 140 errialeko oiñarrizko errenta izentatu eutsen, erriko ordainketen goraberetarako.
1825 urtean zazpi lagun bizi ziran bertan.

## PATROKUA

1825 zerrendan agertzen da, lau lagun bizi zirala esanez, senar-emazteak eta seme bi. Danak markiñarrak.

1988 Jesus Osa eta Gloria Argoitia senar emazteak eta euron seme bi bizi dira, bai eta Sabina eta Nati Zubizarreta aiztak be. Errenteruak dira.

Jaubetasuna Jose Luis Gaitan de Ayala'rena da.

1/2 hektarea.

20 txal daukez, eta untzi eta oilloak.

## TOMASENEKUA

1745 urtean agertzen da lenengoz, eta Juan lbarluzea zan jaube eta Kristobal Lazkano bertan bizi.
1796 urtean, Barroeta etxekoa dala esaten da. Geroago izen orregaz ez da agertzen.

## ZELAIKOA

1705 urtean, Antonio Asainaga zan jaube eta bertan bizi zan.
1746 urtean, bere jaubetasuna eztabaidetan ebillan.
1796 urtean Madalena Agirremurua'ren izenean agertzen da.
1823 urtean, 175 errialeko oiñarrizko errenta izentatu eutsen, udal goraberetan neurri orren araberan jokatzeko. Sugal laurdenekoa zan.

# GALARZA AUZOA

## ABATETXETA

1746 urtean M. Ataguzegi (?) zan jaube eta l. Txopitea bertan bizi.
1796 urtean, Jose Ugarteburu agertzen da jaube lez.
1814 urtean errenteru bat bizi dala bertan esaten da.
1823 urtean, 93 errialeko oiñarrizko errenta ezagutu eutsen, orren arabera erriagazko ordainketak egiteko.
1825 urtean bost lagun bizi ziran, Barinaga aizta bi, Gandiaga-Zenitaguena senar emazteak eta onein urte betedun semea.
1988 Jose Luis Olasolo da jaubea eta bere emazte Rosa Mari Larrinaga, Aitor, Amaia eta Eztitxu seme alabak eta ama Jakoba bizi dira bertan.
Etxe au gaur ENTRAN izenagaz ezagutzen da.

## ADORRIAGA

1704 urtean Martin Adorriaga zan jaubea eta erriko alkatea zan.
1745 urtean, Bartolome Urrosolo agertzen da jaube lez.
1796 urtean Bartolome Egurrola.
1814 urtean, bere jaubea bertan bizi dala esaten da.
1823 urtean 1.063 errialeko errenta izentatu eutsen oiñarrizkotzat, orren araberan erriagaz erantzuteko.
1825 urtean, Zubizarreta-lzeta senar emazteak, seme bat eta morroi bat bizi ziran bertan.
1988 Claudio Egurrola eta M.ª Bilbatua senar emazteak dira jaubeak, eta euren iru semegaz bertan bizi dira.
44 hektarea.
26 bei, 2 idi, 12 txal, txarri bi eta oilloak daukez.
Etxe au 1963 urtean barriztatua izan zan.

## ANDIKA

1745 urteko zerrendan agertzen da lenengoz. Jaubea Gabriel Ibarrolaza.

1796 urtean, ANDlKADA, esaten da. Jose lbarrolaza jaube.
1814 urtekoan, bere jaubea bertan bizi dala esaten da.
1823 urtean, 117 errialeko oiñarrizko errenta ipini eutsen, udaleko diru premiñetan neurri orretan erantzuteko.
1825 urtean Bereziartua familia bizi zan bertan bere seme bigaz.
1988 Ramona Gabilondo Mallea alarguna da jaubea.
Bertan bizi da bere seme Nikasio, Domingo eta Jesus Zarandonagaz.
8 hektarea.
6 bei, 5 txal, asto bat, oillo, koneju eta txarriak.

## ANDRINUA (ANDREU)

lzen onetako baserri bi ezagutzen dira:

Bat, **Andreu Azpi** edo ta **Bekua.** Bestea, **Andreu Gane** edo ta **Goikua.**

### Andreu Azpi

1704 urtean, Andrinua de Yusso esaten da. Jaubea Bartolome Andrinua. Bertan bizi zan.
1745 urtean, M. Olea agertzen da jaube lez eta bertan bizi.
1769 urtean Juan Olea. Urte onetan Andrinua "Casilla" esaten da, au da, etxetxua.
1814 urtean, errenteru bat bizi zan.
1823 urtean 245 errialeko oiñarria ipini eutsen, erriko gorabe-retako neurritzat.
1825 urtean sei lagun bizi ziran bertan: Arriaga-Olea, senar emazte zarrak. Arriaga-Solozabal senar-emazte gazteak eta euron seme alaba bi.
1988 Pedro Elu eta Jose Manuel Elu aita-semeak bizi dira.
Jaubea: Felix Madariaga Azumendi.
6 hektarea.
4 bei, 4 txal, asto bat, auntz eta oilloak.
Tolarea dauka, baiña azken 26 urtetan ez da erabili.

### Andreu Gane edo Goikua

1704 urtean Franzisko Atxutegi zan jaube.
1745 urtean Juan lmitola.
1796 urtean Mutrikuko monjaena.

1823 urtean 702 errial izentatu eutsezan oiñarrizko errenta lez.

1825 urtean zazpi lagun bizi ziran. Arriaga-Buztindui senar emazteak eta euren seme alabak.

1988 Manuel Mandiola eta Dolores Gisasola senar emazteak dira jaubeak.
Ama Illari eta Ana ta Maite alabak bizi dira bertan.
22 hektarea. 7 bei, 9 txal, idi bi, asto bat eta untxiak (konejuak)
Tolarea dauke, bai eta ogi erreteko labea be.

## AROSTEGI

**Arostegi Andi**

1704 urteko erroltzean Peñaflorida'ko kondearen jaubetasuneko agertzen da.

1745 urtekoan, Katalina Mallabiabarrenengoaren izenean.

1796 urtean, Franzisko Gandiaga ezagutzen da jaube lez.

1823 urtean 434 errialeko oiñarrizko errenta ezagutu eutsen, orren araberan erriari erantzuteko.

1988 Jabier Arrieta eta Jeronima Maguregi senar emazteak bizi dira. Errenteruak dira.
Jaubetasuna Josefa Solozabal'en izenean dago.
9.5 hektarea.
4 bei, 6 txal, asto bat eta oilloak.

**Arostegi barri**

1745 urteko erroltzean Arostegi etxe barria irakurten da. Franzisko Barinaga zan jaube.

1745 urtekoan, Martin Zezeil agertzen da jaube lez.

1823 urtekoan, 210 errialeko oiñarrizko errenta izentatu eutsen, bere arabera erriagaz arduratzeko.

1988 Maria Olabe Gandiaga da jaubea.
1,7 hektarear Etxe oneri gaur ASTAZULO deitzen dautser

## BARINAGA-REMENTERIA

1705 urteko erroltzean esaten da, etxe au Ansotegi'ren oiñordeko txikitxuen etxea zala, lenago Franzisko Barinagarena izana. Eta Adrian Barinaga bizi zala bertan.

1745 urtean lñazio Ansotegi agertzen da jaube lez, eta Ventura Zuazo bertan bizi.

1796 urtean Benito Ansotegi zan jaube.

1814 urtean, errenterua bizi zan.

1823 urtean 154 errialeko errenta izentatu eutsen, oiñarrizko lez, neurri orretan erriagazko ordainbearrak egiteko.

**Barinaga-Errota**

1745 urtean esaten da lñazio Ansotegirena zala eta Ventura Zuazo'k erabilten ebala.

Urte onetan, beste etxearen lagungarri lez "azesoria" etxetxu bat agertzen da, jaube berberarena.

## BARRENETXEA

1704 urtean Martin Sarasua zan jaube eta Andres lbarrolaza bizi zan bertan.

1745 urtean Bixente Agirre, jaube.

1796 urtean Juan Antonio Ibarluzea.

1825 urtean Joakina Gisasola alarguna. Teresa Gisasola alarguna eta Maguregi anai arreba ta ezkongaiak bizi ziran.

1823 urtean 257 errialeko errenta izentatu eutsen, erriko goraberak neurri orregaz ordaintzeko.

1988 Utsik dago.

Jose Mari lbarluzea eta Miren Idoeta senar emaztien izenean dagoz jaubetasun agiriak.

## BASABE

1704 urtean "Basabe Urrutia" deitzen zan. Antonio Belarroa zan jaube.

1745 urtean, Juan Antonio Belarroa jaube.

1796 urtean, Bixente Belarroa.

1825 urtean Zubizarreta-Arrasketa senar-emazteak eta seme bi bizi ziran. Bai eta Baskaran Totorikaguena senar emazteak eta seme bi bestean.

1823 urtean 887 errialeko oiñarrizko errenta izentatu eutsen, erri kontuetarako.

1988 Etxe bizitza bi daukaz.

Batean Jose Barruetabeña da jaubea. Eta Juana alarguna, Jose Mari Etxabe eta Mari Nieves senar emazteak eta onein bost seme alaba bizi dira.

11 hektarea.

6 bei, 6 txal, zezen bat, txarri bi eta oilloak.

1936/37 ko gerratean, 61 lagun eibartar eta elgoibartarrak bizi ziran bertan. Bertako kortan ikastola bat antolatu eben eta Miranda maixua euki eben irakasle.

Beste etxean, Paula Oregi Mallea alarguna da jaube eta bere alaba Pilar eta Migel Angel Arrizabalaga senar emazteak eta onein seme alaba bi bizi dira.

9 hektarea.

Asto bat, 7 ardi.

## BEREINKUA

Izen onetako baserri bi ezagutzen dira.

### Bereinkua Goien

1704 urtean, Bereikua lez agertzen da. Jaubea Franzisko Bereikua.

1745 urtean Juan Arriaga zan jaube.

1795 urtean, bardin jarraitzen dau jaubeak.

1814 urtean bere jaubeak darabillala esaten da.

1823 urtean, 705 errialeko oiñarrizko errenta izentatu eutsen erriko goraberetarako.

1825 urtean Arriaga-Azpiri senar emazte zarrak eta Solozabal-Arriaga senar emazte gazteak bizi ziran.

1988 Franzisko Solozabal Madariaga da jaube.

Antonio Solozabal eta Justa Madariaga seme alabak bizi dira.

3 bei, 6 txal.

### Bereinkua Arrutain (Erdikoa)

Utsik dago.

Pedro Solozabal Madariaga'ren izenean dago jaubetasuna.

## BUSTINEGI

1704 urtean Bustiñegi etxe nausia agertzen da. Jaubea Martin Garro. Sugal erdikakoa zan.

Beste etxetxu bat egoan, lbarra'ren oñordekoena, sugal laurdenekoa.

Eta beste bat, Bartolome Maguregi'rena, au be sugal laurdenekoa.

1745 urtean, Agustin Elordi agertzen da jaube lez.

1796 urtean, Markiña'ko monjaen jaubetasunez agertzen da.

1825 urtean Josefa lriondo bizi zan, 42 urtedun alarguna, bere iru seme alabekaz.

1988 Bertan bizi diranak:

Antonia Ibarluzea, alarguna.

Julian Rementeria, erriko karteroa.

Franziska Rementeria eta Franzisko Aierza, senar emazteak.

Onein alaba Leire eta Maribel, Migel Angel Lertxundi'ren emaztea, eta Xabat euron semea.

Jaubetasun agiriak Franzisko Aierza'ren izenean dagoz.

5 hektarea.

4 bei, txal bi, asto bat, txarri bat eta oilloak daukez.

## ELUA

1705 urtean Prudencio Elua zan jaubea eta bertan bizi zan. Sugal (fogera) erdikatzat egoan.

1745 urtean, Antonio Elua zan jaube.

1796 urtean, Andres Elua.

1823 urtean, 175 errialeko errenta izentatu eutsen, erriko goraberetan oiñarri orregaz erantzuteko.

1825 urtean, bost lagun bizi ziran, Elua-lbarluzea senar emazteak eta iru seme alaba.

1988 Jose Luis Alberdi eta M.ª Luisa Guenaga senar emazteak dira jaubeak eta eurekin batean euren alaba Mari Jose, Elena, Alexander Urien'egaz ezkondua eta onein semea bizi dira.

10.5 hektarea.

bei bi, txal bi, asto bat, txarri bat, oillo eta untziak daukez.

1936/37 ko gerratean, 16 gudarik lo egiten eben bertan.

Baserri au lurrez Etxebarría da. Eleizaz Barinaga'ko parrokian sartzen da.

## ESKUTASOLO

1704 urtean, Antonio Eskutasolo zan jaube.
1745 urtean, Franzisko Eskutasolo abadear
1796 urtean, Eibar'ko monjaena zan.
1814 urtean, monja orrein errenteru bat bizi zan.
1823 urtean 586 errialeko errenta izentatu eutsen, erriko gora-beretan neurri orretan erantzuteko.
1825 urtean Bastida-Elustondo senar emazteak eta seme bat bizi ziran bertan.
1947 Sua artuta egoalako, barriztu egin eben.
1988 Alfonso Unamuno Bastida da jaubea.
11,5 hektarea daukaz.
6 bei, 6 txal, beor bat, asto bat, txarri bi eta 14 auntz daukaz.

## GALARZA

1704 urteko erroltzean Maria Azarrolaza alargunarena dala esaten da.
1745 urtean Domingo Zubizarreta agertzen da jaube lez.
1796 urtean Andres Zubizarreta.
1814 urtean bere jaubea bertan bizi dala esaten da.
1823 urtean 588 errialeko oiñarrizko errenta izentatu eutsen, orren araberan erriagazko bere zergak ordaintzeko.
1825 urtean, bederatzi lagun bizi ziran.

## IBARGUEN

1704 urtean, Andres Ibarguen zan jaubea.
1745 urtean, Kristobal Guenetxea.
1796 urtean, Andres Guenetxea.
1814 urtean, jaubeak erabilten eban.
1823 urtean, 537 erria) izentatu eutsezan oiñarrizko errenta lez, orren neurrian erriko goraberetan erantzuteko.
1825 urtean, zazpi lagun bizi ziran: Goenetxea-Aguirre senar emazteak eta euron bost seme alaba.
1988 Emeterio Guenetxea eta Sabina Maguregi senar-emaz-

teen izenean dago jaubetasuna eta eurekin batean seme alaba bi bizi ziran.
15 hektarea.
10 bei, 9 txal, txarri bat, untzi eta oilloak.
Garaixe dauka, zarra.
Karobi bat be bai, baiña azpaldi erabili barik.

## IBAUN (BEKOA)

1704 urtean Bartolome Unamunzaga'zan jaube. lbayguren de yusso irakurten da.
1745 urtean Migel lbarluzearen jaubetasunetik lortua dala esaten da.
1796 urtean, ez da agertzen bere aipamenik.
1988 Jose Juan Bergara Osa eta Maria Luisa Manzisidor senar emazteak dira jaubeak eta euren alaba Aintzira'gaz bizi dira.
1,7 hektarea.

## IBAUN (GOIKOA)

1704 urtean Matias lbarluzea zan jaube. Garbi agertzen da lbayguren de susso deitura.
1745 urtean, Adrian Beiña.
1823 urtean, 411 errial izentatu eutsen oiñarrizko errentatzat.
1988 urtean, Balbina Guenetxea (alarguna) eta Jose Barinagarementeria etxearen jaubeak bizi dira bertan, onen emazte Miren Azpiazu'gaz.
8 hektarea.
6 bei, lau txal, untzi eta oilloak.
Tolarea be ba dauke, baiña azken 20 urtetan erabili barik.

## IBARRA

1704 urteko erroltzean Juan Ibarra agertzen da jaube lez.
1745'koan, Agustin Txopitea.

1796 urtekoan, Jose Txopitea.
1823 urtean, 257 errialeko oiñarrizko errenta ezagutu eutsen, bere arabera erriagazko ardurak artzeko.
1825 urtean Jose Txopitea eta Teresa Suinaga senar emazteak bizi ziran.
Bai eta Diego Arrasketa eta M. Andresa Txopitea senar emazteak, eta Bixente Txopitea ezkongaia.
1988 Utsik dago.
Jaubetasuna, Langille Aurrezki Kutxa'rena da.

## IRAMATEG I

1796 urtean Agustina lramategi zan jaube.
1704 eta 1746 ko zerrendetan ez da agertzen, baiña 1796'koan 1704 geroztik egiñiko etxeen zerrenda emotean, au be sartzen da. Bost-urtetako, kinkenio bakoitzeko, 44 dukaten errenta daukala esaten da.
1825 urtean 6 lagun bizi ziran bertan, Maguregi-Zubillaga senar-emazteak eta euren lau seme alaba.
1988 Angel Aierdi eta Jose Mari Aierdi alarguna bizi dira bertan. Onen izenean dagoz eskriturak. Eta bere seme bi be, Cristina eta Jesus Mari bertan bizi dira.
9,5 hektarea.
Bei bi, iru txal eta oilloak daukez.

## IRIGUEN

Izen onetako iru etxe ezagutzen dira:
**Iriguen Beña** edo **Erdikua.**
**Iriguen Guena** edo **Goikoa.**
**Iriguen Aldekua** edo **Aurrenekua.**

### Iriguen Beña

1704 urtean lriguen Olalde lez irakurten da. Jaubeak: Juan Galdona'ren ondorenguak.
1745 urtean, Iriguen erdikoa lez dator, eta Asensio Lobiano jau be.
1796 urtean, Jose Gandiaga zan jaube.
1823 urtean 493 errialeko oiñarrizko errenta izentatu eutsen, bere erriagazko arduretarako.

1825 Andres Maguregi eta Fca. Suinaga senar-emazteak eta onein seme alabak bizi ziran.

1988 Katalina Agirregomezkortaren jaubetasunean dago.

2,5 hektarea.

Orain 30 urte armarria ipini eutsen.

Garaixa dauka, benetan ederra.

**Iriguen Guena**

1704 Juan lribarria eta emaztea eta Franzisko Muñoz eta berea ziran jaubeak.

1745 Iriguen goikoa lez agertzen da. Juan Zubizarreta jaube.

1796 lriguen, soillik. Etxe bizitza bi. Baten jaube Jose Muniozguren zan eta bestekoa Fco. Ugarteburu.

1823 Etxe bizitza bakoitzari 257 errialna zeaztu eutsezan, oiñarrizko errenta lez.

1825 Baten Maria Iriguenpagate alarguna bizi zan, 13 urtedun neska bat eta morroi bategaz.

Bestean M.ª Dominga Maguregi, 36 urtedun alarguna eta iru seme txiki bizi ziran.

1988 Akerretxe be deitzen dautse. Etxe bizitza bi. Biak utsik. Baten jaubea Paulo Bergara da, eta etxe konpontzen dabil. Bestekoa Jose Lejardi.

**Iriguen Aldekua**

1704 urtean Iriguen Aurrenekoa lez agertzen zan. Antonio lriguen jaube.

1745 urtean, Antonio Gandiaga.

1796 urtean, Joakin Barroeta Aldamar.

1823 urtean 587 errialeko oiñarrizko errenta zeaztu eutsen, erriagazko ordainketetarako.

1825 Zazpi lagun bizi ziran. Gandiaga-Maguregi senar emazteak eta bost seme alaba.

1988 Paulo Bergara eta Gregoria Urkidi bizi dira Jose Mari eta Amaia seme-alabekaz. Au J. A. Artaetxebarria gaz ezkonduta dago eta seme bigaz bertan bizi dira.

## ITURRARAN

1796 urtean agertzen da lenengoz.

Iturraran bekoa, esaten da. Pedro Jose Gabiola jaube.

1829 469 errialeko oiñarrizko errenta izentatu eutsen, orren arabera erriko ordainketak egiteko.

1825 lru lagun bizi ziran. Fco. Alberdi alarguna eta Juan Alberdi eta Joakina Garate, senar emazteak.

1988 Joakina Zenikazelaia alargunaren izenean dagoz jaubetasun agiriak. Bertan bizi da bere seme Jose Antonio eta Eustakio eta onen emazte M. Jesus Garate'gaz.
10 hektarea.
4 bei, 4 txal, 1 txarri.
Labea be ba dauka.

## ITURRETA AGIRRE

1704 urteko erroltzean Agirre-Iturreta lez agertzen da. Jaubea Antonio lturralde.

1746 urtean, jaube berberaren izenean dator.

1796 urtean, J. A. Iturralde'ren alarguna agertzen da jaube lez.

1798 urtean, Antonio lturralde jaube.

1823 urtean 233 errialeko oiñarrizko errenta ezagutu eutsen, erriko goraberetarako neurri orretan erantzun al izateko.

1825 urtean lturreta-Jauregi lez ezagutzen da, eta Olalde-Arrieta senar emazteak ete euren iru seme alaba bizi ziran.

1988 Ez da iñor bizi bertan.

## LAUSAGARRETA

1704 urtean Cristobal Berroeta agertzen da jaube.

1745 urtean Migel Berroeta.

1796 urtean, Barroeta etxea.

1823 504 errialeko errenta oiñarrizkoa izentatu eutsen, erriaren goraberetarako.

1825 urtean, Teresa Mandiola alarguna, Ansotegi-Gandiaga senar emazteak, onein lau seme alaba eta Antonio Gandiaga ezkongaia bizi ziran.

1988 Etxe bizitza bi daukaz

1.—Felix Zelaia eta Josefa Bereziartua bizi dira eta jaube dira.

4.500 m2.

2.—Jabier Zelaia eta Margarita Olano eta onein alaba bi bizi dira.

## LOBIANO (LOMIÑO)

lzen onegaz **Lobiano Errota, Lobiano Goikua** eta **Lobiano Barrena** ezagutzen dira.

**Lobiano Barrena**

1704 urtean Madalena lbarguen zan jaube.

1745 urtean Jose Lobiano.

1796 urtean, Maria Txopitea.

1823 urtean, 397 errialeko oiñarrizko errenta ipini eutsen, erriagaz orren erabidean erantzuteko.

1988 Utsik dago, erdi jausita.

6 hektarea.

Juan Bereziartua Arriola'ren izenean dago jaubetasuna.

**Lobiano Goikoa**

1704 urtean Juan Aldama'ren ondorengoak ziran jaube.

1745 urtean Pedro Aldama.

1796 Joakin Barroeta.

1823 502 errialeko oiñarrizko errenta zeaztu eutsen, erriagaz neurri orretan erantzuteko.

1988 Doroteo Urzuriaga eta Eusebia Arizmendiarrieta bizi dira bertan, semeagaz. Jaubeak dira.

9 hektarea.

3 bei, 3 txal, asto bat eta txarri bat.

Ogia erreteko labea dauke, amar bat urtetan erabili barik.

Garaixa, zarrenetarikoa.

**Lobiano Errota**

1796 urtean Maria Txopitearen izenean egoan bere jaubetasuna.

1814 urtean, errentan egoala esaten da.

1935 urtean, errota lez lan egitea itxi eben.

1988 Martin Bereziartua eta Eusebia Urkidi senar emazteak euren seme alaba Aitor, Xabier eta Josunegaz bizi dira.

Azken au Jose L. Lejardi'gaz ezkonduta dago eta bera ta euren alaba Ainhoa bertan bizi dira. Errenteruak dira.
Jaubetasuna Juan Bereziartuaren izenean dago.
6 hektarea.
3 bei, 3 txal, 3 auntz, txarri bi ta oillo ta untziak daukez.

## MAGUREGI

Etxe bi ezagutzen dira izen onetakoak:

**Maguregi Erdikoa**

1704 urtean goikoa lez agertzen da. Jaubea Bartolome Maguregi.
1796 urtean Jose Ugarteburu jaube.
1814 urtean, bere jaube dan Franziskok erabilten dauala esaten da.
1823 urtean, 402 errialeko oiñarrizko errenta izentatu eutsen, erriagazko goraberetarako.
1825 urtean, Maguregi-Gerenabarrena sendia bizi zan, seme bategaz.
1988 Jaubea Jose Martin Kalzakorta bere emazte Bernarda Arizmendiarrieta'gaz bizi da bertan, eta euron alaba Arantza, J. A. Azkuna'gaz ezkonduta.
6 hektarea.

**Maguregi Aldekua**

1704 urtean Maguregi Aurtenetxea, esaten da. Jaubea Juan Maguregi.
1745 urtean be Maguregitarrak jarraitzen dabe jaube lez.
1796 urtean Maguregi Aldekua, deitzen da, eta Juan Maguregi jaube.
1823 urtean 527 errialeko oiñarrizko errenta izentatu eutsen, orren araberan erriagaz erantzuteko.
1988 Utsik dago.
Bertan egoan garaixa jausi egin zan 1968 inguruan.
Jaubetasuna Jesus m. Arruti, Amaia eta Jesus M. Egaña'ren izenean dago.
3.000 m2.

## MAX UBEI

1988 Jose M.ª Mandiola eta Josefa Egidazu, senar emazteak eta etxeko jaubeak bizi dira bertan, Mari Karmen alabeagaz.
14,3 hektarea.
Ogi erreteko labea ba dauke.
Beor bat eta zaldi bat daukez.
1936/7 gerra denporan, bertokoak Markiña'ko Illoro-Beitia baserrira aldatu ziran, eta an bizi iru illabetetan. Gudariak ospitaltzako erabili eben baserri au zazpi illabetetan.

## OTXANDEGI

**Otxandategi** eta **Otsategi** be deitua izan da.
1746 urtean, Jose Ubilla abadearen kapillautzari egokiona da.
1796 urtean, Juan Meabe abadearen kapillautzari. Urte onetan Otxandategi lez agertzen da.
1814 urtean, Lobiano'ko bizilaguna bizi zala esaten dar
1823 urtean, 597 errialeko oiñarrizko errenta izendatu eutsen, erriko goraberetarako.
1825 Otxandategi lez ezagutzen da. 3 lagun bizi ziran bertan: Jaio-Unamuno senar emazteak eta 9 urteko alaba.
1988 Martin Solozabal eta M.ª Arrillaga senar emazteen izenean dago jaubetasuna eta bertan bizi dira Ana, Juan eta Fernando semeekin. Azken au Koro Salegi'gaz ezkondua da eta Janire alabeagaz bertan bizi.
14,5 hektarea.
6 bei, idi bat, 7 txal auntz bat, txarri bat, Soria'ko basoetan arrapatutako basurde bat eta ollo ta untziak daukez etxean.

## UBEGI

**Ubegi** bi ezagutzen dira paperetan.

### Ubegi Sakona

1745 urtean Juan Ubegi agertzen da bertako jaube.
1796 urtean Ubegi sakona edo Surdin, esaten da. Jaubea Bixente Maguregi.

1814 urtean, Ubegi Sakona bere jaubeak erabilten dauala agertzen da.

1823 urtean, 362 erria) izentatu eutsen oiñarrizko errenta lez.

**Ubegi**

1745 urtean Merzedeko monjen jaubetasuneko agertzen da.

1796 urtean be monjen izenean jarraitzen dau.

1814 urtean Ubegi Gaspar izenagaz agertzen da, eta errenterua bizi dala bertan esaten da.

1823 urtean 175 errial izentatu eutsezan oiñarrizko errenta lez.

1825 urtean Gaspar Mandiola eta emaztea bizi ziran euren 34 urtedun seme ezkongaiagaz, baita beste alaba bigaz be, eta Mandiola-Mallagarai senar emazteak.

1988 Utsik dago.
Jaubetasun agiriak Isidro Mandiola'ren izenean dagoz.
17 hektarea.

## SANTA KUTZ

1746 urteko erroltzean, ermitako etxe lez agertzen da, eta bertan "beata" bi bizi dirala esaten da.

1796 urteko erroltzean erriarena dala esaten da: "de esta república".

1815 urtean errenteru bat bizi zala agertzen da.

1823 urtean 165 errialeko oiñarrizko errenta ezagutu eutsen bertakoari, neurri orregaz erriari erantzuteko.

1825 urtean, Korta-Bereziartua senar emazteak eta euren seme alaba bi bizi ziran bertan.

## UGARTEBURU

Etxe bi zeaztu bear dira: **Ugarteburu Goikoa.**
**Ugarteburu Errota.**

**Ugarteburu Goikoa**

1704 erroltzean Martin Ugarteburu ezagutzen da jaube lez.

1745 urtean, Iñazio Ugarteburu. Alkatea zan.

1796 urtean Juan Ugarteburu zan jaube.

1823 urtean, 827 errialeko oiñarrizko errenta ezagutu eutsen, erriagaz neurri orretan bear-izanak ordaintzeko.

1825 urtean, Agustin Baskaran bizi zan bertan eta beragaz Ugarteburu abizeneko lau ezkongai, 52, 48, 46 eta 40 urtedunak.

1988 Utsik dago.

Jaubetasuna, Jose M. Etxabe'rena da.

13 hektarea.

20 bei, 7 txal eta beor bat.

**Ugarteburu Errota**

1745 urtean agertzen da, orduko erroltzean.

1796 urtekoan esaten da errotan ez egoala etxe-bizitzarik.

1988 Jazinta Garate, bere seme Pedro Zabala eta M. Gisasola, senar emazteak eta onein seme alaba Lurdes eta Josu bizi dira.

Jaubetasuna Pedro Mari Zabala'ren izenean dago.

3 hektarea.

Bei bat, 3 txal, 4 ardi, oillo eta untziak daukez.

## URBIETA

1705 Etxetxu lez agertzen da urte onetan. Jaubea Migel Basabe. Sugal (fogera) laurdeneko.

1745 Jaubea, Bixente Agirre.

1796 Juan Antonio lbarluzea jaube.

1814 Bere jaubea bizi dala bertan esaten da.

1823 294 errialeko errenta oiñarria izentatu eutsen erriagazko ondainketetarako.

1825 Maria Urbieta, alarguna bizi zan eta seme bi, ezkongaiak.

1988 Etxe bizitza bi daukaz.

Baten Ramon lbarluzea eta Bibiana Manzisidor, euron seme alaba Amaia eta Jose Mari, onen emazte Miren ldoeta eta lsmael eta lban euron seme alabak bizi dira.

14.5 hektarea.

13 bei, 2 txal, 2 asto, zaldi bat, 6 beor, txarri bat, oillo eta untziak.

Beste etxe bizitzan Luis Mari lbarluzea eta Judith lrusta bizi dira.

Eurok dira jaubeak.

# URROSOLO

lzen onegaz Urrosolo Adametxea eta Urrosolo Andia edo Goikoa ezagutzen dira.

## Urrosolo Adametxea

1704 urtean "Urrusolo llamado Adame" irakurten da.
Markiña'ko Zelaia etxeko etxejauntzakoarena zan. Domingo Arostegi'ren eskuetan egoan etxejauntza ori. Bizi eziñiko eran egoan etxea. "lnhabitable", irakurten da erderaz.

1745 urtean Manuel l. Agirre zan jaube.

1796 urtean "Damaetxea" esaten da eta Markos Agirre jaube.

1814 urtean "Adametxea". Errenterua bizi dala esaten da.

1823 urtean, 294 errialeko oiñarrizko errenta izentatu eutsen, erriaren goraberetan neurri orretan ordaintzeko.

1825 lriguen-Akarregi sendia bizi zan alaba bategaz.

1988 Agapito lriguenpagate eta Bibiana Solozabal senar emazteak dira jaubeak eta Tere euren alaba ta bere senarra Jose Antonio Zenarruzabeitia'gaz bizi dira.
Eurekin bizi da Juliana Apoda alarguna be.
Errota dago. Ogi erreteko labea be bai, eta taloa egiten dau.
2 bei, 2 txal.

## Urrosolo. Urrosolo Goikoa

1704 urtean M. Urrusolo zan jaube.

1745 urtean, Eibar'ko lsasi'ko monjaena.
Errota be Eibar'ko monjena zan erdia ta beste erdia Domingo Agirre'rena.

1796 Jaubetasun bardiñean jarraitzen eben etxe eta errotak.

1985 Etxea barriztu egin zan.

1988 Maria Gerenabarrena ama, Ramon Mendiolea eta lnes Atxurra senar emazteak (etxeko jaubeak) eta onein alaba lratxe bizi dira bertan.
Bei bat, txal bi.
7,5 hektarea.

## Urrosolo (kan)

1988 Franzizko Ugarteburu eta Maria Cruz Zelaia dira jaubeak eta seme bategaz bizi dira.
2,5 hektarea.

## URTA (URTAO)

1704 ko erroltzetan Franzisko Urtao agertzen da jaube lezr
1796 urtekoan, Franzisko Zubillaga:
1815 urtean, Urtado Etxebarria, esaten da eta errenterua bizi zala.
1823 urtean, 187 errialeko errenta izentatu eutsen, oiñarrizko lez, erriko artuemonetarako.
1988 Jabier Arza eta M. Jesus Zubillaga senar emazteak bizi dira, Joseba eta Maider seme alabekaz. Etxeko jaubeak dira.
5,5 hektarea.
2 bei, 3 txal, asto bat eta oilloak.

## ZABALA

1704 urteko erroltzean, Domingo Agirre agertzen da bertako jaube.
1746 urtean, Domingo Zubizarreta.
1796 urtekoan, Andres Zubizarreta.
1814 urtean, Galarza'koak erabilten dabela esaten da.
1823 urtean, 352 errialeko oiñarrizko errenta ezagutu eutsen, erriko goraberetan neurri orretan erantzuteko.
1825 urtean Ibarluzea Gandiaga senar emazteak eta morroia bizi ziran.
1988 Angel Guenaga, Felix Guenaga eta Begoña lriguenpagate senar emazteak eta Maria Luisa eta Ainhoa seme alabak eta Agustin Larruskain bizi dira. Errenteruak dira. Jaubetasuna FUClSA'ren izenean dago.
3 hektarea.
11 bei, txal bi eta oilloak daukez.

# UNAMUNZAGA AUZOA

## AGIRRE

**Agirre** izeneko etxe bi ezagutzen dira: **Aguirre Bekua** eta **Agirre Goikua.**

**Agirre Bekua** edo **Agirrazpi.**

1704 urtean Feñaflorida'ko kondearen jaubetasuneko agertzen da

1746 urtean Andres Agirre agertzen da jaube lez.

1796 urtean Agirreoa de abajo, irakurten da.

1823 urtean 408 errialeko errenta izentatu eutsen, oiñarrizko lez, erriagazko goraberetan erantzuteko.

1835 urtean zazpi lagun bizi ziran: senar-emazte zarrak, euren seme-ta emaztea, onein semea eta senide ezkongai bat.

1988 Jose Arrillaga eta Angela Ansola dira jaubeak eta euren seme Jon eta Aritz eurekin bizi dira.
16,5 hektarea.
3 bei, 4 txal, asto bat, oilloak.

**Agirre Goikua. Agarre Gane**

1704 urtean Bartolome lmitola agertzen da jaube lez.

1746 urtean Agirre-oa irakurten da eta Kristobal Maguregi jaube.

1796 urtean be Agirre-oa agertzen da eta Madalena Agirremurua jaube.

1823 urtean, 408 errialeko errenta izentatu eutsen, oiñarrizko lez, erriagaz go erantzun bearretarako.

1825'n 6 lagun bizi ziran.

1988 Utsik dago. Diñoenez 1936'ko gerra aurretik ustu zan.
10 hektarea.
Jaubetasun agiriak Jose M. Arginzoniz'en izenean dagoz.

## ALZIBAR

1796 urtean, etxea au Markiña'ko Monja Agustiñena zala esaten da.

1814 urtean, errenteru bizi dala.

1823 urtean, 107 errialeko oiñarrizko errenta izentatu eutsen, kopuru orregaz erriko artu-emonetan erantzuteko.

## AREJITA

lzen onegaz lau etxe ezagutzen dira: **Arejita Bekoa**
**Arejita Goikoa**
**Arejita Zuria**
**Arejita Etxetxua**

**Arejita Bekoa (Aizte Azpi)**

1704 urtean, erderazko oituraz, Arejita de Yusso izenagaz agertzen da urte onetako erroltzean eta Martin Arejita bertako jaube, eta Juan Lejardi bertan bizi.

1745 urtean, Arejita Azpikoa lez dator, eta Juan Bta. Otasolo bertan biziten.

1796 urtean, be Azpikoa lez irakurten da, eta Josefa Mendibe bertan bizi.

1823 urtean, 642 errialeko oiñarrizko errenta ezagutu eutsen, orren araberan erriko erantzun bearrak egiteko.

1825 urtean zazpi lagun bizi ziran.

1988 urtean, etxe bizitza bikoa da.

Baten, bertako jaube diran Agustin Zelaia eta Martina Erezuma senar emazteak bizi dira euren seme Carlos'egaz.

9 hektarea.

4 bei, 4 txal, mando bat, oillo ta untziak.

Bestea utsik dago.

Simon Zelaia da bertako jaube.

9 hektarea.

**Arejita Goikoa**

1704 urtean, erderazko izenez, Arejita de Susso izenagaz agertzen da eta Juan Arejita bertako jaube eta bertan bizi zan.

1745 urtean Domingo Arejita agertzen da jaube lez.

1796 urtean Arejita gañekoa esaten da, eta Jose Arejita jaube.

1823 urtean, 350 errialeko oiñarrizko errenta izentatu eutsen, erriko erantzun bearretarako neurritzat.

1825 urtean, sei lagun bizi ziran bertan.

1988 urtean, Utsik dago.
Jose Baskaran'en izenean dagoz jaubetasun agiriak.
7 hektarea.

**Arejita Zuria (Aizte Etxe Zuri)**

1705 urteko erroltzean Juan Arejita agertzen da jaube lez.
1745 urtean, bardin.
1796 urtean, Martin Arejita.
1814 urtean be bere jaube Martin'ek erabilten dauala esaten da.
1823 urtean 161 errialeko oiñarrizko errenta izentatu eutsen, erriko erantzunetarako.
1825 urtean iru lagun bizi ziran, senar emazteak eta semea.
1988 urtean, utsik dago.
Domingo Zubiaurre da jaubea.
8 hektarea.

**Arejita Etxetxua (Aizte Etxetxua)**

1745 urtean agertzen da lenengoz. Juan Bta. Olasolo zan jaubea eta Juan Garro bertan bizi.
1796 urtean, Josefa Mendibe agertzen da jaube lez.
1823 urtean, 233 errialeko oiñarrizko errenta ezarri eutsen erriko ordainketak neurri orretan egiteko.
1825 urtean, iru lagun bizi ziran, alargun bi eta gazte ezkongai bat, morroia.
1988 urtean Utsik dago.
Simon Zelaia Etxaniz eta Agustin Zelaia Larrañagaren izenean dago jaubetasuna.

## ARENAZA (ARENTZA)

1746 urtean Min de Arejita'ren izenean agertzen da eta F. Olabarria bertako bizilagun lez.
1796 urtean Arenza izena irakurten da eta Antonio Ansola bertan bizi.
1814 urtean be A. Ansola bizi zan bertan.
1823 urtean, 187 errialeko oiñarrizko errenta izentatu eutsen, erriko goraberetarako.
1988 Leon Ansola eta Manuela Guenaga senar emazteak dauke jaubetasuna eta bertan bizi dira, bai eta euren

seme Jabier Arantza Astigarragaz ezkondua eta onein seme Asier.
13 hektarea.
5 bei, 5 txal, oillo eta untziakr
Ogia erreteko labea dauker

## ARETXULUAGA (ARITXULUAGA)

1704 urteko erroltzean Martin Aretxuluaga agertzen da bertako jaube.
1743 urtean Adrian eta Migel anaiak jaube eta bertan bizi.
1796 urtean Arritxuluaga lez agertzen da. Migel Arritxuluaga jaube.
1823 urtean, 490 errialeko oiñarrizko errenta ezagutu eutsen, erriagazko ordainketetarako.
1825 urtean, lagun bi bizi ziran, anaiak, biak ezkongaiak.
1988 Jose Manuel lbarluzea eta Franziska Bernedo senar emazte jaubeak bizi diran bertan, eta eurekin Jose Luis lbarluzea ta Mari Jose Bikandi senar emazteak eta Lander eta Nerea onein seme alabak.
20 hektarea.
7 bei, 3 txal, asto bat, 14 ardi eta aari bat eta oilloakr

## AZARROLAZA (AZALOTZA)

1704 urtean Juan Bta Larruskain agertzen da bertako jaube lez.
1745 urtean J. Otxoa Axmendia.
1796 urtean Andres Azmendiar
1823 urtean, 758 errialeko oiñarrizko errenta izentatu eutsen, erriko erantzunetarako.
1825 urtean zazpi lagun bizi ziran, aita alarguna, koñata zarra eta bost seme alaba.
1988 Ramon Gisasola eta Franziska Txurruka senar emazteak bizi dira eta Arantzazu eta Julian seme alabak.
6 bei, 6 txal, beor bi, 3 auntz, aker bat, oillo eta untziak.
Tolarea be ba dauke.
36 hektarea. (Azalotza, Otsolo eta Etxetxu alkartuta).

**Azarrolaza Etxetxua**

1705 urtean "La casilla de Azarrolaza" esaten da, Juan Bta. Larruzkain'ena.

1823 urtean 212 errialeko oiñarrizko errenta izentatu eutsen etxe oneri.

**BALZOLA**

**Balzola Andi**

1704 urteko erroltzean Antonio Balzola agertzen da bertako jaube.

1745 urtekoan, izen berberetan agertzen da.

1796 urtean Jose Balzola zan jaube.

1823 urtean, 753 errialeko errenta izentatu eutsen oiñarrizko lez, orren araberan erriagaz bere premiñetan erantzutekor

1825 urtean iru lagun bizi ziran; senar emazteak eta alaba.

1988 Jose Juaristi'ren izenean dago jaubetasuna.
Bizitza biko etxea izan zan.
14 hektarea.
9 bei, txal bat, asto bat eta oilloak daukez bertan.

**Baltzola Txiki**

1704 urtean Antonio Balzola zan bertako jaube eta Min Arragueta bizi zan bertan.

1745 urtean, izen berberetan agertzen dar

1796 urtean, Jose Balzola zan jaube eta Gabriel Ondarza bertan bizi.
Bost urterako 70 dukatetan alokatzen zan.

1815 urtean, Jose Balzola'ren errenterua bizi dala esaten da.

1823 urtean, 467 errialeko errenta oiñarrizkoa izentatu eutsen, orren araberan erriagazko ardurak betetekor

1825 urtean lau lagun bizi ziran, senar emazteak eta euren seme ezkongai bi.

1988 Utsik dagor
Jaubetasuna Iñaki Aldazabal'en izenean dago.
9 hektarea.

## EGUZKITZA (EUZKITZE)

1704 ko erroltzean Domingo Eguzkitza zan jaube.
1746 urtekoan, izen bardiñagaz jarraitzen eban.
1796 urtean, Juan Bta. Baskaran agertzen da jaube lez.
1823 urtean, 338 errialeko oiñarrizko errenta izentatu eutsen erriko ordainbearretarako.
1945 Urte onetan barriztatu eben etxea.
1988 Utsik dago.
Pedro Urkiri'ren izenean dagoz jaubetasun agiriak.
15 hektarea.
2 txal, 2 beor, eta txarri bat.

## ERREMENTARIKUA

1704 ko erroltzean Domingo Arenaza zan jaube.
1745 urtean, Juan Barinaga agertzen da jaube lez.
1796 urtean, Concepción Barinaga.
1823 urtean, 93 errialeko oiñarrizko errenta izentatu eutsen, erriko ordainketetarako.
1988 Domingo Alberdi eta Maria Egurrola senar emazteak bizi dira eta eurak dira bertako jaube.
8.000 m2.
Bei bat, txal bat, 11 auntz, aker bat eta untziak.
Etxekoak diñoe entzunda daukela errota izan zala.
Lurrez Etxebarria da. Eleizaz Barinaga'ko parrokiko dira.

## GARRO

lzen onetako baserri bi ezagutzen dira: **Garro Andi** edo **Nausi.**
**Garro Txiki.**

### Garro Andi

1704 urtean, Juan Garro zan bertako jaube.
1745 urtean Domingo Garro.
1796 urtean Franzisko Loiola.
1823 urtean, 702 errialeko oiñarrizko errenta ipini eutsen, orren araberan erriagaz konpontzeko.

1988 Etxe bizitza bitan banatuta dago.
Baten, Antonio Oñaederra eta Nikolasa Ansola senar emazteak bizi dira, errenteru lez, eta euren koñatua dan Iñazio.
Jaubetasuna Angel Loiola'ren izenean dago.
15,5 hektarea.
5 bei, 6 txal, txarri bat eta oilloak.
Tolarea dago etxean eta ogi erreteko labea be bai.
Bigarren etxe bizitza, utsik dago.
Angel Loiola da bertako jaube be.

Garro Txiki

1745 urteko erroltzean, diño: "otra llamada de Gortasolo de Domingo Garro".
1796 urtean, txiki lez agertzen da eta Franzisko Loiola bertako jaube.
1823 urtean, 350 errialeko oiñarrizko errenta izentatu eutsen erriko goraberetarako.
1988 Jose Antonio Ansola eta Lorenza Barruetabeña senar emazteak bizi dira eta Jesus Ansola semea.
Jaube lez Angel Loiola Bergara agertzen da.
14,5 hektarea.
4 bei, 6 txal eta oilloak.
1936'ko gerratean Elgoibar'eko Belaustegi baserrira aldatu ziran emen bizi ziranak eta bertan bizi zazpi illabetetan.

**LEJARDI**

1704 urtean, Madalena Mugerza zan jaube.
1745 urtean, Min Lejardi.
1796 urtean. Domingo Lejardi.
1823 urtean, 431 errialeko oiñarrizko errenta izentatu eutsen, neurri orren araberan erriagaz erantzuteko.
1988 Ez da iñor bizi.
Jaubetasuna Ansola Muniozguren anaiak dauke.

## LOPERREKA

1745 urteko erroltzean, Migel Unamunzaga agertzen da bertako jaube.
1796 urtekoan, Bartolome Unamunzaga.
Errentan euken, bost-urtetako 40 dukatetan.
1823 urtean, 327 errialeko oiñarrizko errenta izentatu eutsen, erriagazko erantzupenetarako.
1988 Maria Josefa Elustondo'ren izenean dagoz jaubetasun agiriak, eta bere senar Domingo Juaristi, Ainhoa alaba eta Presen Mugerza aiña bizi dira bertan.
3 hektarea.
3 bei, 4 txal, asto bat eta oilloak.

## ORIZATE (OIZETE)

1704 urtean egin zan erroltzean, Martin Orizate agertzen da jaube lez.
1745 urtean, Orizate izenez agertzen da eta Juan Rementeria bertako jaube.
Urte onetan bere alboko bat lez "otra azesoria" bat agertzen da.
1796 urtean, Andres Orizate da jaube, bai eta alboko etxetxuarena be.
1823 urtean 362 errialeko oiñarrizko errenta ipini eutsen erriko goraberetarako.
Errenta bardiña izentatu eutsen etxetxuari be.
1988 Etxe bizitza bi daukaz.
Bien jaube Rementeria Elu'tarrak dira.
Baten, errenteru lez, Jose Zubizarreta eta Josefa Balzola senar emazteak bizi dira euren seme Luis Mari eta Josefinagaz. Azken au Jose Luis Plaza'gaz ezkondua, eta euron alaba Oiana.
Beste etxea utsik dago.
43 hektarea.
6 bei, 6 txal, mando bat, asto bi, 53 ardi, aari bi, txarri bat, oillo eta untziak (konejuak) daukez.

## ORIZAMO

1704 urteko erroltzean Juan Orizamo zan jaube.
1745 urtekoan, Franzisko Egurrola agertzen da.
1796 urtean, Jose Egurrola.
1823 urtean, 735 errialeko errenta izentatu eutsen, erriaren artuemonetako oiñarrizko lez.
1988 Ez da iñor bizi.
Juan Etxebarria'ren jaubetasuneko da.
18,5 hektarea.

## OSOLO

1704 ko erroltzean, Agustin Larragoiti agertzen da jaube lez.
Urte onetan Ossolokua etxetxua be agertzen da eta Juan Egurrola zan jaube. Bertan eskale bat bizi dala esaten da, Maria Martinez izenekoa.
1745 urtean, Osolo'ren jaube Pedro Orbea agertzen da.
Osolokua'rena, Juan Egierre.
1796 urtean, Baldespina'ko markesa da emengo jaube.
1823 urtean, 268 erria) izentatu eutsezan oiñarrizko errenta lez, neurri orretan erriari erantzuteko.
1988 Utsik dago, 60 urte inguru dira orrela geratu zala.
Jaubetasun agiriak Ramon Gizasola'ren izenean dagoz.
Etxetxua be utsik dago, 1970 ingurutik.
Jaubea, R. Gisasola berbera.

## SARATZIBAR

Iru etxe billatzen doguz **Saratibar** izenekoak:
**Saratzibar Bekua.**
**Saratzibar Errota.**
**Saratzibar Goikua.**

**Saratzibar Bekua**

1704 urtean, Juan Sarazibar zan jaube.
1745 urtean, Domingo Sarazibar.
1796 urtean "azpikoa" deitzen da eta Jose Olasolo agertzen da jaube lez.

1823 urtean, 466 errialeko oiñarrizko errenta izentatu eutsen, erriko goraberetarako.

1988 Agustin M. Olasolo agertzen da jaube lez, eta bertan bizi da emazte Miren Arizmendiarrieta eta alaba bigaz, bai eta Dominga Olalde alarguna be bertan bizi da.

18 hektarea.

8 bei, 10 txal, asto bat, 10 ardi, aari bat eta oilloak.

**Saratzibar Errota**

1823 urtean, 165 errialeko oiñarrizko errenta izentatu eutsen, erriko goraberetan erantzuteko.

1988 Migel Zelaia da jaube.

3,5 hektarea.

3 txal, 3 bei.

**Saratzibar Goikoa**

1704 urtean, Antonio Garate'ren seme-alaba txikiena zanr

1745 urtean, M. Sarasuagaz bigarrenez ezkonduta dagoan andrearena da.

1745 urtean, "gañekoa" Juan Urkidi'ren alargunarena.

1745 urtean, "beste etxe onen geigarri bat", bizilagun barik, abereentzako erabilten dana.

1823 urtean 539 errialeko oiñarrizko errenta izentatu eutsen.

1825 urtean Baten ama alarguna bizi zan seme bigaz.

Bestean, gizon alargun bat bere anai-arreba bigaz.

1988 lru Etxe bizitza daukaz:

Baten Domingo lbarluzea eta Miren Aranbarri senar emazteak (jaubeak) bizi dira, semeagaz.

12 hektarea.

5 bei, idi bi (probetan ibilten diranak), 7 txal eta oilloak.

Bestean, Rikardo Lopez eta Amaia lbarluzea senar emazteak bizi dira, Garikoitz semeagaz.

Bestean, Jose K. lbarluzea eta Susana Guenaga bizi dira. Senar emazteak.

## SARATSU

lru **Saratsu** agertzen dira etxeen artean: **Saratsu Barri.**
